

3seuskadi

**Haurren eta nerabeen partaidetza.
Sustatzen eta indartzen jarraitzeko ekimenak
eta ildoak**

Uztaila
2025



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Egileak: Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektore Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA KOKAPENA.....	1
2. ARAUDI MAILAKO ESPARRUA.....	4
3. HELBURUAK, METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA.....	13
4. IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	16
4.1 Ekimenen ezaugarriak	16
4.2 Ekimenak identifikatzea	19
5. HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA EAE-N: SUSTATZEN ETA INDARTZEN JARRAITZEKO OINARRI PARTEKATUAK ETA ILDOAK.....	66
5.1 Parte-hartzearen definizioa eta testuingurua	66
5.1.1 Haur eta nerabeen parte-hartzea artikulatzeko oinarri partekatuak	66
5.1.2 Haur eta nerabeen parte-hartzeak interpelatzeko dituen eragileak	67
5.1.3 Parte hartzeko konpetentziak	70
5.2 Prozesu parte-hartzaileak sustatzeko elementuak	71
5.2.1 Parte-hartzearen testuinguruari dagokionez	71
5.2.2 Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuari dagokionez	72
5.2.3 Parte hartzeko beharrezko baldintzei dagokienez	73
5.3 Prozesu parte-hartzaileak zailtzen dituzten elementuak.....	74
5.3.1 Parte-hartzearekin lotutako egiturazko zailtasunak	74
5.3.2 Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuarekin lotutako zailtasunak	74
5.3.3 Testuinguruarekin eta dibertsitatearen kudeaketarekin lotutako zailtasunak	75
5.4 Parte hartzeko prozesuetan aurrera egiten jarraitzeko ildoak.....	76
5.4.1 Haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzko sentsibilizazioa eta pedagogia	76
5.4.2 Ezagutza partekatua eta irismen handiagoa	77
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	79
7. ERANSKINAK.....	81
7.1 Parte-hartzaileak.....	81
7.2 Galdetegia	82

*"Haurren eskubide bat bera ere ez da bestea baino garrantzitsuagoa. Hala ere, badago haurrei gainerako eskubideak betetzeko aukera ematen dien bat: **parte hartzeko eskubidea**" (UNICEF,2022)*

1. SARRERA ETA KOKAPENA

Elkarrizketa Zibilerako Euskadiko Mahaia (aurrerantzean, EZEM) kontsultarako organo gorena da, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak (aurrerantzean EHSS) Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzeko organoa. Mahaia eratzeak aukera EHSSLren 6/2016 legean¹ jasota dago, eta 283/2012 Dekretuak² arautzen du funtzionamendua. Gaur gaurkoz, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari³ atxikita dago.

Mahaiaren helburua EHSSko sareekin elkarrizketa iraunkor, operatibo eta bi noranzkoko edukitzea da, gobernu-ekintzari eta erakunde zein sareen ekintzari buruz, esku-hartze sozialaren eremuan. Ekintza horien xedea izanik gizarte-behar ase gabeak dituztenen ongizatea hobetzea eta gizarte-inklusio osoa lortzea. Hogei kide ditu: lau kide EAEko Administrazio Orokorrekoak izango dira, eta gainerako hamaseiak, EHSSkoak. Hartzaileek parte hartzen dute dagozkion eremu eta kontingentzietako erakundeek haiek ordezkatzuz. EZEMen zenbait batzordetan, erakundeekin lotuta dauden pertsonen zuzenean parte hartzeko espazioa ematen da.

EHSS Sustatzeko Estrategiak⁴ (aurrerantzean, EHSSSE) lan-edukiak egituratzen laguntzen du epe luzera begira. Gainera, mahai orokorretik elkarlan-mahaietara aurrera egin nahi da, politika eta proiektu zehatzen diseinuan batera lan egiteko. Xede horrekin, mahaia hainbat batzordetan egituratuta dago, eta proiektuen garapenari begirako dinamikak dituzte, elkarrizketa zibilaren printzipiotik abiatuta:

- a) Estrategiaren jarraipena jatorrizko batzordearen bidez
- b) Adinekoak (Euskadiko Adinekoen Batzordea)
- c) Desgaitasuna
- d) Haurrak, nerabeak eta gazteak
- e) Gizarteratzea

Lan-prozesu honi dagokionez, EZEMen Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordeak prozesuak sustatzen ditu haur, erabe eta gazteen zeharkako politiketan eta haur eta nerabeen parte-hartzean helburu garrantzitsuak lortzeko. Batzordea elkarrizketa zibilerako espazio iraunkorra da eta, hortaz, haur, nerabe eta gazteen arloko lan operatiboa egiteko espazioa.

EZEMeko kide diren EHSSko erakundeek –Sareen Sareko haur, nerabe eta gazteen eskubideen batzordea osatzen dute halaber–, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), haur eta Nerabeen zuzendaritzak (prozesuaren hasieran Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiken Sailari atxikita

¹ Kontsultatu EHSSren legea: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2016/05/12/6/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/>

² Kontsultatu dekretua: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2012/12/11/283/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/>

³ Egun Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari atxikita dagoen arren, lan-prozesua XII. Legegintzaldian hasi zen eta, orduan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren barruan zegoen EZEM.

⁴ Kontsultatu EHSSSE: <https://3seuskadi.eus/libros/estrategia-de-promocion-del-tercer-sector-social-de-euskadi-plan-de-legislatura-2021-2024/>

zegoen) eta Gazteria Zuzendaritzak (prozesuaren hasieran Lehendakaritzari atxikita zegoen) hartzen dute parte batzordean⁵.

Haur, nerabe eta gazteen eskubideen, gaitasunen eta betebeharren gaineko kontzientzia handiagoa eta haien autonomia eta erantzukizun handiagoa sustatzeko espazioa da, gizarte eta hezkuntza arloko ekintzaren mugarri gisa. Betiere, egoera eta testuinguru sozioekonomiko eta kulturaletik abiatuta.

Hortaz haur, nerabe eta gazteen bizi-baldintzak hobetzeko, eta haien eskubideak aitortzeko eta behar bezala gauzatzeko trakzio-ekimen zehatz eta operatiboak elkarrekin sustatzeko espazioa da besteak beste, eta haur eta nerabeak protagonista diren ekimenak bultzatu eta haien ahalduntzea sustatzen du, politikan eragiteko trebatuz.

EHSSren maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak berak 7.1 artikuluan honako hau xedatzen du: *“Elkarriketa zibilaren printzipioari jarraiki, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareek, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraiki, kaltetu gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organismoek dagozkien erabaki-gaitasunak”*

EZEMen Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordeak proposatutako ekintza-lerroei erantzunez, eta haur eta nerabeen parte-hartzea indartzeko eta sustatzeko ezagutza-, diagnostiko- eta berrikuntza-prozesuaren aldeko apustua eginez, txosten honen helburu orokorra da Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) 12 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea behar bezala gauzatzeko oinarri eta erreferentzia partekatuen esparrua sortzeko eta aurrerapausoak emateko ekimenak eta ildoak identifikatzea. Horretarako, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiari eskatu zitzaion, alde batetik, ekimenak identifikatzeko, eta, bestetik, EHSSko erakundeekin eta beste eragile batzuekin tailer bat egiteko.

EAEko haur eta nerabeen parte-hartzea ezagutzeko, finkatzeko eta sustatzeko apustua da, oro har, eta Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordearen gomendioarekin lotuta dago. 2018ko Azken Oharretan erakunde horrek gomendatu zuen ikerketak egiteko estatu mailako administrazioetan, besteak beste, haurrentzako garrantzitsuenak diren kontuak zehazteko, eragiten dieten familiako erabakietan haien iritzia zer neurritan kontuan hartzen den jakiteko eta hainbat prozesutan eragin handiagoa izateko egun dituzten kanalak edo izan ditzaketenak zein diren zehazteko. Halaber, kontzientziazio-programak eta -jarduerak sustatzearen garrantzia nabarmendu zuen, haur eta nerabeen parte-hartze esanguratsua bultzatzeko, ahalduntzean oinarrituta eta edozein adin eta inguruetan: familia, komunitatea eta eskola. Gainera, arreta berezia jarri behar zaie zaurgarritasun-egoeran edo -arriskuan dauden haurrei (Save The Children, 2021).

Horrez gain, haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea jasota dago Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan, zehazki, *16. helburuan: Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak*. Helburu hauek jasotzen ditu: (NBE, 2015):

⁵ Txosten hau XII. Legegintzaldian egin zen; beraz, orduko sailen egiturari egiten dio erreferentzia.

- **16.7. helburua:** Maila guztietan beharrei erantzuten dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkagarriak hartzea bermatzea.
- **16.10. helburua:** Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea, lege nazionalen eta nazioarteko akordioen arabera.

Euskadiko araudiari dagokionez, Haur eta Nerabeen 2024ko otsailaren 15eko 2/2024 Legeak⁶ eta Gazteriaren 2022ko martxoaren 10eko 2/2022 Legeak⁷ ezartzen dute parte-hartzea dela ardatz nagusietako bat, prebentzioarekin, babesarekin eta sustapenarekin batera. Bestalde, EHSSren 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7.1 artikulua politikaren fase guztietan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen du, elkarrizketa zibilaren printzipioaren arabera.

Bai Administrazio Publikoak, bai EHSS osatzen duten erakundeek adingabeekin lan egitearen aldeko apustu argia egiten dute, hainbat ikuspegi eta helburutatik. Zehazki, EHSSren kasuan, haur eta nerabeenganako arretak ikuspegi zabala du erakundeetan. 2023ko Barometroaren datuen arabera⁸, erakundeek % 47,2k haur, nerabe eta gazteak artatzen dituzte hein handi edo txikiagoan eta erakundeek % 19,4ren kasuan artatzeko kolektibo nagusia da. Halaber, adierazgarria da erakundeek % 11,6ren kasuan hezkuntza eta aisialdia direla jarduketarako nagusiak eta % 7,8k babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituela nagusiki.

Erakundeek eskaintzen duten zerbitzu nagusiari dagokionez, % 10,5ek gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea egiten du eta % 7,6k garapen komunitarioa edo tokikoa. Hornitzen duten zerbitzu nagusiaz gain, kontsultatutako erakundeek erdiek baino gehiagok aisialdiko zerbitzuak (% 64,9) edo prestakuntza eta hezkuntzako zerbitzuak (% 61,6) hornitzen dituzte. Erakundeek eragin-jarduerak nagusiari eta egiten dituzten beste funtzio sozialei dagokienez, % 18,1ek boluntariotza, elkarrenganako laguntza, parte-hartze soziala eta asoziazionismoa sustatzeko ekintzak egiten dituzte eta % 11,4k eskubideak salatu eta sustatzen dituzte, bai indibidualak, bai kolektiboak.

⁶ Kontsultatu legea: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-4784

⁷ Kontsultatu legea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-8832>

⁸ Kontsultatu 2023ko Barometroa: <https://3seuskadi.eus/que-hacemos/diagnostico-del-tercer-sector/barometro-2023-y-libro-blanco-2024/>

2. ARAUDI MAILAKO ESPARRUA

▪ 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa

EHSSren legeak definitzen ditu ekimen sozialeko erakundeak (hirugarren sektorea) eta esku-hartze sozialekoen (hirugarren sektore soziala) ezaugarriak, baita gizarte eta hezkuntza arloko espazioa ere, **3 eta 4 artikuluetan** hurrenez hurren. Erakundeak ezaugarri horietara egokitzen dira: boluntarioak dira, gizarte zibilaren parte dira eta gizarte zibiletik eta zibilarentzat sortzen dira; pribatuak dira (administratibotik bereizita daude eta modu independentean gobernatzen dira); irabazi-asmorik gabeak dira (etekinak beren misioan inbertitzera behartuta daude); eta parte-hartzaileak dira, haien figura publikoaren araudi aplikagarriaren arabera.

Hortaz, 6/2016 Legearen aurreikuspenen multzoa aplikatuko zaie, eta, zehazki, errolda (**5. art**), printzipioak (**6. art**), elkarrizketa zibila (**7. art**) eta, ondorioz, organoetako parte hartzea (**8 eta 9 art**) eta III. kapituluak arautzen duen esku-hartze sozialaren arloko politikak gauatzeko elkarlana (interes orokorreko jarduerentzako babes publikoa) eta lankidetzak (**10-16 artikulua**).

Zehazki, EHSSri buruzko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean, zehazten da elkarrizketa zibilaren printzipioa dela EHSSko erakundeek esku-hartze sozialaren arloko politika publikoak egiteko, gauatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko duten parte hartzea. Legearen II. kapituluak elkarrizketa zibilari buruzkoa da eta, 7.1 artikuluan, lehen aipatu den moduan, honako hau xedatzen da: *“Elkarrizketa zibilaren printzipioari jarraiki, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareak, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateak, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraiki, kaltetu gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak”*.

▪ 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriari buruzkoa

Gazteriari buruzko 2022ko martxoaren 10eko 2/2022 Legean definitutako parte-hartzearen barruan sartzen dira gazteek beren ingurunean, harremanetan eta garapen pertsonal eta kolektiborako aukeretan erabakitzeko eta batez ere kolektibitate baten barruan duten bizi-proiektuan eragin zuzena edo zeharkakoa duten horietan eragiteko gaitasuna garatzea, esku-hartzea eta eraldatzea sustatzen duten prozesuak, ekintzak eta jarrerak. Halaber, eragiten dieten arau-proiektuen eta politiken gaineko informazioa jasotzeko eta erabakietan parte hartzeko eskumena izatea, elkarrizketa zibilerako printzipioaren arabera. Horretarako, haien ekarpenak aintzat hartu behar dira eta emaitzen gaineko informazioa emateko mekanismoak ezarri.

Ildo beretik, **46. artikuluan** –*gazteek parte hartzeko moduak*– definitzen da parte-hartzea dela politika publikoak aplikatzeko garaian esku hartu ahal izateko ekimenak eta proiektuak beren kabuz garatzeko gaitasuna; administrazio publikoekin elkarrizketa izatea; eta erantzukizun

publikoko programak eta proiektuak kudeatzea eta besteekin batera kudeatzea, aurretik aipatutako elkarrietzeta zibilaren printzipioaren arabera.

Halaber, EAEko administrazio publikoek aisialdi hezitzailea haur, nerabe eta gazteen eskubide gisa aitortzeko eta gazteentzako baliabideen sarea pixkanaka handitzeko duten konpromisoa ezartzen du, aisialdi hezitzailea eta denbora libreko hezkuntza eskubideak bermatzeko tresnatzat hartuz.

▪ 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, haur eta nerabeena

Haur eta nerabeen **28. artikuluan** *–parte hartzeko eskubidea–*, honela definitzen da parte-hartzea: familiako bizitzan eta bere harreman-nukleorik hurbilekoenean, zein bere inguruko bizitza sozialean, kulturean, artistikoan, kirolekoan, aisialdikoan eta politikoan parte hartzeko aukera. Gainera, herritartasun aktibora pixkanaka hurbiltzen hastea ere barne hartzen du, adinaren eta garapen ebolutiboaren arabera.

Parte-hartzea behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, haur eta nerabeek entzunak izateko eskubidea dute, legearen **26. artikuluan** ezarritako terminoetan, eta modu zuzen eta aktiboan har dezakete parte gizartean zein beren eskubide eta betebeharretan eragina duten politika publikoetan; bizi-baldintza indibidual eta kolektiboak, haien komunitatekoak edo eragiten dieten beste edozein arlotakoak eraikitze eta hobetzeko parte hartzeko aukera ematen dieten bideen esparruan.

Zehazki, adingabeek eskubidea izango dute Haur eta Nerabeen Euskal Kontseiluan, Haur eta Nerabeen Foroan eta udalerrian edo erkidegoan dauden bestelako dispositibo, espazio, egitura, mekanismo edo berezko prozesuetan parte hartzeko, parte hartzeko bide egonkorrek sustatzeko ekintza zehatzen esparruan.

Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak sustatzeko jarduketari buruzko II. kapituluaren, zehazki **53. artikuluan** *–adierazpen-askatasuna eta sorkuntza intelektual eta artistikoa sustatzeko jarduketak–* ezartzen da EAEko administrazio publikoek, oro har, beren eskumenen arloan sustatu beharko dutela legearen **27. artikuluan** aurreikusten den adingabeen adierazpen-askatasun eraginkorra. Horretarako, adingabeei, haien gurasoei, legezko ordezkariari, harrer-familiei eta zaintzaileei, zein gizarte osoari informatzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko dibulgazio-kanpainak egingo dituzte, eta, horretarako, eskubide hori sustatzeko ekintza espezifikoa artikulatuko dituzte edo haur eta nerabeen eskubideak dibulgateko ekintza orokorretan gehituko dituzte. Zehazki, jarduketa hauek garatu dira helburu hori betetzeko:

- a) Haien pentsamenduak, ideiak eta iritziak adierazteko, zabaltzeko eta publiko egiteko bideak sustatzeko ekintzak bultzatu eta babestuko dituzte.
- b) Sorkuntza literario eta artistikoarekiko interesa sustatuko dute, interes hori pizteko jardura espezifikoa sustatuz zentro kultural eta artistikoetan.
- c) Jardura sortzaileetarako sarbidea sustatuko dute kultura eta aisialdi sortzailea sustatzeko egiten dituzten jarduketan barruan. Titulu honen VII eta IX kapituluaren barruan aurreikusten dira horiek.

54. artikulua *–Parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea sustatzeko jarduketak–* ezartzen du EAEko administrazio publikoek beren eskumenen arloan eta adingabeen elkartzeko, biltzeko eta parte hartzeko eskubideak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko, hau

sustatuko dutela oro har: **a)** gizartean parte har dezaten sustatzeko eta bilera publikoak eta manifestazio baketsuak deitzeko eta horietan parte hartzeko eskubidea sustatzeko elkarteak eta erakundeak eratzea eta **b)** adingabeek parte-hartze eraginkorra izatea, garapen pertsonal, sozial eta demokratikorako elementu gisa.

Zehazki, EAEko administrazio publikoek sustatuko dute adingabeak kolektibo gisa zuzenean entzunak izatea, haiei eragiten dieten gai eta erabakietan. Eta, horretarako, prozedurak sortu eta fisikoki edo birtualki parte hartzeko bide irisgarriak gaituko dituzte, haien inguruko bizitza sozial, politiko, kultural eta artistikoan esku-hartze arduratsua egiteko, iritzia azalduz eta hobetzeko proposamenak edo iradokizunak eginez. Artikulatzen diren parte-hartzeko bideek irizpide hauek bete beharko dituzte:

- a)** Bete beharreko xede eta helburuekin bat etortzea.
- b)** Informatiboak eta informatuak izatea.
- c)** Boluntarioak izatea.
- d)** Errespetuzkoak izatea eta adingabe parte-hartzaileen gaitasunera eta haien gaitasunen bilakaerara egokituak egotea.
- e)** Inklusiboak izatea eta diskriminazio mota oro ekiditea.
- f)** Prestakuntza izatea, edozein arrisku eta ondorioren aurrean arretaz jokatzeko eta lortutako emaitzaren jarraipenaren eta ebaluazioaren gainean erantzukizunez jokatzeko. Horretarako, ekintza eta politika publikoetako parte hartzearen emaitzak behar bezala itzultzeko mekanismoak aurreikusi beharko dira.

Horretarako, ekintza eta politika publikoetako parte hartzearen emaitzak behar bezala itzultzeko mekanismoak aurreikusi beharko dira.

Ildo berean, artikulua horren **(54.art.) 3. apartatua** aurreikusitako ondoretarako, jarduketara hauek garatuko dituzte euskal administrazio publikoek:

- a)** Kontsultarako eta zuzenean parte hartzeko dispositiboak, espazioak, egiturak, mekanismoak edo prozesuak sustatuko dituzte dagozkien lurralde-eremuetan adingabeentzat eta adingabe horiek integratzen diren eta ordezkari-tza instituzionalik ez duten erakunde sozialentzat, parte-hartze hori modu eraginkor eta zuzenean sustatzeko zuzenean edo zeharka eragiten dieten gai guztietan, 28. artikuluan araututako baldintzen arabera.
- b)** Bermatuko dute Haur eta Nerabeen Foroak eskubidea izango duela haurren eta nerabeen arloko proposamenak Eusko Legebiltzarrean azaltzeko, baita haurren eta nerabeen arloko ongizatearekin eta eskubideekin lotutako gaiekin zerikusia duten lege-aurreproiektu guztien inguruan Legebiltzarrari aholku emateko eta harengandik informazioa jasotzeko eskubidea ere.
- c)** Adingabeen parte-hartze eraginkorra bermatuko dute haien ordezkari-tza bermatuz ezar daitezkeen kontsulta-organoetan eta parte-hartze mistokoetan, orokorrean zein jarduteko arlo sektorialekoetan; eta, bereziki, lege honetako 307. artikuluan aurreikusitako Haur eta Nerabeen Foroan.
- d)** Adingabeei zuzendutako kontsultarako eta parte hartzeko prozesuak antolatuko dituzte, haien eskubide eta betebeharrei zuzenean eragiten dieten politika publikoen diseinuan parte har dezaten.

- e) Kontzientziazio-programak eta -jarduerak diseinatu eta ezarriko dituzte adingabeek familiako bizitzan, komunitatean eta eskoletan parte har dezaten sustatzeko, edozein adinetan, eta ahalduntzean oinarritu beharko dira.
- f) Ikerketak egingo dituzte adingabeentzako konturik garrantzitsuenak zein diren jakiteko, eta haien bizitzan eta nortasunaren garapen askean eragina duten familiako erabakietan, inguruan dituzten parte hartzeko bideetan eta eskolako eta komunitateko ohiko garapenean haien iritzia zer neurritan kontuan hartzen den jakiteko.

▪ **3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko**

Lege honek⁹, zioen azalpenean, ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako eskubidea; informaziorako eskubidea; askatasun ideologikorako eskubidea; parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea; adierazpen-askatasunerako eskubidea, eta entzuna izateko eskubidea jasotzen eta garatzen du berariaz, guztia autonomia-bermearen pean.

Aurretik aipatutakoa ordenamendu juridiko guztira zabalduko da pixkanaka haur eta nerabeei eragin diezaieketen arlo guztietan, iritzia emateko eta iritzi hori kontuan izateko eskubidea izan dezaten, iritzia behar bezala arrazoitua baldin badago. Horrek demokratizazioaren printzipioa berretsi eta finkatzen du.

Halaber, **II. tituluak** haur eta nerabeen oinarritzko eskubide guztiak jasotzen ditu, bai eta osasunaren, hezkuntzaren, kulturaren, aisialdiaren, ingurumenaren, ingurunearen, parte-hartze sozialaren eta integrazio sozialaren arloan dituzten eskubideak ere. Hala, administrazio publiko guztiak eta arlo horietan parte-hartze aktiboa duten erakunde guztiak inplikatzeko dira legea aplikatzeko garaian.

9. artikulua –*haur eta nerabeen eskubideak*– dio ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako, identitaterako, informaziorako, askatasun ideologikorako, parte-hartzeko, elkartzeko eta biltzeko, adierazpen-askatasunerako, eragiten dieten erabakietan entzunak izateko eta eskubideak defendatzeko eskubidea dutela.

Zehazki, **14. artikulua** –*parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea*– hau jasotzen du:

1. Adingabeek eskubidea dute haien gertuko bizikidetzan-nukleoetan eta inguruko bizitza sozialean, artistikoan eta sortzailean parte hartzeko, eta pixkanaka herritartasun aktibora hurbiltzeko, duten garapen pertsonalaren mailaren arabera.
2. Haur eta nerabeek elkartzeko eskubidea dute eta hori da zehazki alderdi politikoen eta sindikatuen elkarrekin eta gazte-antolakundearen parte izateko eskubidea izatea eta haur eta gazteen elkarrekin sustatzeko eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako terminoetan inskribatzeko eskubidea izatea.
3. Haur eta nerabeek eskubidea dute lege ezarritako baldintzetan antolatzen diren bilera publikoetan eta manifestazioetan parte hartzeko, eta horiek sustatzeko eta deitzeko, gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen berariazko baimenarekin.

⁹ Aldaketak kontsultatzeko: [3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoa](#).

4. Administrazio publikoek beren eskumenen barruan sustatuko dute adingabeek foroetan parte hartzea, eragiten dieten proiektuen, programen edo erabakien gainean dituzten iritzia jasotzeko.

Halaber, **16. artikulua** –*entzuna izateko eskubidea*– hau ezartzen du:

1. Haur eta nerabeek, judizio nahikoa dutenean, eskubidea dute familia-arloan eta inplikaturik dauden beste edozein prozedura administratibo edo judizialan entzunak izateko, haien esfera pertsonal, familiar edo sozialari eragiten dioten erabakiak hartzen badira bertan. Nolanahi ere, administrazio publikoek beren konpetentzien barruan bermatu beharko dute eskubide hori gauzatzeko garaian diskrezioa, intimitatea, segurtasuna, presiorik eza eta egoeraren egokitasuna errespetatzen dela.
2. Haur eta nerabeak bere kabuz edo bere ordezkariaren bitartez iritzia eman ahal izatea bermatuko da, beharrezko judizioa baldin badu. Hala ere, hori posible ez bada edo adingabearen interesekoa ez bada, legezko ordezkarien bidez ezagutu ahal izango da haren iritzia.

Halaber, Ingurunerako eskubidea izeneko VII. Kapituluan dibertsitatearekiko arreta ere jasotzen da. Hortaz, mugitzeko zailtasunak dituzten haur eta nerabeen parte-hartzea muga dezaketen oztopo arkitektoniko edo urbanistikoak kentzen direla bermatu beharko da, Irisgarritasuna Sustatzeko 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 legean¹⁰ adierazitako baldintzetan.

▪ **12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.**

6. artikulua –*Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua*– ezartzen da mekanismoak antolatuko direla gizarte-zerbitzuen arloan erantzun daitezkeen behar sozialak ebazteko garaian komunitateak parte hartzeko, eta, zehazki, gizarte-zerbitzuen arloan aktibo dauden erabiltzaileen eta erakundeen parte-hartze indibidual eta antolatua sustatzeko.

Halaber, **48. artikulua** –*Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua*– zehazten da gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahal izango direla Kontseilu horren barruan, kontsultarako eta parte hartzeko. Kontseilu horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen behar espezifikoak arabera zehaztutako arlo materialetan garatuko dira. Kontseilu sektorial horiek beren jarduna betetzeko beharrezkoak iruditzen zaizkien txosten eta ikerketa guztiak har ditzakete aintzat, bai eta, zehazki, erabiltzaileen erakunde ordezkariak eta ekintza sozialeko hirugarren sektorekoek egindako proposamenak ere. Nolanahi ere, eta beharrezkoak diren beste batzuk baztertu gabe, adinekoen, haurren, desgaitasuna duten pertsonen eta inklusioaren kontseilu sektorialak eratu behar dira derrigorrez, bai eta gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitatera eta prestakuntza eta kualifikazioa hobetzera bideratutako kontseilu sektoriala ere.

Zehazki, **152/2017 Dekretuak, maiatzaren 9koak**, EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresnaren eguneraketa onesten duenak (BALORA), haur eta nerabeen beharren taxonomia ezartzen du, eta horien artean daude hauek:

- a) Behar fisikoak: jarduera fisikoak: ariketa eta jolasa
- b) Behar emozionalak: parte-hartzea eta pixkanakako autonomia

¹⁰ Kontsultatu: https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/informacion/3433/es_2188/es_11878.html

- c) Behar sozialak: harreman sozialen sarea / interakzio ludikoa
- d) Behar kognitiboak: estimulazio sentsoriala (esploratzeko eta ikaskuntzarako esperientziak eskuragarri izatea) / esplorazio fisiko eta soziala

Halaber, babesgabetasunaren tipologiaren barruan sartzen ditu tratatu txar fisikoak eta, zehazki, tratatu txar emozionalaren barruan hauek:

Isolatzea: berdinekin edo beste heldu batzuekin, etxe barruan zein kanpoan, interakzioa izateko eta komunikatzeko beharra ukatzea haur edo nerabeari. Horren barruan sartzen dira, besteak beste:

Haur edo nerabea konfinatzea edo bere inguruan mugitzeko askatasunari arrazoizkoak ez diren mugak jartzea.
Berdinekin edo beste heldu batzuekin komunitatean erlazionatzeko garaian arrazoizkoak ez diren mugak edo murrizketak jartzea.

Autonomia mugatzea: haur edo nerabeari bere adinean dagozkion autonomia- eta partaidetza-kotak lor ditzan eragozteko edo mugatzea, bilakaerari dagokionez desgokiak diren jarrerak sustatuz edo ahalbidetuz. Horren barruan sartzen dira, besteak beste:

Haur eta nerabeen gainean gehiegi inplikatzeko, sartzea eta/edo menderatzea eta haien sentimenduak, iritziak edo nahiak adierazten ez uztea.
--

- **185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.**

Zorro-dekretuak berak **12. artikuluan** –*baliabidearen egokitasuna edo baliabideen konbinazioa eta preskripzio teknikoak*– ezartzen du baliabiderik edo baliabide-konbinaziorik onena zehaztean, pertsona ororen autonomiaren, parte-hartzearen eta komunitateko bizi-kalitatearen prebentziorako eta sustapenerako ikuspegiak ezarriko direla, eredu komunitarioarekin koherentzian.

Halaber, **20. artikulua**k, *Arreta Pertsonalizaturako Plana* (aurrerantzean, APP) eta *esku-hartzearen jarraipena egiteari* buruzkoak dio APP eta, hala badagokio, hura garatzeko programazio indibiduala, jarraipena, balorazioa eta diagnostiko soziala egiteko, ahal den heinean, pertsona edo familia erabiltzaileak hartu beharko duela parte, betiere aurretiaz eskatuta eta baimena emanaz gero, edo bestela legezko pertsona edo erakunde ordezkariak, 15 (b) artikuluan aurreikusitako kasuetan ofizioz jarduten denean izan ezik.

- **8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa**

4. artikulua –*irizpide orokorrak*– printzipio gisa jasotzen du haur eta nerabeei eragiten dieten erabaki guztietan haien parte hartzeko eskubidea bermatzea.

Halaber, normalean adingabeekin kiroleko edo aisialdiko jarduerak egiten dituzten erakundeei buruzko **48. artikulua**k betebeharrak hauek ezartzen dizkie besteak beste:

(d) Beharrezko neurriak hartzea honako hau bermatzeko: kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia ez dadin izan adinaren, arrazaren, desgaitasunaren, sexu-orientazioaren, sexu-identitatearen, genero-adierazpidearen edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialen arabera diskriminatzeko agertokia, eta haur eta nerabeekin zein haien familiekin eta

profesionalekin lan egitea irainak eta adierazpide umiliagarri eta diskriminatzaileak arbuizatzeko eta **(e)** haur eta nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.

▪ Haur eta nerabeekiko indarkeriaren aurkako euskal estrategia (2022-2025)

Haur eta nerabeekiko indarkeriaren aurkako euskal strategiaren (2022-2025) oinarritzko printzipioak edo ardatzak bat datoz Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin (aurrerantzean, HEH) eta hauek dira: haur eta nerabeen interesaren prebalentzia, diskriminaziorik ez jasateko eskubidea, parte hartzeko eskubidea eta bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea.

Beste arau batzuek ere, hala nola **haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak**, haurren eta nerabeen iritzia kontuan hartzeko betebeharrak aipatzen dute: *“Adingabearen desioak, sentimenduak eta iritzia kontuan izatea, baita progresiboki parte hartzeko duen eskubidea ere, bere adinaren, heldutasunaren, garapenaren eta eboluzio pertsonalaren arabera, bere interes gorena zehazteko prozesuan”*.

Aurrez aipatutakoa sustatzeak haur eta nerabeak bizi diren komunitatean edo gizartean parte hartzen duten pertsona arduratsuak izateko gaitasunak eta erantzukizunak eskuratzen laguntzen du. Hori dela eta, funtsezkoa da haien eskubideen ezagutza eta gauzatze progresiboa sustatzea, eta esperientzia horiek bere komunitatearen garapenari ekarpena egin diezaioke, baita autonomia progresiboa praktikan jarri ere. Haurren eta nerabeen eskubidea hauek osatzen dute, besteak beste:

- Eragiten dieten gaien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, kuantitate eta kalitate egokikoa.
- Kezka eragiten dieten edo interesatzen zaizkien gaien inguruan haien ideiak osatu eta adierazteko, eta haien iritzia emateko eskubidea. Eta iritzia osatzeko edo adierazteko prozesu horretan pertsona helduek botererik edo eraginik ez izateko eskubidea.
- Besteek haiek emandako iritzia entzuteko eta errespetatzeko eskubidea. Helduek horretarako behar den denbora eta espazioak eskaini beharko dituzte.
- Haur eta nerabeek emandako iritzia kontuan hartzeko eta eragiten dieten gaiei buruz hartzen diren erabakietan eragina izateko eskubidea.

Estrategia honen esparruan, haur eta nerabeen bizitza pertsonalean, familian, komunitatean edo gizartean eragina duten legedia, jarduketak administratibo edo programatiko guztiek haur eta nerabeen parte-hartzea izan beharko dute, eragiten dieten gauza guztietan uneoro aktiboki entzunak izateko aukera eskainiz.

PARTE HARTZEA	
1. ARDATZA: PREBENTZIOA ETA ESKUBIDEEN SUSTAPENA	
HELBURU ESTRATEGIKOA	Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzea, giza eskubideen urraketaen prebalentzia murrizteko, Tratu Onaren Kultura, ingurune seguruak, eta haur eta nerabeen eskubideen gauzatze eraginkorra sustatuz.
	1.1 Ezagutzaren sustapena eta haur eta nerabeen eskubideak gauzatzea, batez ere haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea; izan ere, inguruan rol aktiboa izatearekin lotutako trebetasunak lantzeko eta balioak eskuratzeko aukera ematen du, bai eta guztion aurrerabiderako lankidetzan aritzeko ere, ahalduntzean lagun baitezakete.

JARDUTEKO ILDOAK	1.2 Haur eta nerabeek bizitzarako balioak eta gaitasunak bereganatzea , hala nola bizikidetzarako gaitasunak hartzeko eta jarrerak garatzeko tresnetan, tratu onaren kulturarekin bat egiteko eta indarkeria eta bere ondorioak prebenitzeko.
	1.5 Hurbileko testuinguruetan ekipamenduak eta baliabide sozio-hezitzaileak, kulturalak, aisialdikoak eta kirolekoak indartzea , ikuspegi komunitariotik eta lankidetzatik lan egiteko.

Azken batean, Haur eta nerabeen parte hartzeko eskubide eraginkorra bermatzeko, funtsezkoa da parte-hartzearen kultura gizartean sustatzea eta arlo guztietara hedatzea: hezkuntzara, osasunera, segurtasunera, familiara, etab. Halaber, beharrezkoa da hasierako desberdintasunak ezagutzeko eta izaera inklusiboa duten parte-hartze prozesuak sustatzea, haur eta nerabeei eragiten dieten behar eta egoera desberdinak kontuan izateko eta adingabe guztiek haien ingurunean aktiboki parte hartzeko dituzten oztupoak gainditzeko.

▪ Astialdi Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategia

Estrategiaren sarreran ezartzen da aisialdiko hezkuntza-mugimenduak ekarpen handia egin diola euskal haur, nerabe eta gazteen sozializazioari, balioetan oinarritutako prestakuntzari eta gaitasunen garapenari. Autonomia-eskola, herritartasuna, parte-hartzea eta konpromiso soziala gisako taldeak eratuz eta Euskadirentzako oso baliotsua den kapital soziala kanalizatuz eta proiektatuz.

Halaber, aisialdiko hezkuntzaren metodologiak dakar pertsona- eta gizarte-eredu baten sustapenarekin lotutako helburuak lortzeko proposamen pedagogikoa aisialdian txertatzea: librea eta kritikoa, parte-hartzailea eta kooperatiboa, bidezkoa eta solidarioa, parekidea eta dibertsitatearen garrantzia nabarmentzen duena, mundura irekia eta bere identitatea eta kultura adierazten duena.

Hala ere, aisialdiko hezkuntzak bertan parte hartzen duten haur eta nerabeengan eragiteaz gain, begiraleentzat ere militantziarako, parte-hartze sozialerako eta politikorako eskola bihurtzen da, terminoaren zentzurik zabalenean. Begiraleak gazteak izaten dira normalean eta inpaktu garrantzitsua izaten du horrek haien bizi-ibilbidean eta ondorengo konpromisoetan. Hortaz, aisialdi hezitzaileko erakundeek eta sareek jabetza-sentimendua eta komunitateko parte-hartze aktiboa sustatzen dutela estrapolatu daiteke, komunitatea ezagutzeko, hari lotzeko eta proiektu komun batekin konprometitzeko aukera ematen baitu. Hala, nortasun partekatua, aukera-berdintasuna, pertsonen zaintza, garapen jasangarria eta ongizate komunaren, elkartasunaren eta justizia sozialaren bilaketa indartzen da.

Estrategiak helburu hauek indartu nahi ditu:

- Aisialdi edo denbora libre hezitzailea eskubide gisa eta bizitzatik eta bizitzarako ikasteko espazio garrantzitsu gisa.
- Aisialdiko hezkuntza metodologia gisa, gazteriaren sisteman eta gizarte- eta hezkuntza-arloko espazioan edo beste batzuetan.
- Aisialdi hezitzaileko erakundeek eta sareek ekarpen soziala.
- Tokiko hezkuntza-komunitateak eta herrialdeko aisialdi hezitzailearen proiektua.
- EAEko haur, nerabe eta gazteak zaintzeko jarduerak, elkarren artean konektatutako lau funtzio garatuz: sustapena, prebentzioa, babesa eta parte-hartzea.

- Printzipioetan eta balioetan oinarritutako eraikuntza sozialerako jarduerak: erantzukizuna, inklusioa, berdintasuna, justizia soziala, parte-hartzea, elkartasuna, demokrazia eta giza eskubideak.

- **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20koa.**

Haur eta nerabeen eskubideak jasotzen dira HEHn, eta giza eskubideen nazioarteko tratatu gisa onartu zen 1989an. Haurren aitortza etikoa eta arau bidezkoa izan zen, eta hala izaera loteslea eman zitzaion haurrei zuzendutako politika publikoei, hezkuntzakoei eta sozialei (Romero, Quirós eta Buxarrais, 2021). Hortaz, haurrei entzuteak esan nahi du, besteak beste, jarraian jasotzen diren HEHren artikulua gauzatzea:

12. artikulua –*haurraren iritzia*– estatu kideek haurrari bermatuko diote eragiten dioten gai guztietan bere iritzia modu librean emateko judizio propioa izateko baldintzak bermatzea. Haurrak eskubidea du eragiten dioten gai guztietan bere iritzia emateko eta iritzi hori aintzat hartzeko. Haurraren iritziak adinaren eta haurraren heldutasunaren arabera hartuko dira kontuan. Horretarako, haurrari eragiten dion prozedura judizial edo administratibo guztietan entzuna izateko aukera emango zaio haurrari, izan zuzenean edo ordezkari edo organo egoki baten bidez, lege nazionalaren prozedura-arauen arabera.

13. artikulua –*adierazpen askatasuna*– haur orok du mota guztietako informazioak eta ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea, betiere, horrek beste eskubideak gutxiesten ez baditu.

15. artikulua –*elkartzeko askatasuna*– haur orok du elkartzeko eta bilerak egiteko askatasuna, besteen eskubideen aurka ez badoa.

31. artikulua –*aisialdia, jolasa eta kultur jarduerak*– Haurrak aisialdirako, jolaserako eta jarduera artistiko eta kulturaletan parte hartzeko eskubidea du.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko 2023ko abenduaren 21eko 17/2023 Legea**

Lege honen zioen aurkezpenean adierazten da eskolak eta hezkuntza-sistemak, haiek bakarrik, ezin diela dagoeneko baditugun eta etorriko diren erronkei aurre egin. Hortaz, beharrezkoa da eskola zabaltzea eta aliantzak eta parte hartzeko sistemak ezartzea, III. kapituluaren zehazten den moduan.

Kapitulu horretan –*hezkuntza-sistemako balioak*– ezartzen da familien, ikastetxearen eta udalerriaren arteko giro kolaboratiboa izan behar dela abiapuntua hezkuntza erantzukizun partekatua izan dadin, ikastetxeak ingurune sozialarekin interakzioa izan dezan eta baliabide komunitario batzuk artikulatzen dituzten ikasleen ongizatean eta heziketan. Horren barruan sartzen dira ekimen sozialeko eta hirugarren sektoreko erakundeak, hezkuntza formalaren eta informalaren arteko lotura sustatzen baitute.

3. HELBURUAK, METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Txostenaren **helburu orokorra** da EAEko 12 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzen eta indartzen jarraitzeko ekimenak eta ildoak identifikatzea.

Helburu orokor hori **bi helburu espezifikotan** zehazten da. Lehenengoa da egun EAEn haur eta nerabeen parte hartzeko eskubideari dagokionez egin diren garapenak identifikatzea eta deskribatzea, batez ere haiei eragiten dieten politika publikoetan. Horretarako, haur eta nerabeek hartzaile diren EHSSko erakundeetan parte har dezaten sustatzeko ekimenak identifikatu dira, erakunde horien bitartez eragiten dieten politiken diseinuan, jarraipenean edo ebaluazioan parte hartzeko. Bigarren helburua da EAEko haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea behar bezala gauzatzen dela finkatzeko oinarri eta erreferentzia partekatuak sortzea, batez ere haiei eragiten dieten politika publikoetan.

Helburu bikoitz hori jorratzeko, **lau fasez** osatutako lan-prozesua garatu da. Jarraian zehazten da:

1. laburpen-irudia. Lan-prozesua



Lehenengo fasea: galdetegia

Online galdetegi bat (*kontsultatu 7.2 eranskina*) diseinatu da Sareen Sareko Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordeko erakundeek eta sareen bidez zabaltzeko. Galdetegiak **35 item** ditu guztira, bai erantzun anitzeko galdera itxiek, bai galdera irekiek. Itemak **hiru bloketan** daude zatituta: **(1)** identifikazioa; **(2)** ekimenaren deskribapena eta **(3)** zailtasunak eta aurrera egiten jarraitzeko ildoak. Landa-lanarekin hasi aurretik, galdetegiaren **aurretest** bat egin zen hainbat erakunderekin itemen egokitasuna egiaztatzeko eta batzordearen iradokizun propioak gehitzeko.

Galdetegi 9 astez egon zen aktibo *encuestafacil* online plataforman eta hainbat motibazio-une izan ziren Haur eta Nerabeen Batzordearen eta Sareen Sarearen bitartez, parte-hartzea bermatzeko.

Galdetegi honen bidez lortu nahi da, alde batetik, haur eta nerabeei politika publikoetako parte-hartze prozesuen parte izateko eta/edo garatzeko aukera emango dien ahalduntze-prozesua sustatzeko konpetentziak eskuratzeko **lehen mailako** ekimenak identifikatzea; eta, bestetik, politika publikoetan parte-hartze zuzena sustatzeko xedea duten **bigarren mailako** parte-hartze ekimenak identifikatzea.



Bigarren fasea: kontrastea

Bigarren fasean, inkestatze-aldia amaitu ondoren, zerrenda bat egin zen galdetegiaren bitartez jasotako ekimenekin, Sareen Sareko Haur eta Nerabeen **Batzordearekin kontraste-saio bat egiteko**, txostenean gehituko diren amaierako ekimenak iragazteko eta zehazteko. Zerrenda aukeratutako behin betiko ekimenen gaineko informazioarekin kontrastatu eta gero, **fitxak** osatu ziren. Edukia eta horien zehaztasun maila aldatu egingo dira galdetegiaren bitartez lortutako informazioaren arabera. **32 ekimen** identifikatu dira guztira (*kontsultatu 4.2 atala*).



Hirugarren fasea: tailerra

Parte hartzeko ekimenak identifikatu eta jaso ondoren eta prozesuaren hirugarren faseari erantzunez, tailer bat egin zen eta haur eta nerabeen parte-hartzearen arloko hainbat eragileri luzatu zitzaien deialdia. Tailer horri esker txosten honetako 5 atala –*EAEko haur eta nerabeen parte-hartzea: sustatzen eta indartzen jarraitzeko oinarri partekatuak eta ildoak*– elikatu ahal izan zen, galdetegiarekin batera.

Tailerraren helburu orokorra zen EAEko haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea behar bezala gauzatzen dela finkatzeko oinarri eta erreferentzia partekatuak **sortzea**, batez ere haiei eragiten dieten politika publikoetan. Zehazki, hauek izan ziren tailerreko **helburu** espezifikoak:

1. helburu espezifikoa: haur eta nerabeen parte-hartzea zer den mugatzea eta parte-hartzea sustatzeko proiektuen, ekimenen eta jardueren zabalpena zer unetan dagoen identifikatzea.

2. helburu espezifikoa: Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordeak aukeratutako ekimen esanguratsuak aurkeztea, zer elementuk funtzionatzen duten eta zein sustatu behar diren identifikatzeko.

3. helburu espezifikoak: Taldeko lanaren bitartez planteatzea, baloratzea eta eztabaidatzea zein elementuk funtzionatzen duten eta zein indartu behar diren, zer oztopo dauden eta zer ildo garatu behar diren haur eta nerabeen parte hartzeko eskubidea finkatzeko adostasuna eta oinarri partekatuak lortzeko.

Tailerraren egiturari dagokionez, lehenik eta behin haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko eta indartzeko aurrerapausoak ematen jarraitzeko ekimenak eta ildoak identifikatzeko prozesua testuinguruan jarri zen. Bigarrenik, hiru ekimen esanguratsu aurkeztu ziren esperientziaren planteamendua eta garapena zehatz identifikatzeko, eta zer elementuk funtzionatzen duten eta zein sustatu behar diren zehazteko.

Azken fasean, hiru lantalde eratu ziren, Behatokiko taldeak dinamizatuta, eta eragile gonbidatuek hartu zuten parte. Hainbat dinamika parte-hartzailearen eta gogoeta bateratua egiteko galdera irekien bitartez jardun zuten horietan. EAEko haur eta nerabeen parte hartzeko eskubideari dagokionez egun dauden garapenen gainean egin zuten gogoeta. Tailerrean **23 erakundetako 29 pertsonak** hartu zuten parte. Eusko Jaurlaritzako erakundeak, EHSSko sare eta erakundeak eta beste eragile batzuk ziren (*kontsultatu 7.1 atala*).



Laugarren fasea: txostena

Txostena idazteari dagokionez, lehenik eta behin identifikatutako ekimenen azterketa orokorra egin zen, hainbat aldagairen gaineko (erakundearen eremu geografikoa, jarduketa arloa, tamaina, taldeen konposizioa, ekimenaren formatua...) galdetegien estatistika-ustiapen labur baten bitartez (*kontsultatu 4.1 atala*) eta identifikatutako ekimen bakoitza aurkezteko fitxa-eredu bat diseinatu zen (*kontsultatu 4.2 atala*).

Ondoren, jasotako informazioaren azterketa kualitatiboa egin zen, bai online galdetegien bitartez, bai txostenaren 5. atala (EAEko haur eta nerabeen parte-hartzea: sustatzen eta indartzen jarraitzeko oinarri partekatuak eta ildoak) elikatzeko tailerraren bitartez.

4. IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK

4.1 Ekimenen ezaugarriak


Aurretik aipatu dugun moduan, identifikatutako eta aukeratutako ekimenen zerrenda Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordearekin eta Sareen Sarearekin izandako elkarrizketetan oinarrituta dago. Helburua ez da izan ordezkartza lortzea, haur eta nerabeek politika publikoetan parte hartzeko EHSSren erakundeek egin dituzten ekimenak identifikatzea baizik.

Jarraian zehazten dira identifikatutako ekimen guztien ezaugarriak:


Ekimenak garatzen diren lurralde historikoari dagokionez, ekimen gehienak Bizkaian egiten dira (% 66), eta, gero, Gipuzkoan (% 16) eta Araban (% 12). Adierazgarria da ekimenen % 6 Lurralde Historiko batean baino gehiagotan garatzen direla.

Identifikatutako ekimenetan pisu handiena duen jarduketaren arloa gizarte eta hezkuntzakoa da (% 72). Gero, gizarte-zerbitzuak (% 13) eta ehuneko txikiagoarekin beste arlo batzuk (% 6), garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloa (% 6) eta arlo sozial-transbertsala (% 3).

1. grafikoa. Erakundearen banaketa jarduketaren eremu geografikoaren arabera





2. grafikoa. Erakundearen banaketa jarduketaren arloaren arabera




Ekimenak garatzen dituzten erakundearen tamainari dagokionez, gehienak erakunde txiki eta ertainak dira eta 300.000 €-tik beherako bolumen ekonomikoa dute. Erakunde guztien % 63 dira horiek. Beste % 31 erakunde handiak dira eta 300.000 eurotik gorako bolumen ekonomikoa dute urtean. Erakundearen % 6k ez du horren gaineko informaziorik eman.


Ohikoena da (% 63) lantaldeak soilik boluntarioz osatuta egotea. Haur eta nerabeek parte hartzeko jarduerak garatzen dituzten erakundearen % 31k, berriz, soldatapeko langileak ditu lantaldean. Erakundearen % 6k ez du informaziorik eman bere lantaldeei buruz.

3. grafikoa. Erakundeen banaketa tamainaren arabera

4. Grafikoa. Erakundeen banaketa lantaldeen konposizioaren arabera


Ekimen parte-hartzailearen formatuari dagokionez, ohikoena da prozesuak izatea (% 47). Proiektuak % 31 dira eta programak % 10. Zerbitzuak eta bestelako formatuak % 6 inguruko ehunekoetara iristen dira.


5. grafikoa. Ekimenen banaketa partaidetza-ekimenaren formatuaren arabera


Galdetegietan planteatu zen beste gaietako bat haur eta nerabeen parte-hartze maila izan zen. Garrantzitsua da kontuan izatea hainbat aukerako galdera dela, eta, hortaz, ekimen batek parte-hartze maila bat baino gehiago izan ditzakeela. Hori kontuan hartuta, ekimenen % 84,4ren kasuan, haur eta nerabeek taldean hartzen dute parte jarduera edo zerbitzuetan; ekimenen % 68,8an modu pertsonalean hartzen dute parte esku-hartze bakoitzean eta % 53,1ean modu kolektiboan, erakunde edo instituzioan. Garapenik txikiena duen maila da politika publikoen epe luzeko diseinuan eta ebaluazioan modu kolektiboan parte hartzea, orientazioa barne (% 3,1). Erakundeen % 12,5ek ez du horren gaineko informaziorik eman.

6. grafikoa. Parte-hartze maila bakoitza sustatzen duten ekimenak


Parte-hartze motari dagokionez, ekimenen % 75ean parte hartzailea da. Ehuneko txikiagoa dute parte-hartze autogestionatuak (% 9,4) eta kontsultarakoak (% 3,1).

7. grafikoa. Haur eta nerabeen parte-hartze mota





Ekimenaren sustapen arloari dagokionez, % 37k jardueretan parte hartzea sustatzen du, eta gertutik jarraitzen diote esku-hartze indibidualak (% 31), zerbitzuek (% 20) eta, azkenik, politika publikoek (% 12).

Ekimen bakoitza garatu daitekeen testuinguruari dagokionez, identifikatutako ekimenen % 68,8ren kasuan, tokiko arloan eta arlo komunitarioan garatzen dira. Halaber, ekimenen % 43,8 elkarrean testuinguruan garatzen da. % 40,6k esan du hiri arloan garatzen direla ekimenak, % 37,5ek eskola-testuinguruan garatzen du ekimenaren zatiren bat gutxienez eta % 25ek landa-eremuan.

8. grafikoa. Ekimenen banaketa parte-hartzea sustatzeko arloaren arabera **9. grafikoa.** Testuinguru bakoitzean garatzen diren ekimenak


■ Banakako esku-hartzea
■ Jarduerak
■ Zerbitzuak
■ Politika publikoak




Ekimen parte-hartzaileen % 50 erakundearen aurretiazko ekimenetatik abiatzen dira. Bestalde, ekimenen % 6 hezkuntza arloarekin lotuta daude eta % 56 ez.

10. grafikoa. Aurreko esperientzia batetik abiatzen da **11. grafikoa.** Hezkuntza arloarekin lotuta

■ Bai
■ Ez
■ ED/EDE




■ Bai
■ Ez
■ ED/EDE



Ekimenen iraupenari dagokionez, % 81 egonkorak dira, % 10 puntualak eta % 6 aldi baterako ekimenak.

12. grafikoa. Ekimenaren denboralitatea




Azkenik, ekimen parte-hartzaileen barruan dibertsitateari eta desberdintasunei ematen zaien arretari dagokionez, ekimenen % 94an kontuan hartzen dira alderdi horiek eta lan-ildoak txertatzen dira. Halaber, % 72k genero-ikuspegia txertatzen du haur eta nerabeek parte hartzeko ekimenen barruan.


13. grafikoa. Dibertsitatearekiko eta desberdintasunekiko arreta.

14. grafikoa. Genero-ikuspegiarekiko arreta

■ Bai
■ ED/EDE



■ Bai
■ Ez
■ ED/EDE



4.2 Ekimenak identifikatzea

1. taula. Erakunde eta ekimenen identifikazioaren laburpena

Zk.	Erakundea	Ekimena
1	IRSE Araba	Odola ematea sustatzea
2	Hirukide	Hirugazte boluntariotza
3	Harribide Fundazioa	Gazte foroak
4	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba	Gazteen Txokoa
5	MARGOTU, bazterkeria sozialaren aurkako elkarte	Bilboko balkoi ezezaguna
6	Euskalerriko Eskautak Araba	Euskalerriko Eskautak Araba
7	Oldarra Aisialdi Elkarte	Antzerki musikala
8	UNICEF -Euskadiko Batzordea	Aurrerapausoak Euskadiko haur eta nerabeen parte-hartzean
9	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba	Neurri aktiboak
10	Elkarbanatuz elkarte	Elkarbanatuz elkarte
11	Euskalerriko Eskautak Bizkaia	Euskalerriko Eskautak Bizkaia
12	Bosko Anitz Aisialdi Taldea	Aisialdi-taldea larunbat arratsaldetan

13	Alabaitza Aisialdi Elkartea	Alabaitza Aisialdi Elkartea
14	Mundu Bakean	Genero-berdintasunari eta migrazioari buruzko tailerrak
15	Portugaleteko Aisialdi Sarea	Portugaleteko Aisialdi Sarea
16	Aisibizia elkartea	Aisibizia elkartea
17	Aurrerantz	Aurrerantz
18	Indautxuko eskautak	Indautxuko eskautak
19	Caritas Bizkaia	Namastè- gazteen parte-hartzerako taldea
20	Los Ángeles Eskaut Taldea	Los Ángeles Eskaut Taldea
21	Argizai Eskaut Taldea	Argizai Eskaut Taldea
22	Ainara Aisi Taldea	Ainara Aisi Taldea
23	Ausartzen	Ausartzen
24	Gozaldi Gazte Elkartea	Gozaldi
25	Harribide Fundazioa	Harribide Fundazioa
26	Belatzak Eskaut Taldea	Belatzak Eskaut Taldea
27	Jóvenes 88 gazteak	Jóvenes 88 Gazteak
28	San Viator eskaut taldea kultur elkartea	San Viator eskaut taldea kultur elkartea
29	Hirukide	Hirugazte
30	Save The Children Fundazioa	Alkategaiak
31	Umeak Klean	Umeak Klean
32	Kiribil Sarea	Harrobia eta etorkizuna eraikiz

Iturria: geuk egina (2024)

Jarraian, galdetegiaren bidez identifikatutako ekimen bakoitzaren **fitxak**¹¹ aurkeztuko ditugu:

1	
Ekimenaren izena	ODOLA EMATEA SUSTATZEA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	IRSE Araba
Lurralde historikoa	Araba
Erakundearen jardueraren esparrua	Gizarte-zerbitzuak
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Baliabidean parte hartzen duten haur eta gazteengan oinarritutako gizarte eta hezkuntza arloko proiektuak.
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	- Arabako Odol Emaileen Elkartea - Gasteizko Kaleko Hezkuntza Programa (Landatxo, Hegoalde-Ariznabarra eta Zabalgana) - Huetos Lan Aurreko Gizarte- eta Hezkuntza-zentroa
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Politika publikoak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Tokikoa - Komunitarioa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboraliteta	Ekimen egonkorra (duela hamar urte baino gehiagotik)
Aurretiazko prozesu baten parte	Ez
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Odola ematea sustatzea
Haur eta nerabeen profilak	Egoera zaurgarri berezian dauden haur eta nerabeak eta babesgabetasun-egoera neurritsuan dauden 15 eta 18 urte arteko gazteak.

¹¹ 3. atalean (helburuak, metodologia eta lan-prozesua) azaltzen den moduan, edukia eta zehaztasun maila desberdina da galdetegiaren bidez lortutako informazioaren arabera.

Dibertsitatearekiko arreta	Kontuan hartzen dira bai genero-ikuspegia eta kulturartekoa, bai behar indibidualak nahiz taldekakoak (adin-tartea, familiako beharrak, prestakuntzakoak...).
Helburuak	- Odola ematea sustatzea, ez fabrikatzen, ez saltzen ez den ondasun komuna baita - Komunitatean inplikatzeko eta parte hartzeko konpetentzietan entrenatzea
Parte-hartze mota	Parte-hartzailea eta kontraprestazio batekin lotua (jarduerarako sarbidea, hezkuntzako curriculum, oparia...).
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean, esku-hartze sozialaren prozesuan - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	- Hilabete bakoitzean egin beharreko kanpainen planifikazioa eta banaketa - Egin beharreko kanpaina bakoitzarentzat zereginak eta funtzionamendu-taldeak banatzea - Tutoretzak
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	- Jardueren plangintzan eta denboraren antolaketan - Autonomia-gaitasunak garatzea - Oinarrizko gaitasun sozialak, agurrak, aurkezpenak eta abar garatzea - Hiriko garraio publikoaren sareak, bidegorriak eta oinezko ibilbideak ezagutzea
Esperientziaren irismena	Odola ematea sustatzea beharrezkoa da hiriko hainbat auzotan, eta odola emateko behar puntualen ondorioz ekintzak areagotzen diren aldiak gehitu behar zaizkio horri (adibidez, odola emateko maratoiak). - Ekimena irratzi-programa batean agertu zen 2021ean - Transplanteen Espainiako Elkartearen kongresu nazionalaren poster batean 2016an. 100 gazte baino gehiagok hartu dute parte - Ezin izan da beste lurralde batzuetan esperientzia kopiatu
Prozesuaren zailtasunak	Urteko hilabete batzuk zailak dira egiten diren kanpainen bolumenarengatik.
Beste ezaugarri gako batzuk	Parte-hartzaileen talde bakoitzaren inplikazio aktiboa, bakoitzak bere antolaketa, jardura planteatzeko bere modua eta abar izanik, baina odol-emaleen kanpaina bakoitzari arreta emanda.

2

Ekimenaren izena	HIRUGAZTEKO BOLUNTARIOAK
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Hirukide
Lurralde historikoa	Lurralde historiko batean baino gehiagoan
Erakundearen jarduketa arloa	Beste batzuk
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Hirugazte
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	- Hezkuntza - Administrazio publikoa
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Jarduerak - Zerbitzuak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Tokikoa - Komunitarioa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboraliteta	Aldi baterakoa (urtekoa)
Aurretiazko prozesu baten parte	Ez
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	

Deskribapena	Bi boluntariotza-lerro dira. Lehenengoak ingurumenaren arloan sustatu eta indartzen du boluntariotza eta bigarrenak belaunaldien arteko loturak sortzen ditu, hainbat onura sortuz, bai adinekoentzat, bai parte hartzen duten adin-taldeentzat.
Haur eta nerabeen profilak	EAEko 15 eta 25 urte arteko haur eta nerabeak.
Dibertsitatearekiko arreta	Proiektu honetako jarduerak eta rolak disienatuta daude parte-hartzaile guztien dibertsifikazioa eta parte-hartzea sustatzeko eta pertsonen hainbat arlotan parte hartzeko aukera izatea bermatzen da, haien interesen eta gaitasunen arabera. Ez da generoaren araberako mugarik ezartzen. Genero-berdintasunarekiko eta inklusioarekiko konpromiso horrek berdintasun-printzipioekiko konpromisoa eta dibertsitatearekiko errespetua islatzen du, eta pertsona guztiak baloratuak eta proiektuan parte hartzeko ahaldunduak sentitzeko ingurunea sortzen du. Esku hartzen duten pertsona guztiek aukera izango dute modu aktiboan parte hartzeko, desberdintasun indibidualak izan arren. Hala, irisgarritasuna sustatuko dute, komunikazio inklusiboa erabiliko dute eta pertsona guztien parte-hartzea sustatuko dute prozesuan.
Helburuak	HELBURU OROKORRAK - Kontzientzia soziala eta erantzukizun zibikoa sustatzea - Ekintza solidarioak bultzatzea - Isolamendu soziala prebenitzea - Garapen pertsonala sustatzea - Esperientzia aberasgarriak sortzea HELBURU ZEHATZAK - Adineko pertsonen laguntzea eta entzutea - Belaunaldien arteko harremanak indartzea - Ezagutzen eta gaitasunen trukea estimulatzea belaunaldien artean - Ongizate emozionalari ekarpena egitea eta bakardadea arintzea - Idatzizko komunikazioari balioa ematea - Ekosistema naturalaren biodibertsitatea berreskuratzea eta babestea - Ingurumenaren gaineko kontzientzia handitzea eta praktika jasagarriak sustatzea - Hondakinak murriztea eta kudeaketa arduratsua sustatzea - Narriatutako ekosistemak berreskuratzea - Taldeko lana sustatzea eta, aldi berean, ingurumena zaintzeak duen garrantziaren gainean ekarpena egitea - Balio eta jarrera solidarioak sustatzea - Boluntariotza sustatzea - Beste erakunde batzuekin sinergiak sortzea - Konpromiso zibikoa indartzea - Gizarteak konpromisoa hartzea boluntariotzarekin eta dituen balioekin (elkartasuna, justizia, ulermena, konpromisoa eta errespetua)
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	- Batzarrak - Galdetegiak
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Haur eta nerabeek modu aktiboan hartzen dute parte Hirugazte proiektuarentzat espezifiko sortutako batzar batean eta ideiak eta ezinegonak partekatzeaz gain, jardueren plangintzan parte hartzen dute.
Esperientziaren irismena	Proiektu hori boluntario aritzeko gogo eta jakin-mina duten EAEko 291.547gazteri (16-30 urte) zuzenduta dago.
Prozesuaren zailtasunak	EAEko hiru lurralde historikotan presente dagoenez, batzuetan zaila da ekitaldiak eta jarduerak antolatzea, haur eta nerabeek muga geografikoak edo fisikoak dituztelako.
Beste ezaugarri gako batzuk	

3	
Ekimenaren izena	GAZTE FOROAK
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Harribide Fundazioa
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketa arloa	Hezkuntza edo soziohezitzailea, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Nerabezaroa eta gazteria
Ekimenaren formatua	Egitaraua
Inplikaturako eragileak	
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak - Politika publikoak
Garatzen den testuingurua	- Tokikoa - Komunitarioa - Eskolakoa
Ekimenaren denboraliteta	Aldi baterakoa (urtekoa)
Aurretiazko prozesu baten parte	Erakundearen haurrentzat (5 urtetik gorako haurrak) egiten diren gainerako programen parte.
EKIMENAREN DESKRIAPENA	
Deskribapena	Programaren helburua da aldizkako topaketak sortzea Etxebarriko, Getxoko eta Ibarrekolanda auzoko (Bilbo) 12 eta 30 urte bitarteko nerabe eta gazteentzat. Foro horien bitartez leku horietako nerabeen eta gazteen errealitatea ezagutuko da, zer zailtasunak dituzten eragiten dieten gaiekiko, eta horietan guztietan sakonduko da parte-hartzea sustatzeko, udalerrian eta probintzian dituzten zailtasunak ezagutzeko, egiten dituzten proposamenak entzuteko, beste leku batzuetako esperientziak ezagutzeko, udalerrietarako errealitatera egokitzeak, eta abar. Hainbat dinamiken bidez eta hezitzaileen lanarekin eta laguntzarekin, nerabeekin eta gazteekin lan egingo da bost astez behingo bileretan eta haiek izango dira protagonistak lehen unetik. Entzun egingo zaie, egiten dituzten ekarpenak jasoko dira eta soluzioak eta mekanismoak bilatuko ditugu elkarrekin gai hauen gainean hautematen diren beharrentzat: berdintasuna, prestakuntza eta enplegarritasuna, kultura, osasuna, ingurumena, aisialdia eta denbora libre, etxebizitza...
Haur eta nerabeen profilak	Etxebarriko, getxoko eta Ibarrekolanda auzoko (Bilbo) 12 eta 30 urte bitarteko nerabeak eta gazteak.
Dibertsitatearekiko arreta	Genero-ikuspegia zeharkako lan-lerroa da eta programa osoa hartzen du barne. Hortaz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ezarritako printzipioak jarraitzen ditu: aukera-berdintasuna, dibertsitatearekiko eta desberdintasunekiko errespetua, genero-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren arabera rola eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua, lankidetzaren eta koordinazioaren eta parekidetasun-printzipioak.
Helburuak	- Nerabeen eta gazteen parte-hartzea eta autonomia sustatzea - Nerabeen eta gazteen ahotso ematea - Nerabeen eta gazteen beraiei eragiten dieten gaietan (aisialdia eta denbora libre, kultura, kirola, enplegua, prestakuntza, emantzipazioa...) bizi duten errealitatea haien ahotik ezagutzea eta beharrei erantzutea. - Nerabeen eta gazteak komunitateen, auzoen eta herrien parte aktibo izatea edo izaten jarraitzea. - Sinergiak eta erlazioen bidez bideak sustatzea, nerabeen eta gazteen eta udal-baliabideen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzeko. - Nerabe eta gazteentzako jardueren programa bat sortzea, leku bakoitzeko errealitatera eta hango nerabe eta gazteetara egokituta.

	- Barakaldoko Adierazpenean eta aisialdi hezitzailea sustatzeko 2030 Euskal Estrategian planteatutako erronkei erantzungo dien eta helburu horiek beteko dituen programa sortzea. - Bizimodu osasungarria sustatzea nerabeen eta gazteen artean - Pertsonen arteko tratu-berdintasuna lantzea, inor diskriminatu gabe bere jatorriagatik, sexu-orientazioagatik... - Beste hiri eta/edo udalerri batzuetan haur eta nerabeekin egiten diren esperientziak ezagutzea
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan
Parte hartzeko mekanismoak	Topaketak egiten dira nerabe eta gazteekin. Hainbat adin-taldetan banatzen dira eta bi hezitzailearen laguntzarekin eta hainbat dinamikaren bitartez, inguruko errealitatea aztertzen dute, gertutik bizi dituzten gaietan jarri arreta: aisialdia eta denbora libre, etxebizitza, enplegarritasuna, kirola, kultura, osasuna, berdintasuna... Ordutik aurrera, nerabeek eta gazteek gai horiekin lotuta dituzten beharrak eta zailtasunak hautemango dira eta bakoitzari erantzuten ahaleginduko da. Behar eta zailtasun horiek dagokion baliabideari, instituzioari edo erakundeari helaraziko zaizkio, erantzunak emateko. Gainera, arduradunari foroan topaketaren batera joateko gonbidapena egingo zaio, nerabeen eta gazteen iritzia haien ahotik entzuteko eta gazteen eta erakundearen artean soluzio bat lortzeko. Azterketa-bisita(k): programaren zati honetan azterketa-bisita(k) egingo dira hainbat udalerri, hiri edo elkartetan, besteak beste, prestakuntzaren, enplegarritasunaren, etxebizitzaren, gazteen emantzipazioaren eta aisialdi librearen gainean dauden esperientziak ezagutzeko. Bisitatze lekuak foroetan erabakiko dira. Existitzen diren esperientzien proposamenak eramango dira bertara. Bisitetan parte hartuko duten pertsonen kopurua topaketetan bertan erabakiko da. Bisitak egin eta gero, foroko gainerako pertsonekin partekatuko dira ezagututako esperientziak eta udalerri edo auzo bakoitzean garatzeko interesaren, aukeren eta bideragarritasunaren gainean gogoeta egingo da. Ekintza zehatzak. Programaren hirugarren zatia asmoa da programaren ("Gazteen garaia") topaketen eta azterketa-bisiten bitartez gauzatzea erabaki diren ekintzekin hastea. Betiere bideragarritasuna eta gazteengan izango duten inpaktua aintzat hartuz Ebaluazioa: Garrantzitsua da beti une bat hartzea zer egiten ari den eta nola aztertzeko eta ezarritako helburuak betetzen ari diren ikusteko. Horregatik, ebaluazioa jarraitua izango da programaren zati bakoitzean.
Parte-hartzea sustatzeko kompetentziak garatzea	Topaketak egiten dira nerabe eta gazteekin. Hainbat adin-taldetan banatzen dira eta bi hezitzailearen laguntzarekin eta hainbat dinamikaren bitartez, inguruko errealitatea aztertzen dute, gertutik bizi dituzten gaietan jarri arreta: aisialdia eta denbora libre, etxebizitza, enplegarritasuna, kirola, kultura, osasuna, berdintasuna... Ordutik aurrera, nerabeek eta gazteek gai horiekin lotuta dituzten beharrak eta zailtasunak hautemango dira eta bakoitzari erantzuten ahaleginduko da. Behar eta zailtasun horiek dagokion baliabideari, instituzioari edo erakundeari helaraziko zaizkio, erantzun bat emateko. Gainera, arduradunari foroan topaketaren batera joateko gonbidapena egingo zaio, nerabeen eta gazteen iritzia haien ahotik entzuteko eta gazteen eta erakundearen artean soluzio bat lortzeko.
Esperientziaren irismena	Programan zehar eta amaitu ondoren, foroetako parte-hartzaileen taldea ahalginduko da egindako lanarekin jarraitzeko, sortutako ekimenak mantendu egingo dira eta nerabeen eta gazteen hezitzaileek jarraipena egingo dute, ekimen bakoitzean lagunduz. Programaren helburua da ingurunearekin (komunitatea, auzoa, herria) inplikatuago dauden nerabeak eta gazteak lortzea. Hori lagungarria izango da leku horien hainbat alderdi eta arlo hobetzeko: herritarren parte-hartzea, kultura, aisialdiko alternatibak, etxebizitza...
Prozesuaren zailtasunak	
Beste ezaugarri gako batzuk	- Programan zehar: foroan saio bakoitza sare sozialetan zabaltzea - Programaren erdialdean: saio irekia herritarrekin lortutako emaitzen berri izateko

	Programaren amaieran: saio irekia urtean zehar egindakoa eta lortutako helburuak ezagutarazteko
--	---

4	
Ekimenaren izena	GAZTEEN TXOKOA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba
Lurralde historikoa	Lurralde historiko batean baino gehiagoan
Erakundearen jarduketa arloa	Gizarte-zerbitzuak
Lantaldearen konposizioa	Soldatapekoa
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Familia-harrera babesteko programa
Ekimenaren formatua	Egitaraia
Inplikaturako eragileak	- Administrazio publikoa - Bizkaiko Foru Aldundia
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak - Zerbitzuak - Politika publikoak
Garatzen den testuingurua	Bizkaiko Foru Aldundiak duen familia-harrera babesteko programaren barruko taldeko programa
Ekimenaren denboraliteta	Ekimen egonkorra 2020tik
Aurretzako prozesu baten parte	Pandemian, harreraren hartutako nerabeak elkartzeko leku bat izateko beharra hauteman zen, babes-sare gisa eta parte hartzeko espazio gisa funtziona dezan, bakardade-egoerei aurre egiteko.
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	
Haur eta nerabeen profilak	Harrera-familiatan dauden 14-18 urteko nerabeak
Dibertsitatearekiko arreta	Harrera-familiatan daude guztiak, baina dibertsitatearen eta desberdintasunaren faktore hauek hartzen dira kontuan: generoa, jatorria, autonomia maila, maila sozioekonomikoa, babesgabetasunaren historia, bizikidetza familia-errealitate desberdinetan, sexualitatea...
Helburuak	- Harrera-familiatako nerabeen parte-hartzea eta topaketa sustatzea - Harrera-prozesuan lagungarriak izan daitezkeen esperientziak partekatzeko espazioak sortzea - Jarduera berriak sustatzea eta bultzatzea - Taldearen iritziak kontuan hartzea - Harreraren hartutako pertsonen identitatea lantzea
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan
Parte hartzeko mekanismoak	- Talde-batzarrak - Saio indibidualak erreferentziako figura teknikoarekin
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Jardueren plangintza (erlazionatzeko, taldean egoteko, kohesiorako espazio propioa sortzea) gaitasunak garatzea, autobabesa, trebakuntza, autogestioa, ahalduntzea arazoei aurre egiteko, iritzia emateko eta parte hartzeko, transmisioa eta taldeko lidergoa taldera batzen diren kide berrientzat, eta haur eta nerabe adingabeentzako erreferentzia gain hartzea.
Esperientziaren irismena	Inpaktua maila indibidualean, familian (harrera-familian zein biologikoan) eta Bizkaian harreraren dauden nerabeen komunitatean. Emaitzak: kohesioa, laguntza, babesa, balioen transmisioa sustatzea eta parte-hartzea. Urteko egonkortasuna. Parte-hartzaileak: 10 Kopiagarritasuna: beste probintzia batzuetan edo beste familia-errealitate batzuetan.
Prozesuaren zailtasunak	Parte hartzeko adinak erabakitzea.

Beste ezaugarri gako batzuk

Espazioak eta taldeko dinamikak haur eta nerabeekin batera diseinatzea.

Espazio parte-hartzailea, ludikoa eta prestakuntzakoak elkarrekin sortzea.

Politika sozialetan inpaktua sortu ahal izatea etorkizunean, tutoretzapean egon diren eta harrera-familietan bizi izan diren adingabeei dagokienez.

5

Ekimenaren izena

BILBOKO BALKOI EZEZAGUNA

EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA

EHSSko erakundea	MARGOTU, bazterkeria sozialaren aurkako elkarte
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketa arloa	Hezkuntza edo soziohezitzailea, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Erakundearen esku hartzeko arlo guztietan garatuko da. Prestakuntza arautu eta oinarritzotik hasi eta ikasleen aisialdiarekin eta denbora librearekin lotutako hezkuntza ez formaleko espazioetara.
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	- Margotuko profesionalak - Ikasleak eta ikasle ohiak - Masustegiko bizilagunen elkarte - Bilboko Udala
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak - Zerbitzuak
Garatzen den testuingurua	- Tokikoa - Komunitarioa - Eskolakoa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra 2023ko irailetik
Aurretiazko prozesu baten parte	Margotuk urtetan Masustegiko bizilagunekin izan dituen harremanen ondorioz.

EKIMENAREN DESKRIBAPENA

Deskribapena	Herritarren eta belaunaldi arteko pertsonen esperientzia parte-hartzailea. Margotuk zubi-lanak egin zituen ikasleen, Masustegi auzoko bizilagunen eta administrazio publikoaren artean. Masustegi ezagutaraztea da asmoa, eremu horretako bizilagunekin elkarriketak izanez, gero amaierako produktu bat, bideoklip bat, egiteko zentroko ikasle ohi batekin eta Masustegi auzoko abeslari batekin. Helburua da Masustegi auzo ezezagunaren garrantzia nabarmentzea eta dituen aberastasunei buruz hitz egitea, eta, aldi berean, espazio horretaz gozatzen dugun pertsona guztion arteko loturak indartzea.
Haur eta nerabeen profilak	Margotuko ikasleak eta ikasle ohiak (15 eta 18 urte bitarteko nerabeak)
Dibertsitatearekiko arreta	Ikasle bakoitzaren idiosinkrasia hartzen da kontuan beti edozein proiektu egiteko garaian (zailtasunak hizkuntzarekin, autonomia maila, etab.). Margotun askotariko ikasleak daude. Helburua uneoro izan da auzoak aberastasun eta indargunetzat hartzea hori. Horretarako, guztiak elkartu ahal izateko uneak bilatu dira, ezagutzeko eta dibertsitatean dagoen aberastasuna ulertzeko.
Helburuak	- Masustegi auzoaren eta Margoturen artean lotura eta harreman ona ezartzea - Bilboko espazio zoragarri eta ezezagunen berri ematea hiriko beste bizilagunei
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Bai
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	- Batzarrak - Talde txiki eta handietan lan egitea

Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Ikasleen ahalduntzea sustatu da, taldeko lanaren, egindako elkarriketen eta jardueren plangintzan eta kudeaketan autonomia sustatzearen eta gaitasunak garatzearen bitartez (besteak beste, abestia sortzea, bideoklipen parte hartzea, gizarte-etxean egindako amaierako ekitaldian parte hartzea, etab.).
Esperientziaren irismena	Ekimena arrakastatsua izan da eta irakasleek, hezkuntza-taldeak, ikasleek, ikasle ohiek eta bizilagunen elkarteak asko gozatu dute prozesuaz, amaierako produktuaz (abestia eta bideoklipa egitea) eta Basurtuko gizarte-etxeko amaierako ekitaldiaz.
Prozesuaren zailtasunak	
Beste ezaugarri gako batzuk	

6	
Ekimenaren izena	EUSKALERRIKO ESKAUTAK ARABA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Euskalerriko Eskautak Araba
Lurralde historikoa	Araba
Erakundearen jarduketaren arloa	Hezkuntza edo soziohehitzaila, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Denak
Ekimenaren formatua	Prozesua
Inplikaturako eragileak	- Administrazio publikoa: Gazteriaren Foru Erakundea - Eusko Jaurlaritza (Ingurumena) - Sektoreko beste erakunde batzuk: Arduradun Eskola - Euskalerriko Eskautak - MSC, Astialdi Sarea - beste erakunde batzuk: erakundeak, elkarteak, ikastetxeak...
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak - Politika publikoak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Landa eremua - Komunitarioa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra 1996tik
Aurretiazko prozesu baten parte	Historikoki, ekimen parte-hartzailea izan da beti eskautismoa.
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	
Haur eta nerabeen profilak	Prozesu osoak 6 eta 18 urte bitartekoak hartzen ditu barne.
Dibertsitatearekiko arreta	Maila guztiak hartzen dira kontuan (generoa, dibertsitatea, autonomia maila, maila sozioekonomikoa...), baina, praktikan, arreta eta/edo energia handiagoa jartzen zaie eragin zuzena dutenei (generoa eta autonomiaren maila) Urtez urte, generoa, intersektorialitatea eta euskal kultura zeharkako ardatzak izan dira gure helburuetan.
Helburuak	Eskautismoaren oinarri ideologikoa parte-hartzea da. Hortaz, aisialdi hehitzaila eta Eskaut Mugimendua ezin dira ulertu parte-hartzerik eta beste talde eta erakunde batzuetatik elikatzerik gabe... “Mundua aldatzearen” logika besteekin batera ulertzen da beti. Gure ideologiarekin bat datozen erakundeak, elkarteak eta gizarte-mugimenduak.
Parte-hartze mota	Autogestionatua eta boluntarioa.
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez.
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundearen edo instituzioaren - Modu kolektiboan baita ere, epe ertain-luzeko politika publikoak diseinatzeko eta ebaluatzeko garaian, orientazioa barne
	Batzarrak

Parte hartzeko mekanismoak	- Bilerak hilero antolakuntza-espazioekin (diruzaintza-mahaia kudeaketa ekonomikorako) - Batzorde Nagusia (taldeko arduradunak elkartzeko espazioa) - Jardueren batzordeak
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Parte hartzen duten zentroaren antolakuntzan, jardueren plangintzan, jardueren kudeaketa ekonomikoan, prestakuntzan eta gaikuntzan, gaitasunen garapenean, autobabesean...
Esperientziaren irismena	Egun 500 pertsona inguru Araban, parte-hartze aktiboarekin komunitatean eta gure egonkortasuna berresten duen ibilbidearekin.
Prozesuaren zailtasunak	Ziurgabetasuna finantzaketarekin. Kontratututako langileen eta boluntarioen denbora falta. Begiraleen ziklo geroz eta laburragoak. Jarduerak garatzeko espazioen falta (etxeak eta zelaia).
Beste ezaugarri gako batzuk	

7

Ekimenaren izena	ANTZERKI MUSIKALA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Oldarra Aisialdi Elkartea
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketako arloa	Hezkuntza edo soziohegitzaila, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Aisialdi hezitzailea, artea, kultura...
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	- Komunitatea - Inguruko eskolak - Auzoa
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Jarduerak - Zerbitzuak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Komunitarioa - Eskolakoa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra 2000tik
Aurretiazko prozesu baten parte	Ez
EKIMENAREN DESKRIAPENA	
Deskribapena	Aisialdiko elkarte baten antzerki musikalean parte-hartzea aukera berdingabe eta aberasgarria da haur, nerabe eta gazteentzat. Jarraian deskribatuko dugu esperientzia hori nolakoa izan daitekeen: Parte-hartze aktiboa: parte-hartzaileak giro sortzaile eta dinamikoan murgiltzen dira eta haien gaitasun artistikoak aztertze eta garatzeko aukera dute. Lehen egunetik sentitzen dira talde kohesionatuaren parte eta motibatuta sentitzen dira antzerkiaren proiektuarekin. Prestakuntza eta entseguak: esperientziaren hasieran errepertorioa aukeratzen da, rolak esleitu eta zereginak banatu. Entseguetan, parte-hartzaileek lan handia egiten dute antzerkiko profesionalen zuzendaritzapean; aktoreen teknikak, kantua eta dantza ikasten dituzte eta eszenografia eta jantziak garatzen dituzte. Taldeko lana: antzerki musikalak taldeko lana eta lankidetzat sustatzen ditu. Parte-hartzaileek kideengan konfiantza izaten, modu eraginkorrean komunikatzen eta arazoak elkarrekin konpontzen ikasten dute. Antzezle-taldeko eta talde teknikoko kide bakoitzak rol garrantzitsua du ikuskizunak arrakasta izateko. Garapen pertsonala: prozesuan zehar, parte-hartzaileek hazkunde pertsonal handia izaten dute. Erronkak gainditzen dituzte, beldurrei aurre egiten diete, konfiantza lortzen dute euren buruengan eta gaitasunengan eta pasio eta talentu berriak deskubritzen dituzte. Antzerki musikalak plataforma bat ematen die modu librean espresatzeko eta eszenatokiaren benetakoak izateko.

	Aurkezpena: esperientziaren amaieran ikuskizuna publiko aurrean aurkeztuko da. Parte-hartzaileek emozioaren eta urduritasunaren arteko nahasketa sentitzen dute egindako lana lagunekin, senideekin eta oro har komunitatearekin partekatzean. Publikoaren txaloak sari hunkigarriak dira eta haien autoestimua eta lorpen-sentsazioa indartzen dute. Oroitzapen iraunkorrak: antzerki musikal batean parte hartzearen esperientziak oroitzapen iraunkor eta garrantzitsuak uzten ditu. Lagun handiak, ikasbideak eta zerbait bereziaren eta garrantzitsuaren parte izatearen asebetetze-sentsazioa ateratzen dituzte hortik parte-hartzaileek. Esperientziak antzerkian aritzeko gaitasunak emateaz gain, hainbat balio ematen dizkie, hala nola taldean lan egitea, diziiplina eta jarraikortasuna.	
Haur eta nerabeen profilak	Parte hartu nahi duten hiriko haur eta nerabe guztiak; izan ere, antzerki musikalean edonork har dezake parte, atal asko eskaintzen baitira.	
Dibertsitatearekiko arreta	Generoa: estereotipoekin amaitzea eta aukera-berdintasuna sustatzea. Jatorri etniko eta kulturala: dibertsitate kulturala baloratzea eta kulturaren garrantzia bermatzea jardueretan. Autonomia: jarduerak egokitzea hainbat autonomia maila lortzeko. Maila sozioekonomikoa: sarbide parekidea eta laguntza finantzarioa ematea. Gaitasun bereziak: irisgarritasuna eta jardueretara egokitzeko gaitasuna bermatzea. Beste faktore batzuk: sexu-orientazioa, erlijioa, hizkuntza eta familiako egoerak kontuan hartzea. Sentsibilizazioa eta prestakuntza: genero-gaiei eta intersektionalitateari buruzko trebakuntza eta sentsibilizazioa emango zaie bideratzaileei, liderrei eta proiektuan parte hartzen duten langileei. Horrek aukera ematen die genero-dinamikak eta haur eta nerabeen parte-hartzean eragina izan dezaketen beste faktore batzuk ulertzeko, bai eta behar eta erronka espezifikoak modu egokian jorratzeko ere. Hainbat ikuspegi txertatzea: proiektuaren alderdi guztietan ordezkaritza parekidea eta askotarikoa izatea bermatzen du, antzerki-obra aukeratzeko, rolak eta erantzukizunak banatzeko eta jarduerak planifikatzeko garaian barne. Horrek parte-hartzaileen askotariko genero-esperientziak, esperientzia kulturalak eta sozialak islatzen dituzten istorioak eta pertsonaia gehitzea dakar. Espazio seguruak eta diskriminaziorik gabeak: giro inklusiboa eta errespetuzkoa sortzen da eta haur eta nerabe guztiak seguru sentitzen dira modu librean adierazteko, haien generoaren, genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, etniaren edo identitatearen beste alderdi batzuen ondorioz diskriminatuak edo jazarriak izateko beldurrik gabe. Sarbide parekidea izatea baliabideetara eta aukeretara: haur eta nerabe guztiek baliabideetarako sarbide parekidea, aukera-berdintasuna eta proiektuan parte hartzeko laguntza izan dezaten bermatzen da, haien generoa, jatorri etnikoa, egoera sozioekonomikoa edo beste ezaugarri batzuk edozein izanik ere. Errepertorio inklusiboa aukeratzea: generoaren, etniaren, kulturaren eta gaitasunen dibertsitatea islatzen duten obrak aukeratzen dira eta aukerak eskaintzen dira parte-hartzaile guztiak ordezkatuak senti daitezen. Rolen eta gidoien egokitzapena: obretako rolak eta gidoiak egokitu egiten dira hainbat gaitasun, interes eta esperientzia maila duten pertsonen parte hartzeko. Irisgarritasun fisikoa: entseatzeko espazioa eta jarduketak desgaitasuna duten pertsona guztientzako irisgarriak izatea bermatzen da, parte-hartzaile guztien inklusioa ziurtatzeko. Taldearen formazioa: trebakuntza eskaintzen zaio lantaldeari parte-hartzaile bakoitzaren behar espezifikoak jorratzeko eta errespetuan eta onespenean oinarritutako giroa sustatzen da. Laguntza emozionala: laguntza emozional eta psikologikoa ematen zaie behar duten parte-hartzaileei eta desberdintasun indibidualak aitortu eta ingurune seguru eta atsegina sustatzen da. Dibertsitatea ospatzea: dibertsitatea ospatzen da artearen eta sormenaren bitartez, elkarrenganako errespetua sustatuz eta desberdintasunak baloratuz, sorkuntza-prozesuaren zati integral gisa.	
	HELBURU OROKORRA Haur, nerabe eta gazteen parte-hartze aktiboa eta integrala sustatzea, antzerki musikal batean inplikaturik aisialdiko elkarte baten barruan, modu artistikoan adierazteko eta gaitasun sortzaileak eta sozialak indartzeko aukera emanez.	

Helburuak	HELBURU ZEHATZAK - Espazio inklusibo eta segurua eskaintzea, parte-hartzaileek arte eszenikoetan, eta bereziki antzerki musikalean, dituzten talentuak aztertze eta garatzeko. - Haur, nerabe eta gazteen sorkuntza eta adierazpen artistikoa estimulatzea jarduketarekin, kantuarekin eta dantzarekin lotutako jardueren bitartez. - Taldeko lana eta lankidetzaren sustatzea parte-hartzaileen artean, bai eta elkarrenganako errespetua eta tolerantzia ere, antzezlan bat prestatuz eta aurkeztuz. - Ikaskuntza esanguratsua sustatzea eta garapen sozioemotionalak garatzea antzerkiaren bidez, hala nola autokonfiantza, enpatia eta komunikazio eraginkorra. - Esperientzia aberasgarri eta gogoangarria eskaintzea, parte-hartzaileen hazkunde pertsonalean eta ongizate emozionalean eragiteko, eta jabetza- edo lorpen-sentimendua sortzea. - Haur, nerabe eta gazteen garapen integralean arteak eta kulturak duten garrantziaren gainean sentsibilizatzeko komunitatea eta halako ekimenen balorazioa eta babesa sustatzea. - Antzerki musikalean parte hartzeko prozesua etengabe ebaluatzea, indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatuz esperientzia asebetegarri eta aberasgarria lortzeko parte-hartzaile guztientzat.
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundearen edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	- Proiektuaren hasieratik ideiak sustatzeko antolakuntza-batzarrak egitea. - Parte-hartzaileen datuak eta helburuak jasotzen dituzten galdetegi indibidualak - Bilerak talde txikietan eta atalka, taldeak eratzen joateko musikalaren atalak prestatzeko (koreografia, eszena, dekoratuak, jantziak...) - Bilera pertsonalak hartzaileen konpetentziak hobetzen eta areagotzen laguntzeko - Amaierako berrikuspenak bileren eta galdetegien bitartez
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Antzerki musikalean parte hartzeko ekimenaren helburua da haur eta nerabeek hainbat alderditan parte har dezaten sustatzeko konpetentziak eskuratzea eta ahaldundzea. Jarraian zehaztuko dira esperientzia horrek nola sustatzen dituen ahaldundzea eta konpetentzien garapena: Autonomia eta erabakiak hartzea: parte-hartzaileek aukera dute jardueren plangintzan ekarpena egiteko, batez ere, entseguak antolatzearen garaian eta eszena prestatzearen garaian. Horrek aukera ematen die erabakiak hartzeko eta antzerkiaren proiektuaren barruan erantzukizunak euren gain hartzeko. Kudeaketa ekonomikoa: elkartearen egituraren arabera, haur eta nerabeek jardueren kudeaketa ekonomikoa har dezakete parte, aurrekontuen, funtsak lortzeko moduen eta baliabide finantzarioak kudeatzearen gainean ikasiz. Prestakuntza eta trebakuntza: antzerkiaren esperientziak prestakuntza integrala eskaintzen du gaitasun artistikoetan, besteak beste, kantuan eta dantzan, baina hainbat alderdi teknikoren gaineko prestakuntza ere lor daiteke, adibidez, argiteriaren, soinuaren eta eszenografiaren gainekoa. Prestakuntza horrek gaitasun espezifikoa garatzen laguntzen du eta hazkuntza pertsonala sustatu. Gaitasun sozialak garatzea: taldeko lana eta lankidetzaren funtsezkoak dira antzerki musikalean. Parte-hartzaileek modu eraginkorrean komunikatzen, gatazka konpontzen eta antzezlearen taldeko eta talde teknikoko beste kideekin modu harmoniatsuan lan egiten ikasten dute. Autobabesa: antzerkiaren esperientziaren bitartez, haur eta nerabeek autobabeserako gaitasunak gara ditzakete, besteak beste, autokonfiantza, autozaintza eta interakzioetan muga osasungarriak ezartzeko gaitasuna.
	Inpaktua inguruan: ekimenak inpaktu positiboa du komunitatean, hainbat jatorri eta gaitasun dituzten haur, nerabe eta gazteen gizarteratzea eta parte-hartze kulturala sustatzen baitu.

Esperientziaren irismena	Emaitzak: antzerki musikalean parte hartuz, partaideen garapen pertsonal, sozial eta artistikoa sustatzen da eta haien autoestimua, gaitasun sozialak, adierazpen sortzailea eta parte izatearen sentsazioa hobetzen dira. Ekimenaren zabalpena: ekimenaren zabalpenak ikusgarritasuna handitu dezake eta parte-hartzaile gehiago erakarri. Halaber, babesleen, kolaboratzaileen eta tokiko erakundearen laguntza lor daiteke. Ekimenaren egonkortasuna: baliabideak modu efizienteaz kudeatuz, antzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz eta laguntzeko eta ikuskatzeko egitura sendoak sortuz lortzen da ekimenaren egonkortasuna. Parte-hartzaileen kopurua: parte-hartzaileen kopurua desberdina izan daiteke taldearen gaitasunaren eta eskuragarri dauden baliabideen arabera, baina ahalik eta partaide gehien gehitzea da idealena, inor atzean utzi gabe. Kopiagarritasuna: Ekimena beste komunitate edo testuinguru batzuetan kopiatu daiteke, eta tokiko behar eta baliabideetara egokitu. Hortaz, ikasitako ikasbideak eta jardunbiderik egokienak antzeko programak egin nahi dituzten beste erakunde batzuekin parteka daitezke.
Prozesuaren zailtasunak	Finantza-baliabide mugatuak: Finantzaketa egokirik ez izateak zaildu egiten du beharrezko materialak eskuratu ahal izatea.
Beste ezaugarri gako batzuk	

8

Ekimenaren izena	AURRERAPAUZOAK EUSKADIKO HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEAN
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	UNICEF - Euskadiko Batzordea
Lurralde historikoa	Lurralde historiko batean baino gehiagoan
Erakundearen jarduketako arloa	Beste batzuk
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Batzordeak parte hartzeko eskubidea sustatzeko duen estrategiaren barruan, helburua izango da sail guztientzat zeharkakoa izatea, baina hiru arlotan handiagoa da parte-hartzea bere esentziarengatik: intzidentzian, komunikazioan eta sentsibilizazioan eta haurren politikan.
Ekimenaren formatua	Ekimen horiek UNICEFen Euskadiko Batzordeak parte-hartzea sustatzeko duen estrategiaren barruan sartzen dira eta jarduera hauekin gauzatzen da estrategia hori.
Inplikaturako eragileak	▪ Z belaunaldia ▪ Gaztechange BBK Familyrekin eta Lagunarte gazteen elkartarekin batera ▪ Gaur: UNICEFeko Euskadiko Batzordearen aholkulari-taldea ▪ Radio Euskadiren irrati-espazioa ▪ Haurren lagun diren hirien sarea (10 udalerri)
Parte-hartzea sustatzen den arloa	▪ Politika publikoak ▪ Beste batzuk
Garatzen den testuingurua	▪ Tokikoa ▪ Komunitarioa ▪ Eskolakoa ▪ Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra. UNICEFeko Euskadiko Batzordeak estrategia bat du 2015etik horri dagokionez, eta programen eta proiektuen ebaluazioaren eta ikasitako ondorioz, kanal berriak egokituz, hobetuz eta diseinatuz joan gara.
Aurretiazko prozesu baten parte	Ez
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
	UNICEFen Euskadiko Batzordeak hainbat proiektu garatu ditu azken urteetan estrategia propioaren barruan, eta "Aurrerapausoak Euskadiko haur eta nerabeen parte-hartzean" izena jarri diegu. Haur eta nerabeen parte-hartzerako proiektua da hori eta HEHn aitortuta dauden haur eta nerabeen eskubideak sustatzea du xede, arreta berezia jarritzaz gazteengan, hainbat jardueraren bitartez eta z belaunaldia, gaztechange, UNICEFen Euskadiko batzordearen aholkularitza-

Deskribapena	taldearen (gaur) eta Radio Euskadiren irrati-espazioaren bitartez. Lau printzipio gidariekin lotutako ekimenetan jartzen du bereziki arreta: Parte-hartzea. Bestalde, UNICEFek tokiko parte-hartzea sustatzeko beste espazio batzuk ere sortu ditu, zehazki, Haurren Lagun den Hiria ekimeneko kontseiluak. Egun, Euskadiko 9 udalerrik dute aitortza hori (tartean, Bilbok eta Gasteizek) eta kontseilu parte-hartzaileak dituzte. Gainera, 1ek 2023an lortu zuen hautagaitza, 2024an aitortzeko. Halaber, beste espazioetako bat Bizkaiko Batzar Nagusiekin batera A20 bakoitzean (Haurren Nazioarteko Eguna) egiten den Osoko Bilkura Txikia da, Batzar Etxean. Ahaldun Nagusia eta UNICEFeko Euskadiko Batzordea izaten dira bertan. Eta, hezkuntza arloan, eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren erreferentziatzko zentro izatea lortu du eskubideetan oinarritutako ekimenaren bitartez. Hain zuzen ere, esku hartzeko lau arloetako bat da eskolako eguneroko bizitzan parte hartzeko eskubidea.
Haur eta nerabeen profilak	Batzordeak zuzenean garatzen dituen 4 ekintzen artean (Haurren Lagun den Hiriaren Tokiko Kontseiluak eta Eskubideetan oinarritutako hezkuntza alde batera utzita), 12 urtetik aurrerako nerabezaroan jarriko da arreta, parte-hartzeko eskubidea gauzatzeko zailtasunik handienak hor hauteman baitira.
Dibertsitatearekiko arreta	Haurren parte-hartzea bereziki zaurgarriak diren haurren kolektiboekin inklusiboa izan dadin, haien oztupoak identifikatu eta gainditzeko lan egiten du batzordeak. Genero-ikuspegia presente dago mutilen eta nesken eta talde zaurgarrien parte-hartzearekin. Hori hobetzeko lanean ari dira hainbat tresnaren bitartez, halaber, haur eta nerabeek babes-sisteman duten parte-hartzearen bitartez, bai eta desgaitasunen bat duten haurren parte-hartzearen bitartez ere. Saria jaso zuten ikusteko desgaitasuna duten bi mutilek parte hartu zuten podcast batzuegatik. GAZTECHANGEn esku-hartzeak/ponentziak kolektibo zaurgarrien egoerak ikusarazteko adibide argia dira. Adibidez, aurreko edizioan, sare sozialetan dibertsitate funtzionalari buruzko dibulgazioa egiten duen gazte bat eta gerratik ihes egindako Ukrainako ni neska izan genituen, https://www.youtube.com/watch?v=ZE-zZrqgINo. Halaber, kulturartekotasunaren kasuan, haurren eskubideen gaineko ikuspegiak bere horretan dakar. Eta hori guztia gure diseinuaren proposamenetan, gauzatzean eta ondorengo ebaluazioan egiten dugu, ikasbide gisa eta hobetzeko. Jardueretan parte-hartze inklusiboa eragotz dezakeen oztoporik ez egotea zaintzen da, UNICEFen jarraibide eta gomendio propioak kontuan hartuz eta testuingurura egokituz: https://ciudadesamigas.org/pautas-para-una-participacion-infantil-y-juvenil-inclusivas/
Helburuak	HELBURU OROKORRA EAEko haurrek, nerabeek eta gazteek beren eskubideak gauzatzea eta, bereziki, parte hartzeko eskubidea; inguruko beste pertsona batzuekin interakzioa izanez, bai espazio publikoan, bai pribatuan. Eta, horrez gain, haien bizi-baldintza indibidual eta kolektiboei eragiten dieten gaiak jorratzea eta kontzientzia kritikoa sustatzea, informazio irisgarri eta lagunkoiaren bidez. JARDUERA BAKOITZAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK: Z BELAUNALDIA: gure gazteen ahotza (2016tik). Euskadiko SER katean ematen eta/edo online argitaratzen diren podcast programak. Edukiak: haur eta gazteek proposatutako gaurkotasuneko gaiak, Garapen Jasangarrirako 17 helburuekin eta 2030 Agendarekin lotuz. GAZTECHANGE: Haurren Nazioarteko Eguna (2019tik) gazteei ahotza emateko, entzuteko eta parte hartzeko duten eskubidea sustatzeko espazio bat izateko jardunaldia da. Gazteek eta nerabeek eta gazteentzat eta nerabeentzat antolatutako ekitaldia da eta helburua da haiei ahotza ematea, entzutea eta parte hartzeko duten eskubidea sustatzeko espazio bat eskaintzea, nerabeek eurek proposatutako gaurkotasunari buruzko hitzaldiak. Guztia bat dator Garapen Jasangarrirako 17 helburuekin eta 2030 Agendarekin. GAUR: UNICEFen Euskadiko Batzordearen aholkularitza-taldea. 2021ean sortu zen, haurrek arduradun politikoen, komunikabideen eta abarren aurrean dituzten eskubideak sustatzeko gure jarduera, azterketa eta ekintza propioak diseinatzeko garaian haien ahotza kontuan hartzeko. RADIO EUSKADIREN IRRATI ESPAZIOA: 2021etik. Gasteizko Ser katean hasi zen eta urtebete geroago Gasteizko Radio Euskadira pasatu zen. Nerabeek parte hartzeko kanal desberdin bat sortzea. 2021ean sortu zen hirian, haurren ahotza

	audientzia handiko irrati-programa batera eramateko, eta helduek haien iritzia espazio tradizionaletatik kanpo entzuteko, eskola-ingurutik, familiatik eta aisialdi eta denbora libretik harago. Hala, parte hartzeko eskubideari balioa ematen zaio eta sustatu egiten da.
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	Bilera espezifikoak ekimen bakoitzeko talde bakoitzarekin.
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Haurren parte-hartzea egiazkoa izan dadin, haur eta nerabeei iritzia informatua eraikitzen lagundu behar zaie eta asoziazionismoa sustatu, haur eta nerabeen espazio propio eta haien ordezkaritzaarako espazio gisa. Gainera, Roger Hartek dioen moduan, nazio bat demokratikoa izango da herritarrek parte hartzen badute. Parte hartzeko konpetentzia eta nork bere buruarekiko konfiantza pixkanaka lortzen dira, praktikaren bidez. Ez dezakegu espero, haurrak, adin-nagusitasuna lortzean, bat-batean pertsona heldu, arduratsu eta parte-hartzaile bilakatzea, aurrez horrek dakarren gaitasunekiko eta ardurekiko inolako esperientziarik izan ezean. Partaidetza, beraz, eskubidea eta ardura da, norberaren bizitzari eragiten dioten erabakiak eta kide den komunitatekoak partekatzea dakarrelako. Haur eta nerabeek parte-hartze prozesuetan duten rol errealean eta haien iritzia ematen zaion balioaren gainean gogoeta egitera gonbidatzen gaitu Hartek proposatutako parte-hartzearen eskailerak. Proposamen horretatik abiatuta, eta aktibo gisa duen rola aintzat hartuz, parte-hartzean, hainbat unetan, adinetan, agertokitan eta hazkundean, haurren parte-hartzea zerbait dinamikoa, zirkularra, malgua eta testuingurura eta egoeretara egokitu daitekeena dela uler daiteke. Parte-hartzea borondatezkoa da. Sekula ez litzateke haurrik behartu beharko ez dagokion ardurarik hartzera. Baina haurren garapen osasuntsua munduarekin harremana izateko eskubideak ere baldintzatzen du; erabakiak era independentean hartzeak eta, heltzen doazen heinean, ardura gehiago edukitzeak, hain zuzen.
Esperientziaren irismena	EAEko haurrek, nerabeek eta gazteek beren eskubideak gauzatzea ahalbidetzen da eta, bereziki, parte hartzeko eskubidea; inguruko beste pertsona batzuekin interakzioa izanez, bai espazio publikoan, bai pribatuan. Eta, horrez gain, haien bizi-baldintza indibidual eta kolektiboak eragiten dieten gaiak jorratzea eta kontzientzia kritikoa sustatzea, informazio irisgarri eta lagunkoiaren bidez. Adibidez, Z BELAUNALDIaren azken grabaketan, eta Haurren Nazioarteko Egunaren harira, ongizate emozionalaren eta buruko osasunaren, genero-indarkeriaren, haurren indarkeriaren eta gatazkak modu baketsuan kudeatzearen, hezkuntzaren, migrazioen eta klima-aldaketaren gainean egin dute gogoeta eta haien ikuspegia helarazi diete beste gazte batzuei. https://cadenaser.com/radio-bilbao/generacion-z-euskadi/ GAZTECHANGEren azken bi edizioetan, gazteen osasuna eta buruko ongizatea, dibertsitate funtzionala, elikadura-jokabidearen nahasmenduak, haur eta nerabe errefuxiatuak (Ukraina), antsietatea, erronka inklusiboak, ekintzailatza eta ingurumena jorratu dira, besteak beste. Eta, gainera, hizlari gazteen laguntza eta Made In Mars enpresa gaztearen (Mondragon Unibertsitatearen Lein graduatik dator) laguntza izan dugu komunikazioan. DENA dantza-taldeak eta Iraia bakarlariak ere hartu zuten parte GazteChangen, emanaldiak eskainiz. 2022ko edizioa: https://www.eitb.eus/eu/nahieran/bideoa/211809/ 2023ko 7. edizioa: https://www.youtube.com/watch?v=ZE-zZrqqlNo GAUR UNICEFen Euskadiko Batzordearen Gazteen Aholkularitza Taldea Egun, talde bat eratu da adinean aurrera doazen pertsona berriekin, unibertsitateko eta eguneroko bizitzako erantzukizunak direla eta parte-hartze puntualagoa izan baitezakete. RADIO EUSKADI GASTEIZ espazio honek 3 denboraldi daramatza martxan etenik gabe. UNICEFek, kazetariak edo ikasleak proposatzen du gaia eta gidoia adostu egiten da. Elkarrizketa horien adibideak: https://www.eitb.eus/es/radio/radiovitoria/audios/detalle/9367291/audio-nos-ha-sorprendido-derecho-a-tener-ocio-y-tiempo-libre/ Programa guztiak gauzatzeko, GAUR izan ezik, aurrekontu bat dago eta erakunde publiko batek hartzen du bere gain, dirulaguntza/hitzarmen baten bidez. Faktore hori izan daiteke bere egonkortasunerako arriskutsuena.

Prozesuaren zailtasunak	UNICEFen Euskadiko estrategiaren helburua da haur eta nerabeek eurei eragiten dieten arlo guztietan parte hartzeko duten eskubideari ekarpena egitea, eta haur eta nerabeek parte hartzeko egiturak sustatzea, eta iritzia emateko eta entzunak izateko duten eskubideari garrantzia ematea. Parte-hartzearen sustapena haur eta nerabeen protagonismoan zentratzen da, eta haien iritzia eta proposamenak alderdi zehatz batzuetara bidera daitezke. Parte-hartzea herritartasuna gauzatzeko funtsezko elementua da eta sustatu egin behar da, baldintzak gorabehera. Egun Euskadin dauden parte hartzeko ekintzek aitortza sozial txikia dute eta proiektio eskaseko esperientziak dira. Ez dute lortzen behar beste presentzia eta fama izatea. Gure gizartean, gazteek ez dute eskubideen titular gisa behar besteko ahotsik. Aurrerapausoak eman behar dira eskubideak praktikan jartzeari eta gauzatzeari dagokionez, eta, batez ere, parte hartzeko eskubideari dagokionez. Horri dagokionez, beharrezkoa da haur eta nerabeen irudi positiboa proiektatzea, haien pentsamendu kritikoa sustatzeko. Gainera, helburua da haur eta nerabeen eskubide batzuei lekua ematea. Egun, beharrezkoa izaten jarraitzen du haur eta nerabeentzako espazio parte-hartzaileak sortzeak eta trukerako espazioak sortzeak, hainbat euskarri motatan (topaketak, komunikabideak, ekitaldiak...). Hala, neska-mutilek elkar ezagutu dezakete eta esperientziak partekatu. Horrek guztiak aukera ematen du autoritate eskudunei adostutako proposamenak bideratzeko eta tokiko arloan eta/edo erkidegoan eragiteko. Institutuzioek herritarren parte-hartzeaz hitz egiten dutenean, batzuetan ahaztu egiten zaie "herritar" kontzeptuaren barruan helduak ez ezik haur eta nerabeak ere sartzen direla eta eskubideak dituztela. Beharrezkoa da parte-hartzea artikulatzeko esparru metodologiko orokorra hobetzea, bai tokian, bai Euskadi osoan, eskubide horri garrantzi handiagoa emateko eta nabarmentzeko. Haien iritzia adieraztera eta iritzi horiek aintzat hartzea ohituak dauden haur eta nerabeentzat errazagoa da tratu txarrak edo abusuak salatzea. Hortaz, parte-hartzea autobabeserako tresna bat ere bada. Gainera, haur eta nerabeek iritzia emateko eta entzunak izateko duten eskubidea gauzatzen dutenean, justiziaren zentzua ulertzen dute eta jokabide demokratikoak ikasten dituzte. Planteatutako jardueren bidez, parte-hartzea sustatu nahi da, haien eskubideak ulertzeko, gauzatzeko eta exijitzeko bitarteko gisa. Hala, parte hartzeko eskubidea ezinbesteko baldintza da oro har eskubideak gauzatzeko, eta familian, eskolan, udalerrian edo zuzenean edo zeharka eragiten dien beste edozein eremutan hartzen diren erabakietan edo gaietan eragiteko. Pentsa liteke haur eta nerabeak ez direla gai iritzi koherenteak sortzeko eta erabakiak hartzeko. Alabaina, lehentasunak eta iritzi propioak dituzte oso txikiak direnetik eta, hala, haien beharrak identifikatu eta dituzten arazoentzako soluzioak bila ditzakete, modu errazean eta haien ikuspegitik. Batzuk pentsa dezakete haur eta nerabeei parte hartzeko eskubidea emateak hutsaldu egin ditzakeela, haien haurtzarora kendu edo helduen erantzukizunak helarazi. HEHK ez die parte hartzera behartzen, horretarako eskubidea ezartzen du. Haur bat ez da inolaz ere behartu behar prest ez dagoen erantzukizunak hartzera, ez eta informaziorik ez duen edo ondorioak ezagutzen ez dituen erabakiak hartzera ere.
Beste ezaugarri gako batzuk	Helburua da haien ahotsa entzuna izateko espazio horiek sortzeaz gain, haiek proiektuaren/jardueraren diseinuan eta ebaluazioan parte hartzea. Prozesu hori hobetzen joango gara esperientziaren eta esperientzia bakoitzaren ikaskuntzaren arabera. Haurren Lagun diren Hiriak eta Eskubideetan Oinarritutako Hezkuntzaren Erreferentzia Zentroak ekimenei dagokienez, tokiko erakundeentzako eta ikastetxeentzako proposamena hori bera da: zikloaren fase guztietan parte hartzea eta guk prozesu horretan laguntzea.

9	
Ekimenaren izena	NEURRI AKTIBOAK
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketara arloa	Gizarte-zerbitzuak

Lantaldearen konposizioa	Soldatapekoa
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	
Ekimenaren formatua	Prozesua
Inplikaturako eragileak	- Komunitatea - Hezkuntza-taldea - Familia
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Landa eremua - Tokikoa - Komunitarioa
Ekimenaren denboralitetea	Ekimen egonkorra (urtekoa)
Aurreitazko prozesu baten parte	Bai
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	1.- Batzarrak: adingabeek proposatutako jarduera motei erantzuten zaie, aisialdi-denbora (adierazteko eta hobetzeko proposamenak egiteko aukera)... 2.- Tutoretza indibidualak. 3.- Prestakuntza - hasierako balorazioan eta Hezkuntzako Plan Indibidualetan (HPI) parte hartzea. 4.- Kexen eta iradokizunen orriak. 5.- Haurren Zerbitzuko erreferentziazko teknikariarekiko irisgarritasuna. 6.- Iradokizunen postontzia. 7.- Hezitzaile batekin elkarrizketa pribatua izateko espazioak edukitzea, beste adingabeek edo langile espezializatu edo baimenduek esku hartu gabe (entzuna izateko eskubidea). 8.- Taldekako tailerrak (kirola, bizitzarako gaitasunak, dokumentalak), etab. 9.- Parte-hartze komunitarioa: irteerak hezkuntza-taldearekin eta laguntzailerik gabeko aisialdiko irteerak.
Haur eta nerabeen profilak	13 eta 18 urte arteko adingabeak.
Dibertsitatearekiko arreta	- Beharra duten adingabeei lagunduz. - Beste errealitate batzuk ezagutzera dago bideratuta. - Taldeko plangintzan eta plangintzan indibidualetan hartzen da kontuan.
Helburuak	Adingabeei hezkuntza-taldearen segurtasuna, prestasuna eta irisgarritasuna eskaintzea, harreman osasuntsua eta komunikatzeko beharrezkoa den konfiantzazko espazioa sortzea xede duen esku-hartze ereduaren barruan. Adieraztea gehiago kosta dakieken baliabideetan laguntzea, adibidez, justiziarekin lotutakoetan edo eskubideak urratu daitezkeenetan (saltokiak, etab.). Taldeko tailerretan sortzen diren zalantza anonimoentzako postontziak.
Parte-hartze mota	Parte-hartzailea eta boluntarioa.
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan
Parte hartzeko mekanismoak	- Batzarrak - Tutoretzak - Iradokizunen postontzia - Lankidetzak HPIak egiteko garaian
Parte-hartzea sustatzeko kompetentziak garatzea	Asteko batzarrean taldearekin egin beharreko jarduerak adostu eta gauzatzen dira. Adibidez, sukaltzea (menua egitea, materialak erostea eta kostua) eta kirola (frontoia alokatzen da).
Esperientziaren irismena	Botiola etxean bizi diren adingabeak
Prozesuaren zailtasunak	Adingabeak tarteka ez dira jarduera horietara joaten; izan ere, baimenik gabe alde egiten dute baliabideetatik, eta horrela zaila da askotan lan jarraitua egin ahal izatea.
Beste ezaugarri gako batzuk	Egituratutako espazioak, errutinak izatea ahalbidetuz.

EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Elkarbanatuz elkarte
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketaren arloa	Hezkuntza edo soziohezitzailea, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	
Ekimenaren formatua	Prozesua
Inplikaturako eragileak	- Adingabeak - Hezkuntza-taldea
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak
Garatzen den testuingurua	Zerbitzuan
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra
Aurretiazko prozesu baten parte	Ez
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Adingabeek beren gizarte eta hezkuntza arloko prozesuetan parte hartzea. Urteko lan-planetan parte hartzea, sozialki, hezkuntzan, familian eta abarretan hobetzeko. Parte-hartzea banaka eta taldeka gauzatzen da.
Haur eta nerabeen profilak	Egoera zaurgarrian dauden haur eta nerabeak.
Dibertsitatearekiko arreta	Dibertsitateari arreta jartzen zaio (generoa, jatorria, autonomia maila, maila sozioekonomikoa) eta generoaren, intersektionalitatearen eta kulturartekotasunaren ikuspegia ezartzen da.
Helburuak	Helburu nagusia da hainbat prozesu parte-hartzaile ezagutzea eta zerbitzutik kanpo gauzatzea. Parte-hartzearen xedea da haien gizarte eta hezkuntza arloko prozesuak hobetzea, baina baita kontsultarako, elkarriketarako eta abarretarako espazioak sortzen laguntzea ere.
Parte-hartze mota	Kontsultarako eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldeak, jardueretan edo zerbitzuetan
Parte hartzeko mekanismoak	- Tutoretzak - Batzarrak - Galdetegiak
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Jardueren arabera parte-hartzea handiagoa da. Baina, oro har, gizarte eta hezkuntza arloko prozesuetan, haiek parte hartzen duten zentroaren antolaketarako jardueren plangintzan eta jardueren kudeaketa ekonomikoan (parte-hartze handiagotik txikiagora zerrendatuta).
Esperientziaren irismena	
Prozesuaren zailtasunak	Nola parte hartu ez dakiten haur eta nerabeak. Ez daude ohituta.
Beste ezaugarri gako batzuk	

11

Ekimenaren izena	EUSKALERRIKO ESKAUTAK BIZKAIA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Euskalerriko Eskautak Bizkaia
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketaren arloa	Hezkuntza edo soziohezitzailea, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Eskautismoaren parte-hartzearen ekimena hezkuntza ez formalaren eta gazteen garapenaren arloan gauzatzen da batik bat. Arlo horren barruan, eskautismoak plataforma bat eskaintzen du gazteek hezkuntzako jardueretan, aisialdikoetan eta zerbitzu komunitariokoetan parte-hartze aktiboa izan dezaten, haien hazkunde pertsonala, gaitasunen garapena eta konpromiso zibiko eta soziala sustatzeko. Eskaut taldean parte hartuz, gazteek ikaskuntza praktiko eta garrantzitsua izateko, balio etiko eta moralak jasotzeko, lidergotzaren eta taldeko lanaren gaitasunak garatzeko eta haien komunitateari ekarpen positiboa egiteko

		aukera dute. Hortaz, eskautismoa lan-ildo garrantzitsua da hezkuntza ez-formalaren eta gazteen garapenaren arloan, eta esperientzia integral eta aberasgarria eskaintzen du gazte parte-hartzaileentzat.
Ekimenaren formatua		Prozesua
Inplikaturako eragileak		Euskalerriko Eskautetako Bizkaiko Eskaut talde baten ekimen parte-hartzailean hainbat eragilek hartzen dute parte, hala nola Administrazio Publikoak, sektoreko beste erakunde batzuk, komunitateak, hezkuntza arloak, komunikabideak eta osasunaren eta ongizatearen arloko profesionalak. Baimenak, baliabideak, laguntza logistikoa, jarduerak egiteko espazioak, hedapen mediatikoa eta orientazioa eskaintzen dituzte horiek segurtasunaren eta osasunaren arloko gaitan. Eragile horiek guztiek ekarpena egiten dute gazteen garapenean eta komunitatea indartzen dute, balioen sustapenaren, jarduera komunitarioetako parte-hartzearen eta euskal kulturaren zabalpenaren bitartez.
Parte-hartzea sustatzen den arloa		- Banakako esku-hartzea - Jarduerak
Garatzen den testuingurua		- Urbanoa - Landa eremua - Tokikoa - Komunitarioa
Ekimenaren denboraliteta		Ekimen egonkorra 1959tik
Aurretiazko prozesu baten parte		Balioak eta printzipioak: Eskaut mugimendua funtsezko balio batzuetan oinarritzen da, hala nola elkartasunean, laguntasunean, naturarekiko errespetuan, berdintasunean, erantzukizunean eta besteekiko zerbitzuan. Balio horiek jarduera praktikoen eta bizi-esperientzien bidez zabaltzen dira. Hori lagungarria da gazteek haiekiko eta komunitatearekiko etikaren eta erantzukizunaren zentzua gara dezaten. Hezkuntza ez-formala: Eskautismoak hezkuntza ez-formala eskaintzen du eta ikastetxeetan jasotako hezkuntza formala osatzen du. Aire libreko jardueren, jolasen, proiektu komunitarioen eta udalekuen bidez, gazteek gaitasun praktikoa lortzen dituzte, sormena garatzen dute, autoestimua indartzen dute eta taldean lan egiten ikasten dute. Parte-hartze demokratikoa: eskaut taldeek sistema demokratikoarekin funtzionatzen dute eta gazteek aukera dute taldeari eta komunitateari eragiten dioten erabaki guztietan parte-hartze aktiboa izateko. Haien iritzia adierazten, besteen iritzia errespetatzen eta elkarriketaren eta deliberazioaren bidez adostasuna lortzen ikasten dute. Lidergoa eta autonomia: Eskaut mugimendua lidergoaren garapena sustatzen du gazteen artean eta talde barruetan lidergo-rolak izateko aukera ematen die. Jardueren plangintzaren eta antolaketaren bitartez inizatiba hartzen, baliabideak kudeatzen eta haien kideen lider eraginkorrak izaten ikasten dute. Komunitatearentzako zerbitzua: eskautismoaren ardatzetako bat besteentzako eta komunitatearentzako zerbitzua da. Gazteek zerbitzu komunitarioko proiektuetan hartzen dute parte eta, hala, ikasitakoa praktikan jarri eta gizartearen ongizateari ekarpen garrantzitsua egin diezaioke.
EKIMENAREN DESKRIBAPENA		
Deskribapena		Eskauten esperientziaren bereizgarria jolasean, esplorazioan eta besteekiko zerbitzuan oinarritutako ikaskuntza da. Taldeko kideek hainbat jardueratan hartzen dute parte, besteak beste, aire libreko jolasetan, kanpaleketan, irteeretan, zerbitzu komunitarioko proiektuetan, gaitasun praktikoen tailerretan eta lidergoan. Bizkaian 30 eskaut taldek garatzen dute metodologia hori, lurralde osoan hainbat udalerritan.
Haur eta nerabeen profilak		Eskaut mugimenduaren ekimen parte-hartzailea erakundearen parte izateko interesa duten haur eta nerabeei zuzenduta dago. Eskaut mugimendua inklusiboa izateko eta hainbat adin, genero, testuinguru sozioekonomiko eta gaitasuneko haur eta nerabeak hartzeko diseinaturik dago. Ekimena ez dago profil espezifiko batera zuzenduta; izan ere, helburua da parte hartu nahi duten haur eta nerabe guztiei aukera eskaintzea. 8 eta 18 urte bitartean izan behar dituzte soilik. Haien gaitasunak, interesak edo egoera indibidualak gorabehera, Eskaut mugimenduaren xedea da espazio seguru eta aberasgarria eskaintzea, haur eta nerabe guztiek ikasteko, hazteko eta komunitateari ekarpen garrantzitsua egiteko aukera izan dezaten. Hortaz, ekimen parte-hartzailea zabalik dago

	guztientzat, inklusioa, elkarrenganako errespetua eta dibertsitatea sustatzeko erakundearen barruan.
Dibertsitatearekiko arreta	Eskaut mugimenduaren barruan, dibertsitatearen eta desberdintasunen hainbat faktore hartzen dira kontuan erakundean parte hartzen duten haur eta nerabeen inklusioa eta parekidetasuna sustatzeko. Faktore horien artean daude generoa, jatorri etnikoa eta kulturala, autonomiaren maila, maila sozioekonomikoa eta gaitasunak. Generoari dagokionez, modu aktiboan egiten da lan genero-berdintasuna sustatzeko eta hurrek parte hartzeko eta lidergorako aukera berdinak izateko. Genero-estereotipoak ekidin egiten dira eta giro inklusiboa sustatzen da, parte-hartzaileak errespetatuak eta baloratuak senti daitezen, genero-identitatea edozein izanik ere. Dibertsitate kulturala ere sustatzen da Eskaut mugimenduaren barruan eta hainbat jatorri etniko, kultural eta linguistikotako haur eta nerabeen inklusioa sustatzen da. Helburua da kultura guztiak errespetatuak eta onartuak izango diren giroa sortzea eta parte-hartzaileek kulturartekotasuna ulertzea. Parte-hartzea eta jarduerak haur eta nerabe bakoitzaren autonomia mailaren arabera egokitzen dira, eta beharra dutenei laguntza gehigarria ematen zaie, jardueretan parte har dezaten. Parte-hartzaileek autonomia-gaitasunak garatzea eta erabakiak hartzea sustatzen da, haien hasierako maila edozein izanik ere. Maila sozioekonomikoari dagokionez, neurriak hartuko dira jarduera guztiak haur eta nerabeentzako irisgarriak izan daitezen, haien egoera ekonomikoa edozein izanik ere. Bekak, deskontuak edo dirulaguntzak eskaini daitezke zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonentzat eta, hala, parte-hartzea muga dezaketen oztopo ekonomikoak ekidin daitezke. Azkenik, gaitasun desberdinak dituzten haur eta nerabeen inklusioa sustatzen da, jarduerak haien beharretara egokituz eta Eskaut mugimenduaren jarduera guztietan erabateko parte-hartzea izan dezaten bermatzeko laguntza eskainiz. Laburbilduz, Eskaut mugimenduak modu aktiboan egiten du lan inklusiboa eta parekidea izateko, eta haur eta nerabeen artean dagoen dibertsitatea eta desberdintasunak kontuan hartzen ditu. Halaber, giro segurua, errespetuzkoa eta aberasgarria sortzen du parte-hartzaile guztientzat. Ikuspegi inklusiboak ezartzen ditu hainbat faktore kontuan hartuz, besteak beste, generoa, etnia, klase soziala eta parte-hartzaileen identitatearekin lotutako beste alderdi batzuk. Ikuspegi horiek plangintzatik hasi eta jardueren eta programen ebaluaziora bitarte aplikatzen dira. Helburua da guztiak baloratuak eta errespetatuak sentitzeko inguruneak sortzea, parte-hartze parekidea sustatzea eta estereotipoak ekiditea. Ebaluazioan zehar, informazioa jasotzen da faktore horiek parte-hartzaileen esperientzian zer nolako eragina duten jakiteko, eta datu horiek erabiltzen dira etorkizuneko ekimenetan parekidetasuna eta inklusioa hobetzeko. Eskaut mugimenduaren barruan genero-ikuspegia, ikuspegi intersektionala eta kulturartekoa ezartzeaz gain, neurri zuzentzaile zehatzak aplikatzen dira inklusioa sustatzeko. Besteak beste, zailtasun ekonomikoak dituzten familientzako laguntza komuna. Laguntza horrek babes finantzarioa ematen du, haur eta nerabe guztiak jardueretan parte hartzen jarraitzeko, haien egoera ekonomikoa edozein izanik ere. Ekimen horrekin parte-hartzea mugatu dezaketen oztopo ekonomikoak ezabatzen dira eta Eskaut mugimendua guztientzako irisgarria izatea bermatzen da. Hala, parekidetasuna eta inklusioa sustatzen da praktikan. HELBURU OROKORRA Gazteen garapen integrala sustatzea, Eskaut mugimenduaren balioetan oinarrituta, eta gizartearekin eta euskal kulturarekin duten konpromisoa indartzea, esperientzia parte-hartzaileen eta hezkuntzako bitartez. HELBURU ZEHATZAK Parte-hartze aktiboa sustatzea: gazteek bizitza komunitarioan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea, haien iritziak, ideiak eta proposamenak adierazteko eta haien inguruan eragina duten erabakietan parte hartzeko. Konpetentzia sozialak eta lidergokoak garatzea: komunikatzeko gaitasunak, taldeko lana, lidergoa eta gatazkak konpontzeko gaitasuna garatzeko aukerak eskaintzea, gazteak aldatetarako eragileak izan daitezen beren komunitateetan. Euskal kultura eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea: Naturarekiko eta euskal kulturarekiko maitasuna sustatzea aire libreko jardueren, kultur ekitaldien eta ingurumena kontserbatzeko proiektuen bitartez, eta, hala, tokiko ondarea zaintzeko eta garapen jasangarriko ekarpena egitea.

Helburuak	Balio etiko eta solidarioak sustatzea: hainbat balio sustatzea, hala nola elkartasuna, errespetua, tolerantzia, berdintasuna eta justizia soziala, gazteak herritar arduratsuak eta komunitateko ongizatearekin konprometituak izan daitezen inspiratzeko. Belaunaldien arteko elkarriketa sustatzea: gazteak eta helduak elkartzeko eta elkarriketan aritzeko espazioak eskaintzea, ezagutzen, esperientzien eta ikuspegi trukea sustatuz, garapen pertsonal eta kolektiboa aberasteko. Gazteen garapen pertsonalari ekarpena egitea: hazkunde pertsonalerako, autoexploraziorako eta autokonfiantza garatzeko aukerak eskaintzea, eta gazteei beren gaitasun eta talentu indibidualak deskubritzen eta indartzen laguntzea. Laburbilduz, Bizkaiko Eskaut taldean parte hartzeko ekimenaren xedea da gazteak ahaldundutzea, haien identitate kulturala indartzea eta haien konpromiso zibiko eta soziala sustatzea, Eskaut mugimenduaren printzipioak eta balioak jarraituz eta euskal gizartearen garapen integralari ekarpena eginez.
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	Haur eta nerabeek Eskaut mugimenduan parte har dezaten sustatzeko, hainbat mekanismo erabiltzen dira haien iritziak, ideiak eta kezak helaraz ditzaten. Hauek dira mekanismoetako batzuk: Batzarrak: Batzar edo bilera erregularrak antolatzen dira, haur eta nerabeek gai garrantzitsuak eztabaidatzeko, ideiak proposatzeko eta beren Eskaut taldearekin lotutako gaien gaineko erabakiak hartzeko aukera izan dezaten. Haitzaren kontseiluak: haitzaren kontseiluak bilera informalak dira eta haur eta nerabeak liderrekin edo kontseilariarekin biltzen dira gai pertsonalei buruz hitz egiteko, esperientziak partekatzeko eta orientazioa eta laguntza jasotzeko. Eztabaida-taldeak: eztabaida-taldeak eratzen dira eta haur eta nerabeek beren iritzia xeheago adierazteko eta gai espezifiko batzuen gainean eztabaidatzeko aukera dute, ingurune egokitu eta egituratu batean, adibidez, World cafe batean. Laguntza: tutoretza-programak ezartzen dira eta haur eta nerabeak lider edo kontseilari trebatuagoekin jartzen dira bikoteka. Lider horiek orientazio indibidualizatu, babesa eta tutoretza eskaintzen diete. Inkestak eta iradokizunak: inkestak eta iradokizunen postontziak erabiltzen dira haur eta nerabeen iritzi anonimoa jasotzeko. Hala, modu pribatuagoan adieraz dezakete iritzia, nahi izanez gero.
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Eskautismoaren ekimen parte-hartzailearen xedea da haur eta nerabeak ahaldundutzea, antolaketa hainbat alderditan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzeko konpetentziak garatuz: Zentroaren antolaketa: erabakietan eta liderren aukeraketan parte hartzea animatzen zaie. Jardueren plangintza: ekarpena egiten dute ideiekin eta programa garrantzitsuak diseinatzeko laguntzen dute. Kudeaketa ekonomikoa: baliabide finantzarioak modu arduratsuan kudeatzen ikasten dute. Prestakuntza eta trebakuntza: entrenamendua jasotzen dute lidergoaren, taldeko lanaren eta beste gaitasun garrantzitsu batzuen arloan. Gaitasunak garatzea: gaitasun sozialak, lidergoa eta arazoak konpontzeko gaitasuna garatzeko jardueretan hartzen dute parte. Autobabesa: orientazioa ematen zaie segurtasun pertsonalari eta arriskuen prebentzioari buruz. Laburbilduz, ekimenaren xedea da haur eta nerabeak herritar aktiboak, arduratsuak eta komunitatearekin konprometituak izan daitezen prestatzea, gaitasun eta konpetentzia garrantzitsuak eskuratuz ingurune seguru eta parte-hartzailean.
	Eskaut mugimenduak irismen handi eta garrantzitsua du, eta inpaktu positiboa du tokiko komunitatean. Zerbitzu komunitarioko jardueren eta hobetzeko proiektuen bitartez, parte-hartzaileek ekarpena egiten diote auzoaren edo udalerraren ongizateari eta garapenari, eta ehundura soziala indartu eta hainbat balio sustatzen dituzte, adibidez, elkartasuna eta errespetua. Ekimen hori ekimen komunitarioen, gizarte-sareen eta tokiko lankidetzen bitartez zabaltzen da, interesa eta parte-hartzea sustatuz komunitatean. Antolaketa-egitura sendoari

Esperientziaren irismena	eta liderren eta boluntarioen etengabeko konpromisoari esker, Eskaut mugimendua egonkorra eta iraunkorra da, eta horrek bere jarraikortasuna eta jasangarritasuna bermatzen du. Askotariko haur, nerabe, lider eta boluntarioek babesten dute ekimena komunitatean. Gainera, eskautismoaren printzipioak egokitu egin daitezke eta hainbat testuinguru eta komunitatetan ezarri. Hala, hainbat eremu geografikotan zabaldu daiteke eta izan dezake inpaktua.
Prozesuaren zailtasunak	Baliabide finantzario mugatuak: baliabide finantzariorik ez izatea muga bat izan daiteke jarduerak eta programak egiteko, bai eta mugimenduan parte hartu nahi duten eta zailtasun ekonomikoak dituzten familiei laguntza emateko ere. Babes instituzional falta: kasu batzuetan, aitortza edo babes instituzionalik ez izateak Eskaut mugimenduaren lana zaildu dezake, batez ere espazio komunitarioetara iristeko garaian edo tokiko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko garaian. Zailtasun logistikoak: jarduerak eta ekitaldiak antolatzea zaila izan daiteke, muga logistikoak egon daitezkeelako, hala nola espazio egokiak lortzeko, garraiorako edo baliabide materialak garatzeko. Belaunaldi-aldaketa: liderrak eta boluntarioak txandatzeko erronka izan daiteke mugimenduaren jarraikortasunari eta egonkortasunari eusteko, bai eta eskautismoaren balioak eta printzipioak belaunaldi berriei helarazteko ere. Askotariko beharrak: askotariko haur eta nerabeen behar eta aurreikuspenei erantzutea zaila izan daiteke eta baliteke ikuspegi malgu eta moldagarria aplikatu behar izatea, parte-hartzaile guztien inklusioa eta parte-hartze parekidea bermatzeko. Oztopo kultural edo sozialak: komunitate batzuetan, hainbat oztopo kultural edo sozial egon daitezke haur eta nerabe talde batzuen parte-hartzea zaildu dezaketena, adibidez, gutxiengo jatorri etnikoa dutenen edo gaitasun desberdinak dituztenen kasuan.
Beste ezaugarri gako batzuk	Eskaut mugimenduak haur eta nerabeen parte-hartze aktiboa eta ahalduntzea sustatzeko hainbat ezaugarri garrantzitsu ditu. Horren barruan sartzen da haur eta nerabeekin batera diseinatzea. Hala, lankidetzazuzena bultzatzen da jarduerak eta programak planifikatzeko eta diseinatzeko garaian. Gainera, lortutako emaitzen komunikazio-prozesu gardena ezartzen da, haur eta nerabeek egindako ekarpenetatik abiatuta. Horrek partaideen konfiantza eta konpromisoa indartzen du. Aukerak eskaintzen zaizkie haur eta nerabeei mugimenduaren barruan lidergo-rolak hartzeko, trebatu egiten dira eta lidergo-gaitasunak garatzen laguntzen zaie. Hezkuntza ez-formaleko ikuspegia erabiltzen da eta ikastetxeetan jasotako hezkuntza formala osatzen da hala. Ikaskuntza sustatzen dute jarduerak ludikoen, esperientzia praktikoen eta ikaskuntza esperimenteraren bitartez. Gainera, parte-hartze zibikoa eta komunitatearekiko konpromisoa sustatzen da eta parte-hartzaileei ekintza solidarioetan eta ingurunearen ongizateari ekarpena egingo dioten zerbitzu komunitarioko proiektuetan parte har dezaten animatzen dira. Ezaugarri gehigarri horiek Eskaut mugimenduaren ikuspegi parte-hartzailea eta haur eta nerabeen oinarritutako ikuspegia indartzen dute, eta, hala, aldaketarako eragile aktiboak eta komunitateekin konprometituak bihurtzen daitezke.

12	
Ekimenaren izena	AISIALDI-TALDEA LARUNBAT ARRATSALDETAN
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Bosko Anitz Aisialdi Taldea
Lurralde historikoa	Gipuzkoa
Erakundearen jarduketako arloa	Hezkuntza edo soziohegitzaketa, Aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Gizarte eta hezkuntza arloa
Ekimenaren formatua	Zerbitzua
Inplikaturako eragileak	Boluntarioak
Parte-hartzea sustatzen den arloa	Jarduerak
Garatzen den testuingurua	Urbanoa

	Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra duela hogeita hamar urte baino gehiagotik
Aurretiazko prozesu baten parte	Ez
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	
Haur eta nerabeen profilak	
Dibertsitatearekiko arreta	Kontuan hartzen dira aniztasunaren eta desberdintasunaren faktore hauek – generoa, jatorria, autonomia maila, maila sozioekonomikoa...– Behar bereziak baldin badaude, jolasetan parte hartzeko aukerak dibertsifikatu egiten dira, etab. Ez da genero-ikuspegia, ikuspegi interseksionala edo kulturartekoa egokitzen.
Helburuak	Eremu horretako haurrei ingurune segurua eta aisialdiko eta denbora libreko askotariko jarduerak eskaintzea.
Parte-hartze mota	Parte-hartzailea eta boluntarioa.
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez.
Parte-hartze maila	Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan
Parte hartzeko mekanismoak	- Batzarrak - Jarduerak planifikatzeko eta ebaluatzeko ohiko bilerak.
Parte-hartzea sustatzeko kompetentziak garatzea	Ez.
Esperientziaren irismena	Larunbatero batez beste 100 haur.
Prozesuaren zailtasunak	Begiraleak falta dira.
Beste ezaugarri gako batzuk	

13

Ekimenaren izena	ALAIBATZA AISIALDI ELKARTEA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Alabaitza Aisialdi Elkartea
Lurralde historikoa	Gipuzkoa
Erakundearen jarduketaren arloa	Hezkuntza edo sozioheztizalea, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Jolasa, tailerra eta kanpaldia
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	Floreaga ikastetxeko hezkuntza-elkartea
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak
Garatzen den testuingurua	- Eskolakoa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra (urterokoa) 1985etik
Aurretiazko prozesu baten parte	Bai. Salesiarren haur eta nerabeen Gazte Taldeak
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	
Haur eta nerabeen profilak	10 eta 16 urte arteko haur eta nerabeak
Dibertsitatearekiko arreta	Hainbat kulturatako ohiturak hartzen dira kontuan.
Helburuak	Haur eta nerabeen aisialdian balio sozialak sustatzea.
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan
Parte hartzeko mekanismoak	Galdetegiak
Parte-hartzea sustatzeko kompetentziak garatzea	Jardueren plangintzan parte hartzea.
Esperientziaren irismena	180 haur eta nerabek hartu dute parte gutxi gorabehera 2023-24 urtean.
Prozesuaren zailtasunak	Parte-hartze eskasa kultur elkarteetan egun.
Beste ezaugarri gako batzuk	

14

Ekimenaren izena	GENERO BERDINTASUNARI ETA MIGRAZIOARI BURUZKO TAILERRAK
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Mundu Bakean
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketa arloa	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Gizarte Eraldaketarako hezkuntza
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	Administrazio publikoa
Parte-hartzea sustatzen den arloa	Jarduerak
Garatzen den testuingurua	Eskolakoa
Ekimenaren denboralitatea	Puntuala (proiektuei lotuta)
Aurretiazko prozesu baten parte	Bai, beste tailer eta lankidetzak-proiektu batzuk
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Genero-parekidetasunari buruzko tailerrak, berdintasuna lantzeko, rolak deseraikitze, etab. Migrazioari buruzko tailerrak, immigranteen errealitatea hurbiltzeko, ikusarazteko eta sentsibilizatzeko.
Haur eta nerabeen profilak	Lehen Hezkuntza
Dibertsitatearekiko arreta	Ikuspegi feminista eta interseksionala gehitu da, dibertsitate kulturala, erlijiosoa, etnikoa, estatusena, arrazarena eta sexuarena kontuan hartuz.
Helburuak	- Entzutea - Hitz egitea - Sentsibilizazioa - Ikusgarritasuna
Parte-hartze mota	Parte-hartzailea eta boluntarioa.
Hezkuntza arloarekin lotuta	Bai
Parte-hartze maila	Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan.
Parte hartzeko mekanismoak	- Tailerrak - Hezkuntza herrikoia
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Balioetan oinarritutako hezkuntza eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza.
Esperientziaren irismena	
Prozesuaren zailtasunak	Eskola-egutegiaren barruan eskuragarri dagoen denbora.
Beste ezaugarri gako batzuk	

15

Ekimenaren izena	PORTUGALETEKO AISIALDI SAREA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Portugaleteko Aisialdi Sarea
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketa arloa	Hezkuntza edo sozioheztzailea, aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Haur eta nerabeen profilak	Askotariko haur eta nerabeei zuzenduta dago ekimen hau. Taldean parte hartzen duten haur gehienak Portugaletekoak dira eta, zehazki, Peñota auzokoak, baina taldea zabalik dago edozein pertsona hartzeko, gaitasunak, jatorria edo beste bereizgarri batzuk kontuan hartu gabe. Begiraleak prestatuta daude askotariko errealitatei erantzun integratzailea emateko eta taldea zabalik dago horretarako.
	Taldeak zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen inklusiorako baliabideak ditu, laguntza komun bat baitu tasak ordaindu ezin dituzten pertsonak kanpoan ez geratzeko eta jardueretan parte hartzen jarraitu ahal izateko.

Dibertsitatearekiko arreta	Atzerriko pertsonak sartu direnean, jarduerak egokitu egin dira, pertsona horiek ongietorriak sentitzeko eta inklusioaren prozesu progresiboa eta egokia izateko, taldean ez ezik, baita udalerrian ere. Kasu honetan ez dago inolako dibertsitate-kasurik, baina, beharrezkoa izan denean, irakurketa errazera egokitu dira material batzuk edo espazioak egokitu egin dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.
Helburuak	Belatzak elkartearen helburu nagusia pertsona kritikoak eta gizartearekin konprometituak sortzea da, Euskalerriko Eskautak Bizkaiko edozein eskaut-talderen moduan. Eskaut-prozesuari esker, adin guztietako adingabeek dute aukera zer landu nahi duten eta zer proiektu garatu nahi dituzten erabakitzeo eta jarduera, bizikidetzeta edo kanpaldi bakoitza ebaluatuz, begiraleak gai dira arlo bakoitzeko (adin-taldea) iradokizunak, ideiak eta beharrak jasotzeko.
Parte-hartze mota	
Hezkuntza arloarekin lotuta	
Parte-hartze maila	
Parte hartzeko mekanismoak	
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Gogoetarako eta lanerako espazioak espazio seguruak bihurtzen dira, begiraleek prozesu horietan laguntzen dutelako, bizikidetzeta finkatu egiten delako taldean adosten diren arauen bitartez eta pertsonen artean eztabaidatzeko eta ideiak partekatzeko espazioa bihurtzen delako, errespetuan eta entzute aktiboan oinarrituta.
Esperientziaren irismena	Ekimenak bere fruituak eman ditu hasieratik eta taldeak eskaut-prozesu propietik ateratako begirale boluntarioak izan ditu beti. 16 urtetik aurrerako gazteek enpresak izeneko proiektuak sortzen dituzte haiek erabakitako hainbat gairen inguruan eta askotan inpaktua izaten dute inguruan; adibidez, lankidetzan aritzen dira udalerriko animalien aldeko elkarrekin, buruko osasunari edo bullyingari buruzko kontzientiazio-proiektuak egiten dituzte, etab.
Prozesuaren zailtasunak	Prozesu horien zailtasun nagusia haur eta nerabeen parte-hartzearen egonkortasuna izaten da; izan ere, askotan haur eta nerabeek ez dute prozesua amaitzen edo erdialdean hasten dute. Hala ere, ondo egokitu ohi dira eta ondo hartzen dute taldearen erritmoa. Bestalde, begiraleek geroz eta gutxiago luzatzen dute konpromisoa denboran zehar, hau da, begiraleek geroz eta urte gutxiagotarako konpromisoa hartzen dute.
Beste ezaugarri gako batzuk	Prozesu parte-hartzaile horien emaitzarik esanguratsuena trebeen (prozesua amaitzen duten 17-18 urteko gazteak) amaierako konpromisoa izaten da, boluntarioritza-proiektu baten parte izatea erabakitzen baitute, bai taldean bertan begirale gisa, bai intereseko beste talderen batean.

27

Ekimenaren izena	JÓVENES 88 GAZTEAK
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Jóvenes 88 Gazteak
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketara arloa	Hezkuntza edo soziohegitzaila, Aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Aisialdi hezitzailea
Ekimenaren formatua	Egitaraia
Inplikaturako eragileak	- Administrazio publikoa - Barakaldoko salesiarrak
Parte-hartzea sustatzen den arloa	Jarduerak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Tokikoa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra 1988tik
Aurretiazko prozesu baten parte	Beste etxe salesiar batzuetan antzeko taldeak egotea.
EKIMENAREN DESKRIAPENA	
Deskribapena	Haur, nerabe eta gazteentzako hezkuntza ez-formaleko aisialdi-taldea.
Haur eta nerabeen profilak	Hiri-ingurune eta maila soziokultural ertain/ertain-baxuko haur eta nerabeak.

Dibertsitatearekiko arreta	Edozein pertsonaren parte-hartzea sustatzen da, maila sozioekonomikoa edozein izanik ere (beka txikiak). Berezkoa da hori gure jarduerak planifikatzeko garaian eta boluntarioen ikuspegian. Harrera handiko jarduera da eta parte-hartzaileen errealitatera eta dibertsitatera egokitzen da (egokitzen fisikoak, intelektualak...).
Helburuak	Balioetan oinarritutako hezkuntza, aisialdi hezitzailearen bitartez.
Parte-hartze mota	
Hezkuntza arloarekin lotuta	
Parte-hartze maila	
Parte hartzeko mekanismoak	
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Balioetan oinarritutako hezkuntzak norbanakoaren autonomia pertsonala bilatzen du.
Esperientziaren irismena	Tokiko inpaktua, udalerriri eragiten dio. Barakaldoko hainbat ikastetxetako haur, nerabe eta gazteak ditugu. Gutxi gorabeherako partaide kopurua: 500 pertsona.
Prozesuaren zailtasunak	Zailtasun ekonomikoak, babes ekonomiko falta, dirulaguntzen falta... Batzuetan azpiegitura falta da.
Beste ezaugarri gako batzuk	

28

Ekimenaren izena	SAN VIATOR ESKAUT TALDEA KULTUR ELKARTEA
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	San Viator eskaut taldea kultur elkarte
Lurralde historikoa	Araba
Erakundearen jarduketara arloa	Hezkuntza edo soziohezitzailea, Aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Astean 2 orduko bilerak Bizikidetzatza-asteburua bi hilez behin 4 eguneko kanpaldia hiruhileko bakoitzean ikasturtean zehar
Ekimenaren formatua	Prozesua
Inplikaturako eragileak	San Viator ikastetxearekin eta Gasteizko Gazalbide/Txagorritxu auzoarekin lan egiten dugu sarean. Auzoko ekimenetan inplikatzeko. Administrazio publikoaren dirulaguntza ekonomikoak.
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Zerbitzuak - Politika publikoak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Landa eremua - Tokikoa
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra. 1968tik ikasturte bakoitzean
Aurretiazko prozesu baten parte	
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Eskautismoan oinarritutako hezkuntza ez-formala (ekintzaren aldeko hezkuntza, bizitza talde txikietan, konpromisoa, programa progresibo eta erakargarriak, natura). Jolasaren bitartez, balioetan oinarritutako formazioa jasotzen dute haurrek eta espiritu kritikoa garatzen dute beren buruarekiko eta ingurunearekiko. Halaber, trantsendentaltasuna garatzen dute.
Haur eta nerabeen profilak	8 eta 18 urte artean
Dibertsitatearekiko arreta	Bakoitzarentzako hezkuntza espezializatua garatzen da, jardueren esparru komun baten barruan. Jarduerak taldeko behar guztientzako inklusiboak izan daitezten bermatzen da. Dibertsitatea modu organikoan integratzen da jolasetan. Hala, dibertsitatea existitzen dela eta naturalki tratatu behar dela ikas dezaten espero da.
Helburuak	Etorkizuneko gizarte-eragileak izateko balioak dituzten eta boluntariotzaren bitartez eraldaketa sozialarekin konprometitzen diren pertsonak erakitzea.

Parte-hartze mota	
Hezkuntza arloarekin lotuta	
Parte-hartze maila	
Parte hartzeko mekanismoak	
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	16 eta 18 urte bitartean dituztenei, Gasteizen lan egiten duten erakunde edo elkarteen berri ematen zaie eta parte har dezaten animatzen dira, arazo sozialen bat hobetzeko.
Esperientziaren irismena	- Partaideak: 75 - Boluntarioak: 17 - Inplikaturako familiak: 25 baino gehiago.
Prozesuaren zailtasunak	Teknikoak: udako kanpaldi bat antolatzeko baldintza teknikoak betetzeko epeak eta ezagutzak. Hezkuntzakoak: gizartearen behar aldakorretara egokitzea lortzea, joera indibidualizatuak nagusitzen ari baitira.
Beste ezaugarri gako batzuk	

29

Ekimenaren izena	HIRUGAZTE
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Hirukide
Lurralde historikoa	Lurralde historiko batean baino gehiagoan
Erakundearen jarduketako arloa	Soziala-zeharkakoa
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Hirugazte lerroa, Hirukideko 15-25 urteko gazteen komunitatea, baina, kasu honetan, 10 urtetik gorako haur eta nerabeei daude zuzenduta jarduerak.
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	
Parte-hartzea sustatzen den arloa	Jarduerak
Garatzen den testuingurua	- Urbanoa - Landa eremua
Ekimenaren denboralitatea	Ekimen egonkorra 2022tik
Aurretiazko prozesu baten parte	
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	“Eraiki etorkizuna” zeharkako prestakuntza-proiektua 10 urtetik gorako haur eta nerabeei bideratua dago eta ikasteko tekniken eta matematiken meta-ikaskuntzaren ikastaroak, enpleguaren arloko hitzaldiak, gradu amaierako lanen tailerrak eta oposizioenak eskaintzen ditu eta horietatik ateratako prestakuntza-pilulak zabaltzen ditu. Egun, defizita hauteman daiteke ikasleen artean eta hori beti ez da ikasleen ezagutza edo gaitasun faltagatik. Ikasteko teknikak funtsezkoak eta garrantzitsuak dira, lana antolatzen, helburuak lehenesten, eskuragarri dauden baliabideak aprobetxatzen, denboraren erabilera efizienteagoa egiten eta etorkizunean ezagutza garatzeko teknika eta modu berriak garatzen laguntzen dutelako. Gazteen heziketan oinarri egonkorra finkatzea da etorkizuna eraikitzen laguntzeko lehen urratsa. Horregatik, Hirukideren prestakuntza-programaren barruan, ikasteko ohitura egokiak sustatzen dira lehen hezkuntzatik, unibertsitateko gradu amaierako lanari aurre nola egin jakiteko tailerrak, oposizioak prestatzeko tailerrak eta lan-munduarekin lotutako hitzaldi batzuk antolatzen dira, CVari buruz, lan-elkarrizketari buruz, etab.
Haur eta nerabeen profilak	Garrantzitsua da kontuan izatea haur eta nerabeak ez direla talde homogeen bat eta behar eta gaitasun desberdinak izan ditzaketela adinaren, generoaren, testuinguru sozioekonomikoaren, dibertsitate kulturalaren eta esperientzia indibidualen arabera.
	Genero-desberdintasunei erreparatuz eta ekimenak genero-berdintasuna sustatzen duela bermatuz. Hala, hainbat genero-identitatetako haur eta

Dibertsitatearekiko arreta	nerabeek parte hartzeko aukera-berdintasuna izatea eta haien ahotsak modu parekidean entzutea bermatuko da. Kultur identitateak aitortzea eta errespetatzea. Horretarako, ikuspegiak egokitu behar dira hainbat talde etniko eta kulturalen behar espezifikoak jorratzeko. Haur eta nerabeek adinaren eta garapenaren arabera autonomia-maila desberdinak dituztela aitortu behar da. Estrategia parte-hartzaileak maila horietara egokitu beharko dira, eta haur txikientzako zein nerabe autonomoagoentzako adierazteko eta parte hartzeko aukerak sortu. Azkenik, haur eta nerabeen parte-hartzean eragina izan dezaketen desberdintasun sozioekonomikoak kontuan hartu behar dira, ekimena guztientzat irisgarria izan dadin bermatuz, egoera ekonomikoa edozein izanik ere. Halaber, baliabide gehigarriak eskaini behar dira aukera-berdintasuna bermatzeko beharrezkoa bada (kuotak egokitu eta, are, diruz lagunduz). Jarduerak eta baliabideak ezartzeko garaian, generoarekiko sentiberak izatea bermatuko da. Horretarako, ikuspegiak egokitu dira genero-identitate desberdinetako haur eta nerabeen esperientziak eta beharrak kontuan hartzeko. Ebaluazioak genero-adierazleak hartzen ditu kontuan, ekimenak genero-berdintasunari eta parte-hartze parekideari dagokionez duen inpaktua neurtzeko. Ikuspegi inklusiboak eta moldagarriak gehitzen dira dibertsitatea kontuan hartzeko, haur eta nerabeak plangintzan eta erabakietan inplikatzeko dira eta kontsultak eta espazioak sortzen dira haur eta nerabeek iritzia eman ditzaten eta ekarpen aktiboa egin dezaten.
Helburuak	HELBURU OROKORRAK ▪ Autoezagutzarako tresnak ahalbidetzea ▪ Potentziala eta talentua garatzen laguntzea ▪ Hezkuntza-oinarri egonkorra sortzea ▪ Lehenesten ikastea ▪ Teknologien erabilera okerraren ondorioen eta arriskuen gainean gogoeta egitea ▪ Jarraibide eta ohitura osasungarri egokiak eskuratzea eta sustatzea HELBURU ZEHATZAK <i>Ikasteko tekniken eta matematiketako metaikaskuntzaren ikastaroen helburuak</i> ▪ Ikasketan jarrera aktiboa sustatzea ▪ Pertsona zaurgarriei laguntza ematea hezkuntzan ▪ Ikasteko ohitura egokiak sortzea ▪ Adingabeen hezkuntzako konpetentziak hobetzea ▪ Laburtzeko gaitasuna hobetzea <i>Hitzaldien eta enplegarritasun-tailerren helburuak</i> ▪ Helburu profesionalak definitzeko tresnak ematea ▪ Azterna digitalak hautaketa-prozesuetan duen garrantzia ikusaraztea ▪ Lan-elkarriaketa on baterako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea ▪ Gazteei Curriculum Vitae bat eta aurkezpen-gutun profesional bat egiteko beharrezko tresnak eta metodologiak ematea. ▪ Hitz gabeko komunikazioaren teknikak menderatzea ▪ Gorputz-hizkuntzak gutaz zer esaten duen ikastea <i>GRAL/MAL lanen hitzaldien helburuak</i> ▪ Eraginkortasuna handitzea hitz gabeko komunikazioaren bitartez ▪ Ideiak zehatz azaltzen ikastea ▪ Defentsaren edo aurkezpenaren egitura eta zati bakoitzaren denborak menderatzea ▪ Autoezagutza hobetzea ▪ Datuak ulertzeko eta asimilatze teknika ikastea ▪ Segurtasuna lortzea ▪ Komunikatzeko gaitasuna hobetzea <i>Kongresuaren helburuak</i> ▪ Gazteei prestakuntzako, hezkuntzako eta sentsibilizazioko neurriak eskaintzea, teknologien gehiegizko kontsumoaren eta kontsumo desagokiaren aurka egiteko ▪ Teknologiararen erabilera osasungarria, positiboa eta arduratsua handitzea

	Pantailekiko mendekotasunak osasun fisikoarentzat eta buruko osasunarentzat izan ditzakeen arriskuak ezagutzea
Parte-hartze mota	
Hezkuntza arloarekin lotuta	
Parte-hartze maila	
Parte hartzeko mekanismoak	
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Haur eta nerabeen ahalduak esan nahi du beren iritzia adierazteko, erabaki informatuak hartzeko eta ingurunean ekarpen esanguratsua egiteko ezagutzak, gaitasunak eta baliabideak eskaintzea. Prestakuntza-proiektu horrek baliabideak eta tresnak ematen dizkie pentsamendu kritikoa, sormena eta gaitasun sozialak garatzea sustatzen dituen hezkuntzarako sarbidea bermatzeko. Haur eta nerabeei aholkularitza eta laguntza ematea, ideiak modu eraginkorrean artikulatzeko eta erabakiak hartzeko prozesua ulertzeko.
Esperientziaren irismena	EAEko haur eta nerabeak
Prozesuaren zailtasunak	
Beste ezaugarri gako batzuk	

30	
Ekimenaren izena	ALKATEGAIAK
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Save The Children Fundazioa
Lurralde historikoa	Lurralde historiko batean baino gehiagoan
Erakundearen jarduketako arloa	Garapenerako nazioarteko lankidetzak
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Haurren parte-hartzearen gaineko teknikari adituekin lan egiten duen arlo espezifiko (kalitatearen unitatea eta ebidentziak). Gainera, beste arlo batzuetan ere zabaltzen da parte-hartzea, profesionalen eta hezitzaileen bitartez.
Ekimenaren formatua	Egindako hainbat prozesu
Inplikaturako eragileak	- Administrazio publikoa - Sektoreko beste erakunde batzuk: - Komunitatea - Zerbitzu komunitarioak
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak - Zerbitzuak - Politika publikoak
Garatzen den testuingurua	- Tokikoa - Komunitarioa - Asoziatiboa
Ekimenaren denboralitatea	Puntuala Hauteskundeak daudenean. Komunitateko jaietakoa maiatzan egiten da.
Aurretiazko prozesu baten parte	Antzeko beste prozesu batzuk egin dira aurretik. Elkarrekin lan egiteko espazioak daudenean, beste lurralde batzuetan egindakoa ikasten da.
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Euskadiko udal-hauteskundeak egin zirenean, prozesu parte-hartzaile bat egin zen hurrekin Barakaldoko gure zentroan. Prozesu horren bidez proposamenak aurkeztu ziren eta galderak egin zizkieten alkategaiei. Auzoko jaiak antolatzea: Jai-batzordearekin batera, komunitatearentzako hainbat jardura egin dira, haurren interesak eta iritzia aintzat hartuz. Halaber, haurrek garatu eta programatu dituzte jarduerak. Gobernantza-taldea: Save the Childreneko patronatua (erakundean hartzen diren erabakietan egoteko)
Haur eta nerabeen profilak	Parte hartzeko eta haien ahotsa entzuten dela bermatzeko interesa duten haur eta nerabeak. Prozesu zehatz batzuk daude, hala nola eguneroko gauzetan iritzia emateko garaian haur eta nerabe guztiak hartzen dira kontuan, baina egia da halako prozesuetan parte hartzen dutenak kanporakoiagoak izaten direla.

Dibertsitatearekiko arreta	Save the Childrenek balizko zaurgarritasun-egoera ekonomikoan eta/edo sozialean dauden adingabeekin lan egiten duela jakinda, edozein prozesu integratzen saiatzen gara, gure proiektuetako haur eta nerabe guztiek parte har dezaten, haien egoera edozein izanik ere. Zentroa kulturartekoa da izatez eta edozein prozesu egiteko garaian kultura guztiak hartzen dira kontuan. Bestalde, Save the Childrenek berdintasun-politika bat du eta hori kontuan izan behar da lanean aritzeko garaian, baita prozesuak egiteko garaian ere. Prozesuak parte-hartzaileen ezaugarrien arabera egokitzen dira.
Helburuak	- Haurren iritzia eta parte-hartzea ikusaraztea - Haurrek gizartean parte-hartze erreala izan dezaten lortzeko aurrerapausoak ematea
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	Ez
Parte-hartze maila	- Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	- Batzarrak - Galdetegiak - Talde parte-hartzaile propioa
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Bai, jarduerak planifikatzean eta gaitasunak garatzean.
Esperientziaren irismena	10 haur inguruk hartu dute parte. Ekimenak kopia egin daitezke. Normalean, sare sozialekin zabaldu dira, eta, batzuetan, baita komunikabideetan ere (tokikoetan gutxienez).
Prozesuaren zailtasunak	Inplikaturako eragileak itzultzea falta da (alkategaiek, adibidez, hauteskundeak amaitu ondoren itzultzea zin egin zuten, baina ez dute hala egin).
Beste ezaugarri gako batzuk	Ebaluazioak egiten dira parte-hartzaile adingabeekin prozesuak amaitzean.

31

Ekimenaren izena	UMEAK KALEAN
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Umeak Kalean
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketako arloa	Hezkuntza edo soziohegitzatzailea, Aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
Ekimena garatzen den erakundearen arloa	Erakundearen arlo eta proiektu guztietan. Programak eta proiektuak jorratzeko elementu hauek hartzen dira kontuan: - Entzute aktiboa, behar eta errealitate indibidualak eta taldekoak kontuan hartuz. - Pertsonen hazkunderako hezkuntza-prozesuak eta -proiektuak sustatzea espazio seguruetan, irekietan eta inklusiboetan, tratu oneko harremanetan oinarrituta. - Hezitzaileen laguntzarekin eta parte-hartzaileak hezkuntza-prozesuaren protagonista aktibotzat hartuz, ikuspegi integraletik. - Aisialdi eta Denbora Libre Hezitzaileko jardueren bidez. - Garatzen diren hezkuntza-prozesuetan familiak inplikatuz. - Ingurune komunitarioko erakundeekin (gurasa-elkarteak, ikastetxeak, kirol-taldeak, auzo-elkarteak...) lankidetzan arituz eta inplikatuz, sareko lanaren ikuspegitik. - Parte-hartzaileen partaidetza eta inplikazio aktiboa ahalgunduz eta sustatuz, inguru hurbileko prozesu komunitarioetako hezkuntzako eragileak izateko. - Pertsonen zein prozesuen etengabeko autoebaluazioa, berrikuntza eta garapena. - Gizarte-zerbitzuekin, ikastetxeekin eta osasun-zentroekin koordinatuta: ongizatea eta haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako babesa bermatzen duten eragileak. - Gure proiektuen barruan arreta berezia jartzen diegu zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen.

	11. Administrazio publikoarekin lankidetzan, gure auzo eta herrien garapen komunitarioa hobetzeko.
Ekimenaren formatua	Prozesua
Inplikaturako eragileak	- Haurrak, nerabeak eta gazteak - Familiak - Komunitatea (ikastetxeak, guraso-elkarteak, auzo-elkarteak...) - Beste erakunde batzuk
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak - Zerbitzuak
Garatzen den testuingurua	- Tokikoa - Komunitarioa
Ekimenaren denboralitatea	
Aurretiazko prozesu baten parte	
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Erakundea bera da parte hartzeko esperientzia. Umeak Kanean irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta Bilboko 5. barrutiko haur eta gazteei zuzendutako Aisialdirako baliabidea sortzea du xede. Barruti hori alde Zaharrean dago fisikoki kokatua. 2005ean sortu zuten erakunde hauek: Zazpikaleetako Jatorrak Eskaut Taldea, Atxuriko Biharko Gazteak Gazte Elkarte, Gizarte Ekintzaren arloko Bidegintza Kooperatiba eta EDE Fundazioa.
Haur eta nerabeen profilak	Haur, nerabe eta gazte guztiak
Dibertsitatearekiko arreta	
Helburuak	5. barrutiko auzoetako gazteak eta Bilboko beste barruti batzuetakoak, zein Bizkaiko beste udalerri batzuetakoak elkartzeko espazio bat sortzea. - Tokiko erakundeek gazteekin garatutako ekintzak sustatzea. - Gazteen proiektu bat garatzea, gure auzoetako haurrek, nerabeek, gazteek eta gurasoek parte har dezaten.
Parte-hartze mota	Parte-hartzailea
Hezkuntza arloarekin lotuta	
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundean edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	- Batzarrak - Galdetegiak - Talde parte-hartzaile propioa
Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Bai, parte hartzen duten zentroaren antolakuntzan, jardueren plangintzan, jardueren kudeaketa ekonomikoan, prestakuntzan eta gaikuntzan, gaitasunen garapenean, autobabesean...
Esperientziaren irismena	
Prozesuaren zailtasunak	
Beste ezaugarri gako batzuk	

32

Ekimenaren izena	HARROBIA ETA ETORKIZUNA ERAIKIZ
EKIMENAREN IDENTIFIKAZIOA	
EHSSko erakundea	Kiribil Sarea
Lurralde historikoa	Bizkaia
Erakundearen jarduketara arloa	Hezkuntza edo soziohegitzaila, Aisialdia barne
Lantaldearen konposizioa	Boluntarioak eta ordainpekoak
	Erakundearen arlo eta proiektu guztietan. Programak eta proiektuak jorratzeko elementu hauek hartzen dira kontuan: 1. Entzute aktiboa, behar eta errealitate indibidualak eta taldekoak kontuan hartuz.

Ekimena garatzen den erakundearen arloa	2. Pertsonen hazkunderako hezkuntza-prozesuak eta -proiektuak sustatzea espazio seguruetan, irekietan eta inklusiboetan, tratu oneko harremanetan oinarrituta. 3. Hezitzaileen laguntzarekin eta parte-hartzaileak hezkuntza-prozesuaren protagonista aktibotzat hartuz, ikuspegi integraletik. 4. Aisialdi eta Denbora Libre Hezitzaileko jardueren bidez. 5. Garatzen diren hezkuntza-prozesuetan familiak inplikatur. 6. Ingurune komunitarioko erakundeekin (guraso-elkarteak, ikastetxeak, kirol-taldeak, auzo-elkarteak...) lankidetzan arituz eta inplikatur, sareko lanaren ikuspegitik. 7. Parte-hartzaileen partaidetza eta inplikazio aktiboa ahaldunduz eta sustatuz, inguru hurbileko prozesu komunitarioetako hezkuntzako eragileak izateko. 8. Pertsonen zein prozesuen etengabeko autoebaluazioa, berrikuntza eta garapena. 9. Gizarte-zerbitzuekin, ikastetxeekin eta osasun-zentroekin koordinatuta: ongizatea eta haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako babesa bermatzen duten eragileak. 10. Gure proiektuen barruan arreta berezia jartzen diegu zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen. 11. Administrazio publikoarekin lankidetzan, gure auzo eta herrien garapen komunitarioa hobetzeko.
Ekimenaren formatua	Proiektua
Inplikaturako eragileak	
Parte-hartzea sustatzen den arloa	- Banakako esku-hartzea - Jarduerak
Garatzen den testuingurua	- Tokikoa - Komunitarioa - Eskolakoa
Ekimenaren denboraliteta	Puntuala
Aurretiazko prozesu baten parte	
EKIMENAREN DESKRIBAPENA	
Deskribapena	Harrobia eta etorkizuna eraikiz ekimenean parte hartzeko ibilbidea. Gazteek parte hartzeko hezkuntzaren arloko ibilbidea da, eta gazteek modu autonomoan eta aktiboan parte hartzeko ikaskuntza-esperientzia bat sortzen du, eremu horretan bizikidetzat eta ehundura soziala sustatzeko. Ekintza kolektiborako gaitasunak eta konpetentziak gehitzen dituzte gazteek ibilbide horretan. Ingurunearekin konektatutako ekintza, eta modu sakonagoan motibatzen dituzten arrazoi solidarioak ezagutzeko prozesuaren baitan. Komunitateko hainbat sektore inplikatzeko ditu. Hezkuntza formala, ez-formala eta informala uztartzen ditu prozesu berean, adin-taldeetara egokitutako proposamen didaktikoak artikulatur; 12-13 urterekin hasiz Harrobiarekin eta 18-20 urtera arte.
Haur eta nerabeen profilak	12 eta 20 urte arteko haur, nerabe eta gazteak.
Dibertsitatearekiko arreta	
Helburuak	13 eta 20 urte bitarteko gazteek parte hartzeko prestakuntza-ibilbidea ahalbidetzea hezkuntzan. Gazteen autonomia handitzea, haien behar eta interesetatik. - Gazteek taldean lan egiteko dituzten gaitasunak hobetzea. - Gazteek udalerriko bizitza sozialean duten parte-hartzea sustatzea - Ikaskuntza-esperientzia kooperatiboak eta balioetan oinarritutakoak sustatzea.
Parte-hartze mota	Parte hartzailea eta boluntarioa
Hezkuntza arloarekin lotuta	
Parte-hartze maila	- Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean - Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan - Modu kolektiboan, erakundearen edo instituzioan
Parte hartzeko mekanismoak	
	Lan kolektiborako beharrezkoak diren gaitasunetan, sentsibilizazio solidarioan eta hezkuntza emozionalean zentratzen da. Barrutik hasi eta kanpora joatea. Pertsonen arteko harremanak garatzeko behar diren gaitasunak hobetzea.

Parte-hartzea sustatzeko konpetentziak garatzea	Elkarrenganako ezagutza, ideien eta esperientzien trukea, elkarriketa, taldeko kohesioa eta talde baten parte izatearen sentimendua sustatzea. Gogoetarako, komunikatzeko eta entzuteko gaitasuna sustatzea. Gauzak egiteko beste modu batzuk eta antolatze, komunikatzeko eta taldean lan egiteko aukera berriak ezagutzea. Inguruan dutenaren gaineko kontzientzia kritikoa lortzea.
Esperientziaren irismena	
Prozesuaren zailtasunak	
Beste ezaugarri gako batzuk	

5. HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA EAE-N: SUSTATZEN ETA INDARTZEN JARRAITZEKO OINARRI PARTEKATUAK ETA ILDOAK

Atal honetan zehar erakundeek betetako galdetegietatik ateratako ondorioak jorratuko dira eta, batez ere, haur eta nerabeen parte-hartzearen arloan oinarri partekatu batzuk adosteko hainbat eragilerekin egindako tailerretik ateratakoak. Hortaz, gakoak gogoeta partekatu batetik sortu dira. Gogoeta horretan, elkarriketa ideia zabal edo orokorren gainekoa izan da, inspirazio gisa ia. Halaber, parte-hartzaileek haur eta nerabeen parte-hartzean inplikaturako eragile jakin baten posiziotik jardun beharrean, elementu orokorragoen eta partekatuen gainean artikulatu zuten elkarriketa.

Atala lau bloketan egituratzen da eta parte-hartzearen definizioa eta testuingurua, prozesuaren elementu sustatzaileak, prozesua zailtzen duten elementuak eta, azkenik, aurrera jarraitzeko ildoak jorratuko dira.

5.1 Parte-hartzearen definizioa eta testuingurua

Haur eta nerabeen partaidetzaren kontzeptuak bilakaera nabarmena izan du denboran zehar. Iraganean, haur eta nerabeen parte-hartzea kontsultarako edo parte-hartze sinbolikorako soilik izaten zen maiz. Hala ere, azken hamarkadan, paradigma-aldaketa bat izan da eta haur eta nerabeak eskubidedun subjektu gisa eta erabakiak hartzeko garaian ekarpen esanguratsua egin dezaketen eragile sozial gisa aitortu dira.

Paradigma-aldaketa horrek haur eta nerabeen parte-hartzea artikulatzeko oinarri partekatuak finkatzea, parte-hartze prozesuen bidez artikulatzen diren eragileak identifikatzea eta parte-hartze eraginkorra izateko zer konpetentzia garatu beharko liratekeen ezartzea dakar.

5.1.1 Haur eta nerabeen parte-hartzea artikulatzeko oinarri partekatuak

Lehenik eta behin, haur eta nerabeen parte-hartzea artikulatzeko funtsezko oinarria **askatasunaren eta boluntariotzaren printzipioa** da. Izan ere, nerabe bakoitzak berak nahi duen heinean hartuko du parte prozesu horietan eta eragiten dioten arlo guztietan izango du erabakietan parte hartzeko aukera. Hirugarren sektore sozialeko erakundeetan bertan jardueren plangintzan eta ebaluazioan parte hartzea sustatzen da; batzarren, bileren, foroen edo bestelakoen bidez.

Halaber, komeni da **parte-hartze informatua** izatea eta horretarako beharrezkoa da eragile guztien interesa eta konpromisoa bermatzea, adingabe bakoitzak informazio irisgarria eta bizi-etapa eta ezaugarri indibidual bakoitzera egokitua izan dezan sarbideari, parte hartzeko espazioei eta prozesuei, parte-hartze horren helburuei, espero diren emaitzei eta kontuak emateari dagokionez. Hortaz, **eskubideen esparru** argia izan beharko du oinarrian, adingabeek parte-hartzea eskubidea dela eta legez ezarrita dagoela jakin dezaten.

Eskubideen esparru argi eta ulergarri batetik ezartzean, **parte-hartzea aktiboa eta protagonismoduna** bihurtzen da eta norbere gaitasunei eta erabakiak hartzeko eta antolatzeko

ahalmenari garrantzia emateko aukera ematen du, prozesuan errazago inplikatzearekin batera. Ildo horretatik, funtsezkoa da prozesuak ez instrumentalizatzea eta prozesu horiek haur eta nerabeek proposatzen dutenari erantzutea.

Beste oinarri garrantzitsuetako bat da **parte-hartzea irekia, moldagarria eta inklusiboa** izatea eta **parekidetasuna** oinarri izatea. Hala, adingabe guztiek parte hartzeko eta entzunak izateko aukera berdinak izan ditzaten bermatzen da, haien ezaugarri indibidualak eta sozialak edozein izanik ere, eta baldintza berdinetan parte har dezakete edozein prozesutan. Elementu horien gainean oinarritun espazioak sortzeko, **segurtasuna** da funtsezko elementua.

Ezinbestekoa da parte-hartzea **haur eta nerabeen ahalduztzera** bideratuta egotea eta horiek eskubidedun eta erabakiak hartzeko gaitasundun subjektutzat hartzea. Hala, indartze-ikuspegi horrek parte-hartzea babesteko funtzioa sustatuko du.

Horrez gain, **espazio gidatua eta/edo lagundua** izan dadin sustatu behar da, **baina ez du espazio zuzendu bat** izan behar, eta belaunaldien arteko **entzute-prozesuak** egin behar dira, helduen erreferentzia-figuretan rol-aldaketak izateko, eta hala, **elkarren artean sortutako prozesuak** ahalbidetzeko eta sustatzeko, adingabeak prozesuaren fase guztietan txertatuz, diseinutik hasi eta ebaluazioraino. Horregatik, erakundeak autogestionatutako ekimen parte-hartzaileak sustatzen saiatzen dira, ideia interesgarri eta berritzaileetan oinarrituta. Ideia horiek transferigarriak izan behar dute aldi berean.

Beste alderdi garrantzitsuetako bat **parte-hartze kolektiboa** da (taldea, komunitatea, asoziazionismoa...), **balio komunitarioak** sustatzen baititu, besteak beste, elkartasuna, lankidetzeta eta elkarrenganako errespetua. **Interakzioan** oinarritutako parte-hartze horren esparruan haur eta nerabeek loturak eta harremanak sor ditzake berdin taldeko beste pertsona batzuekin, bai eta erreferentziazko pertsonekin ere, eta parte hartzeko plataformak finkatu ditzakete beren ezinegonei eta beharrei talde-egitura batetik erantzuteko. EHSSko erakundeetan, espazio mikro eta seguruago horietatik abiatzen da, parte-hartzea beste espazio zabalago batzuetara zabaltzeko. Horri dagokionez, presentzia izatea garrantzitsua da testuinguru parte-hartzaileak garatzeko, baina hori posible ezin denerako plataformak edo bide alternatiboak eskaini behar dira beti.

Azkenik, parte-hartze prozesu oroko **itzulera eta/edo kontuak ematea** izatea komeniko litzateke, parte-hartze horrek izan duen inpaktu errealearen (**eragiteko gaitasuna**) berri izan dezaten adingabeek eta, hala, ekimenekiko konpromisoa eta lotura garatu dezaten.

5.1.2 Haur eta nerabeen parte-hartzeak interpelatzen dituen eragileak

Haur eta nerabeen parte-hartzearen kasuan, komeni da kontuan hartzea testuinguru sozialarekin, instituzionalarekin eta politikoarekin zerikusia duten ezaugarri parte-hartzaileekin lotutako **makro-faktoreak**; parte-hartzea garatzen den ehundura sozial eta instituzionaleko ezaugarri parte-hartzaileekin lotutako **meso-faktoreak**; eta adingabeen parte-hartzearentzako desiragarriak diren konpetentziei erreferentzia egiten dieten **mikro-faktoreak** baita harremanak eta loturak sortzen diren eguneroko interakzio-esparruak ere. Faktore horiek aintzat hartuta, esparru horretan aritzen diren eragileak aipatuko ditugu jarraian.

Haur eta nerabeen parte-hartzean eraginik handiena duen eragileetako bat **familia** da, **lehen mailako sozializazio-eragilea** baita eta haur eta nerabeek afektua, atxikimendua, balioak, kontzientzia morala, gaitasun sozialak, mugak eta abar jasotzen baitituzte esparru horretan. Familia motak eta hainbat faktoreekin lotutako (sozioekonomikoak, familiaren egitura, ingurunea...) bizi-baldintzek eragina izango dute haur eta nerabeek garatzen dituzten kompetentzietan eta kalitatean. Kontuan izan behar da haur eta nerabeen zaintzaren erantzukizuna, eta, ondorioz, kompetentzien garapenarena, ez litzatekeela soilik familien gain egon behar. Hortaz, garrantzitsua da familiei laguntzea eta indartzea eta beste eragile batzuek ere sartzeari, ingurune seguru eta egokia eskaintzeko eta maila guztietan erabateko garapena izateko. Esaterako, babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden haur eta nerabeen kasuan, funtsezkoa da haien parte hartzeko eskubidea bermatzea eta eskubide hori behar bezala gauzatzeko beharrezko laguntza ematea.

Adingabeen babes-sisteman edo sistema judizialean dauden haur eta nerabeen kasuan, baliabideek eta/edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuek sustatuko dute parte-hartzea baliabideen programen eta jardueren barruan prozesu parte-hartzaileak diseinatzeko eta ezarri, eta kompetentziak eskuratuz esku-hartze sozialeko profesionalen orientazioari esker.

Hortaz, izan familiaren ingurunean zein beste batzuetan, ezinbestekoa da komunikazio irekia eta errespetuzkoa izatea, eta haur eta nerabeak entzunak eta baloratuak sentitzea. Gurasoek eta erreferentziazko beste figura batzuek haur eta nerabeek beren iritzia adierazteko, erabakiak hartzeko eta familiako kontuetan parte hartzeko duten gaitasuna aitortu behar dute, eta autonomia eta erantzukizuna sustatu behar dute txikiak direnetik.

Bigarren mailako sozializazio-eragileen kasuan, **hezkuntza arloa** da horietako bat, ezagutzak eta kompetentziak eskuratzeko garaian funtsezkoa izatean gain, erreferentziazko figurekin partekatutako arauak garatzen direlako eta berdinen artean sozializatzeko testuinguru garrantzitsua delako, besteak beste.

Hezkuntza arloko haur eta nerabeen parte-hartzea irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren zeharkako elementu gisa sustatu behar da. Horri dagokionez, haur eta nerabeek iritzia emateko, erabakiak hartzeko garaian parte hartzeko eta haien interesei eta beharrei erantzuten dieten proiektuak garatzeko espazioak edo prozesuak sortu ditzakete ikastetxeek. Hortaz, komenigarria litzateke ikastetxeak ezagutza eskuratzeko espazioak ez ezik, espazio inklusiboak, ahalduntzaileak eta parte-hartzea sustatzekoak izatea.

Ikastetxeek **curriculumaz gaindiko jarduerak** ere sustatzen dituzte eta geroz eta ohikoagoa da boluntariotzan, belaunaldien arteko topaketetan, ingurumenaren zaintzan eta abarretan oinarritutako balioen ikaskuntzaren bidez parte-hartzean oinarritutako jarduerak sustatzea. Halako ekintzek hurbileko ingurunean parte hartzeko ohitura sortzen dute eta parte izatearen sentimendua sustatzen da interesak eta kode komunak partekatzeko berdinen taldeen bitartez.

Unibertsitateek eta lanbide-heziketako zentroek haur eta nerabeekin esku hartuko duten etorkizuneko profesionalen prestakuntzan izango duten rola ere hartu da kontuan. Haur eta nerabeen parte-hartzeari dagokionez prestakuntza sendoa sustatzeak eta horrek dakarren guztiak (dibertsitatearekiko arreta, kompetentziak, berrikuntza...) inpaktu positiboa izan dezake ekimen parte-hartzaile irekietan, aktiboetan, ahalduntzaileetan eta abar, bai eta helduen rol-aldaketan ere. Horrez gain, bi eragileek rol garrantzitsua dute ikastetxeetan adin goiztiarretatik

hasitako parte-hartzearekin jarraitzeko, eta pertsona bakoitzaren bizi-etapa guztietan jarraitu beharko litzateke hori sustatzen.

Komunitateak haur eta nerabeen prozesu parte-hartzaileetan duen harrera-rola ere garrantzitsua da, loturak eta konpromiso soziala sortzen dituelako eta haur eta nerabeei zuzendutako geroz eta neurri gehiago hartzen dituelako, ikuspegia haietara egokituz.

Esparru horretan, **hirugarren sektore sozialeko** erakundeak, haien dibertsitate eta heterogeneotasun guztian, eragile garrantzitsuak dira haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko garaian, eta bereziki haur eta nerabeekin lan zuzenagoa egiten duten horien kasuan, parte-hartzea indartzeko, horretarako aukerak eskaintzeko, babes eta laguntza emateko, parte hartzeko gaitasun garrantzitsuak lantzeko, etab.

EHSSren barruan, **aisialdi hezitzailea** da haur eta nerabeen parte-hartzearen kasuan garapen historikorik handienetakoa izan duen arloa, haur eta nerabeen protagonismoa eta parte-hartzea sustatzen duten metodologiak eta pedagogiak garatu baititu.

Gainera, aisialdi hezitzaileko erakundeek parte hartzeko baldintza egokiak dituzte, besteak beste proiektu sozio-hezitzaile boluntarioak, eskaintza handia eta egonkortasuna denboran zehar, erreferente gazteak, aisialdiaren eta jolasaren aldagaia eta berdinen arteko lotura sendoak sortzea. Hortaz, prozesu parte-hartzaile eraginkorrak izateko beharrezko konpetentziak eskuratzeko eta garatzeko espazioak izateaz gain, parte hartzeko ekimenak esperimintatzeko espazio ere bihurtzen dira.

Haur eta nerabeak hainbat espaziotan sartzen dira, hala nola hezkuntzan, curriculumaz kanpoko jardueretan, hirugarren sektore sozialean eta komunitatean. Horrek interes berdinak dituzten berdinen arteko harremanak sustatzen ditu eta, hala, laguntasun-harremanak sor daitezke, sozializatzeko eta, are, komunitateetan edo auzoetan zuzenean edo zeharka parte hartzeko espazioak eratuz.

Komunikabideak ere bigarren mailako sozializazio-eragile garrantzitsuak dira eta rol garrantzitsua dute haur eta nerabeen parte-hartzea bultzatzeko garaian, haur eta nerabeentzako informazio irisgarria, egokia, egokitua eta garrantzitsua eskaintzeko erantzukizuna baitute.

Ildo horretatik, garrantzitsua da urteetan zehar haur eta nerabeen egunerokoan sartuz joan diren **teknologia digitalen** rola ere nabarmentzea. Espazio horietan protagonista sentitu daitezke, euren hizkera bera erabiltzen duten berdinen taldeekin erlazionatu daitezke, kode propioekin, eta parte izatearen sentimendua indartzen dute. Horri esker, haurtzaroan eta nerabezaroan ezinbestekoak diren alderdiei erantzuten diete.

Halaber, plataforma digitaletan beren gustu eta interesetako asko jasotzen dira eta helduen kontrolik eta bitartekotzarik gabeko ingurune librean bihurtzen dira. Ingurune digitalak haur eta nerabeentzako eguneroko ingurunea dira eta bertatik edukiak eta informazioa eskuratzetik gain, interakzioa izaten dute beste batzuekin. Horregatik, aurrez aurrekoak ez diren parte hartzeko espazioak sortzeko garaian aztertu beharreko bitartekoa izan daiteke plataformak eta tresna digitalak erabiltzea, aurrez aurreko modalitatean egin ezin duten adingabeek ere parte har dezaten.

Azkenik, tokiko, aldundiko eta erkidegoko **erakunde publikoek** rol garrantzitsua betetzen dute parte hartzeko esparruak sustatzeko garaian. Horri dagokionez, garrantzitsua da haur eta nerabeei informazio irisgarri eta garrantzitsua eskaintzea edo haien iritziak modu librean adierazteko eta eztabaida publikoetan parte hartu ahal izateko plataformak finkatzea, haur eta nerabeek parte hartzeko, errespetatzeko eta garrantzia emateko kultura ezartzeko politika publikoetan.

5.1.3 Parte hartzeko konpetentziak

Iritzi desberdinak daude haur eta nerabeen parte-hartze hezitzaileari dagokionez, hau da, ea haurren parte-hartzea konpetentzien erdiespenean eta garapenean oinarritu behar den. Finkatuta dago parte hartzeko ez dela aurretiazko konpetentziarik eskatu behar, baina prozesu parte-hartzaileak berak konpetentziak garatzea sustatu behar du, bizi ikaskuntzarako prozesua delako; bereziki, haur eta nerabeek parte-hartze eraginkorra izatea baldin bada xedea. Hortaz, parte-hartzea **prozesu pedagogikotzat** hartzen bada, berezkoa izango litzateke konpetentziak eskuratzea.

Agertoki ideal batean, ez litzateke beharrezkoa izango parte hartzeko konpetentziak eskuratzea, pertsonen sozializazio-prozesu propioetan garatutako konpetentzia naturalak izango liratekeelako. Alabaina, egungo testuingurua agertoki horretatik urrun dago eta, horregatik, komeni da nabarmentzea beharrezkoa dela konpetentziak garatzea ikuspegi pedagogikotik parte hartu ahal izateko. Testuinguru horretan, garrantzitsua da haur eta nerabeak diren moduan ikustea eta ez heldu potentzial gisa edo amaitu gabeko, konpetentziarik gabeko edo heldu gabeko zerbaiten gisa. Hala, haur eta nerabeen berezko balioa aldarrikatzen da.

Gainera, komeni da komunitateak kide guztiei eskatzen dizkien konpetentziak eta balioak eskuratzea haur eta nerabeek eta ez soilik haur eta nerabeei eskatzen zaizkien konpetentzia espezifikoak. Hala, ikuspegi helduzentrista eta mendekotasun-harremana izatea ekidingo da. Hortaz, pertsona guztiek, beren bizi-zikloko momentu desberdinetan, parte-hartze sozialerako prozesuen bitartez gara ditzaketen konpetentzietan jarri behar da arreta.

Halaber, parte hartzeko konpetentziak garatzea benetako parte-hartzearen aurreko urratsa da. Konpetentzia horiek **konpetentzia metodologikoak** dira eta haur eta nerabeak ahalduntzea eta parte hartzeko eta entzuten eta kontuan hartzen dituzten espazioetan egoteko eskubidea dutela jakinaraztea dute xede. Hori ez da bateraezina prozesu parte-hartzailean zehar konpetentziak eskuratzen edo indartzen jarraitzearekin.

konpetentziak eskuratzeko **prozesu hori bi norabidekoa** izatea komeniko litzateke, helduek ere konpetentziak gara ditzaten, besteak beste, bidea ez markatzea, isiltzen ikastea, aurreko esparruak desikastea, harreman horizontalak sortzea, autonomia ematea... Adibidez, egungo haurren kontseiluak oso erabilgarriak izaten ari dira helduentzat haurren parte-hartzean murgiltzeko eta haur eta nerabeekin entzute-roletik erlazionatzeko, helduzentrista moa ekidinez.

Prozesu parte-hartzaileetarako konpetentzia gakoan artean daude **komunikatzeko gaitasuna** eta ideiak adierazteko eta elkarrizketa eraikitzaileetan parte hartzeko **asertibitatea**. Horrez gain, **entzute aktiboa** ezinbestekoa da ikuspegi desberdinak ulertzeko eta akordioetara iristeko, eta espazio parte-hartzaileak dinamizatzen dituzten helduek ere erabili beharko lukete. Parte-hartzeak **babes-funtzioa** izan behar du: haien iritziak adieraztera eta iritzi horiek aintzat hartzera

ohituak dauden haur eta nerabeentzat errazagoa da tratu txarrak, abusuak edo arduragabekeria salatzea. Hortaz, parte-hartzea autobabeserako tresna bat ere bada.

Halaber, **enpatiak** aukera ematen du besteen emozioak eta ikuspegiak ulertzeko eta horiekin konektatzeko, lankidetzarako eta elkarren artean ulertzeko harremanak sustatuz. Horri esker, gatazkak konpontzeko eta erabakiak modu kolektiboan hartzeko akordioak egiteko gaitasuna garatu daiteke. Esparru horretan, **errespetua** zeharkako balioa da eta interakzio guztiak gidatu behar ditu, konfiantzazko giroa eta lankidetzak sustatzeko. Konpetentzia horiek garatzeko **malgutasuna** sortzen du eta hainbat egoera eta ikuspegitara egokitzeko aukera ematen du, elkarriketak sortzea eta soluzio sortzaileak bilatzea sustatuz. **Lidergoa** ere ezinbestekoa da, iniziatiba izateko, beste batzuk inspiratzeko eta aldaketa-prozesua gidatzeko gaitasuna ematen baitu.

Komunitarioaren eta publikoaren gaineko ezagutza izateak testuingurua ulertzen laguntzen die haur eta nerabeei eta eragiten dieten gaietan parte-hartze informatua izateko aukera ematen die. **Pentsamendu globalak, guztien onurak eta elkartasunak** haur eta nerabeen ikuspegia zabaltzen dute eta haien ekintzen inplikazioak testuinguru zabalago batean ulertu eta komunitate osoari on egingo dioten soluzioak bilatzen laguntzen diete. **Portaera prosozialak** funtsezkoak dira komunitate sendoak eta kohesionatuak sortzeko, besteak beste, elkartasuna eta altruismoa.

Hori dela eta, **konpromisoa eta erantzukizuna** funtsezkoak dira parte-hartze eraginkor baterako, erabakiak hartzeko garaian rol aktiboa izatea eta haien ekintzen erantzule izatea dakartelako, bai haiei dagokienean, bai gainerakoei dagokienean.

Konpetentzia horiek modu integralean eta batera garatuz gero, haur eta nerabeak gai izango dira guztiontzako etorkizun bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzeko garaian parte-hartze aktiboa izateko.

5.2 Prozesu parte-hartzaileak sustatzeko elementuak

Haur eta nerabeen prozesuak sustatzen dituzten elementuei dagokienez, askotariko ideiak sartzen diren arren jokoan, badirudi adostasuna dagoela nagusien gainean. Parte hartzeko testuinguruarekin, parte hartzeko prozesuarekin eta garatzeko beharrezko baldintzek daude lotuta horiek.

5.2.1 Parte-hartzearen testuinguruari dagokionez

Lehenik eta behin, jarduketa-esparru sendoa izateak parte hartzeko eskubidea bermatzen du eta eraikitzen jarraitu ahal izateko leku bat eskaintzen du. **Arau-esparruek** egonkortasuna sortzen dute eta konpromiso politiko eta soziala erakustez gain, jarduketa orientatzen dute, gutxieneko batzuk bermatuz. Hala ere, komeni da esparru horiek mugatzaileak ez izatea eta derrigortasunean eta zurruntasunean ez oinarritzea, prozesu parte-hartzaileen berezko naturaltasuna ez galtzeko.

Hortaz, komenigarria litzateke, alde batetik, arau-esparru horiek haur eta nerabeekin egindako prozesu parte-hartzaileetatik sortzea, ikuspegi helduzentristarik ez izateko eta helduek ez uste izateko adingabeek zer nahi duten eta zer behar duten argi akitenik. Eta, bestalde, estrategiak,

esparruak eta jardunbide egokiak eragileen artean egitea. Hala, protagonistek ezagutzen eta partekatzen duten **eskubideen esparrua eraikiz gero**, prozesu parte-hartzaileak sustatuko dira.

Beste elementu sustatzaileetako bat **egungo unearekin/testuinguruarekin** dago lotuta. Parte-hartzea eztabaida publikoan kokatzeak, Administrazio Publikoak parte-hartzea sustatzearekin konprometituta egoteak eta, halaber, haur eta nerabeek epe labur, ertain eta luzean eragiten dieten gauza guztietan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzeak, lehentasunezko jarduketa-lerro gisa ezartzea dakar.

Inguruneari dagokionez, **erantzunkidetasunaren** premisatik abiatzen da eta eragileen arteko lankidetzan eta konpromisoan oinarritzen da, hala nola familien, eskolen, erakunde publikoen, erakunde sozialen eta oro har gizartearen artekoan, eragileen inplikazioaren bitartez. Ildo horretatik lan eginez gero, inplikaturako eragile bakoitzak parte-hartzearen garrantzia ulertzeaz gain, barneratu egingo du garrantzi hori, haurtzaroaren eta nerabezaroaren etapei ematen dien balioarengatik eta helduaroan epe luzera sortzen duenarengatik. Halaber, prozesu parte-hartzaile oro eraginkorra izan dadin bermatzeko, helduek eskubidedun subjektutzat hartu behar dituzte haur eta nerabeak.

Parte hartzeko espazioei eta/edo testuinguruei dagokienez, haur eta nerabeekin doazen pertsonen **espazio seguruak eta konfiantzan oinarritutakoak** eskaini behar dituzte, parte hartzeko espazio esanguratsuak izan daitezten.

Ingurune txikiagoek eta, hortaz, **gertuagoek**, hau da, tokiko arloek, komunitateek edo auzoek, haur eta nerabeen parte-hartzea, loturak eta interakzioa sustatzen dituzte, bai eta segurtasuna eta konfiantza ere, normalean haien eguneroko bizitza ingurune horietan garatzen dutelako. Horregatik, haur eta nerabeek beldurrik gabe hitz egin dezakete, epaituak sentitu gabe... Ekimenak ingurune geografiko handiagoetan gauzatuz gero, komenigarria izango litzateke elementu horietan sakontzea, komunitatea lausotuago egon daitekeelako.

Azkenik, **hezkuntza ez-formaleko espazioek** prozesu parte-hartzaileak sustatzeko baldintza optimoak dituzte. Boluntariotzan oinarritutako espazioak dira, helduekin harremanak sortzen dira eta segurtasunaren eta konfiantzaren printzipioetan oinarritzen dira. Hortaz, proposamen asko sor daitezke hortik, eta espazio erakargarriak eta motibatzaileak bihurtzen dira haur eta nerabeak inplikatzeko.

5.2.2 Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuari dagokionez

Edozein parte-hartze prozesu sustatzen duen lehen elementua da haur eta nerabeek **informazio argi eta irisgarria** izatea: parte hartzeko eskubidea gauzatzeko espazioak zein diren, nola egin dezaketen, zer gairen gainean, zertarako eta nondik. Hiru praktika interesgarri eta eskalagarri identifikatu dira: informazio hori haur eta nerabeek erabiltzen dituzten plataforma digitaletan gehitzea, komunikatzeko eta interakzioa izateko egunerokoan erabiltzen dituzten inguruneak direlako; haur eta nerabeei zuzendutako dokumentu guztiak hizkera ulergarriara egokitzea (irakurketa erraza, piktogramak...); eta adingabeentzako erreferentziazko espazioetan zabaltzea (kulturan, hezkuntzan, kirolean, osasunean...).

Informazio argi eta irisgarria emateaz gain, komeni da adingabeekin lantzea zer nolako **aurreikuspenak** dituzten parte hartzeko prozesuei dagokienez, frustrazio- eta egonezin-egoerak

ekiditeko eta prozesua ez abandonatzeko eta uzteko. Bereziki gomendagarria da pazientzia, tolerantzia eta frustrazioa lantzea eta gatazkak konpontzea, emaitzen aurreikuspen horrek (askotan berehalakoak izaten dira) prozesu parte-hartzaileen errealitatearekin talkarik egin ez dezan, geldoagoa izan baitaiteke.

Adostutako arauak eta elkarren arteko sorkuntzan oinarritutako prozesuak ezartzea elementu sustatzaileak dira, prozesu parte-hartzaileak garatu ahal izateko esparru partekatua eta errespetuzkoa eskaintzen dutelako. Prozesu horiek haur eta nerabeen lankidetzazuzena sustatzen dute eta jardueren eta programen plangintzan, diseinuan eta ebaluazioan inplikatzeko ahalbidetzen dute. Halaber, gardentasunean oinarritutako prozesuak sortzen dituzte.

Prozesu parte-hartzaileen **eskuragarritasuna, egonkortasuna eta finantzaketa** ere nabarmendu behar da. Prozesu parte-hartzaile horiek eta, zehazki, politika publikoetakoak, ohiturak sortuz gertatzen dira eta, baliabideak eta denbora eskaini behar dira horiek eratu eta zabaltzeko ahal izateko.

Azkenik, prozesu parte-hartzaileak **itzultzea, transferitzea eta kontuak ematea** elementu ezinbestekoak dira haur eta nerabeen inplikazio, motibazio eta segurtasun handiagoa lortzeko.

5.2.3 Parte hartzeko beharrezko baldintzei dagokienez

Abiapuntuak **haur eta nerabeen parte hartzeko jarrera naturalak** izan behar du. Horretarako, interesa adierazi behar dute entzunak izateko garaian eta erabakitzeko eta adostutakoa praktikan jartzeko aukera eman behar zaie. Hori izango da edozein prozesu parte-hartzaile hasteko oinarri sendoa.

Halaber, haur eta nerabeen taldeetan **lidergo natural** bat izatea onuragarria da, gainerako kideen parte-hartzea sustatzen duelako. Hala, taldea autoerregulatu egiten da (hitz egiteko txandak, lan-metodologia, bizikidetzaz-arauak...) eta, ondorioz, **konfiantzazko** espazioa sortzen da. Ezinbesteko elementua da hori prozesu parte-hartzaileetan.

Gainera, adingabeek konfiantza izateaz gain eta espazio seguru batean sentitzeaz gain, **autonomia** sustatzen du eta, hortaz, **autogestio-maila** jakin batean oinarritutako prozesuak sor daitezke, behar duten uneetan gida edo orientazio profesionala izan arren. Hala, haur eta nerabeei ematen zaie **protagonismoa** eta **espazio naturalagoak** sortzen dira. Espazio horiek berezkoagoak sentituko dituzte eta parte-hartzaileek gehiago iraungo dute.

Horri dagokionez, **parte hartzeko baldintza optimoak sortzea** elementu sustatzailea da eta hiru elementu nabarmentzen dira: **dibertsitatearekiko arreta** (pertsonek bere berezitasuna adieraz dezake espazio horietan), **autonomia** (pertsonek bere boterea gauzatu dezake) eta **interdependentzia** (eragile bakoitzak besteari beharra izatea).

Hala, haur eta nerabeei laguntzen dieten helduek gai izan beharko dute **haur eta nerabeak erdigunean jartzeko eta haien autonomia indartzeko**. Hala, adingabeek beren hizkera propioa, erritmo propioa, metodologia propioa eta prozesu parte-hartzaileetan txertatu nahi dituzten kanalak eta plataformak gehitu ditzakete. Horri esker, bizitzan ari diren bizi-prozesu horretan garrantzitsuak iruditzen zaizkien alderdi guztiak txertatzen dituzte prozesu horretan, eta autonomia eta entzute hori gabe ez litzateke posible izango. Alabaina, adingabeei protagonismoa emateak helduen posizioa aldatzea dakar, eta, hala piezen mugimendu bikoitza

sortzen da. Horrek helduen mundua trebatzeko lan egitea eskatzen du: haur eta nerabeen autonomia handitu ahala, helduena eta profesionalena murriztu egiten da.

Azkenik, helduek haur eta nerabeen beharrak eta interesak hautematen joateko gaitasuna eta ezagutza izan arren, beste bizi-etapa batean daude eta, hortaz, hainbat gauza hautemateko edo ulertzeko modua oso desberdina izan daiteke. Hori dela eta, ezinbestekoa izango da **pertsona bakoitzaren bizi-prozesuak ulertzea eta errespetatzea**.

5.3 Prozesu parte-hartzaileak zailtzen dituzten elementuak

Jarraian, haur eta nerabeen prozesu parte-hartzaileak zaildu ditzaketen elementuetan sakonduko dugu. Elementu horiek hiru bloketan antolatu dira: egiturazko zailtasunak, parte-hartze prozesuarekin lotutakoak eta testuinguruarekin eta dibertsitatearen kudeaketarekin lotutakoak.

5.3.1 Parte-hartzearekin lotutako egiturazko zailtasunak

Identifikatutako lehen zailtasuna jarrerarekin lotuta dago, besteak beste, **kontzientzia sozialaren faltarekin** eta **parte-hartzearen kulturarekin**. Horren ondorioz, ez zaio behar besteko garrantzirik ematen parte-hartzeari eta ez da lehentasunezko lan-ildoak bihurtzen prozesu guztietan. Hala, parte-hartzera bideratu ohi diren baliabide ekonomikoak eskasak izaten dira eta batzuetan hutsala izaten da partida, aurrekontua murriztea eraginez. Horrek are gehiago zailtzen du materialak eskuratzea, zailtasun ekonomikoak dituzten eta haien seme-alabak parte hartu nahi duten familiei laguntza ematea edo beharra duten profilei arreta pertsonalizatua eta egokituia eskaintzea (material egokituak, laguntzeko figurak...).

Horrekin lotuta, **hainbat eragileren borondate faltak** zailtasunak sortzen ditu haur eta nerabeekin prozesu egonkor eta eraginkorrak sortzeko garaian.

Haur eta nerabeak herritarren zati aktibotzat ez hartzeak desberdintasunak sortzeaz gain, prozesu parte-hartzaileak desorekatu ditzakete, eta adingabeek profil baxuak, ez oso aktiboak edo proposatzeko jarrerarik gabekoak izan ditzakete, aurreiritziek eta estereotipoek eraginda. Horrek loturak kutsatzen ditu, belaunaldien arteko arrakala sortzen du eta harreman bertikalean eta ikuspegi helduzentrikoan oinarritutako egitura sozial hierarkikoa eragiten du.

Hortaz, haurren gaineko **estereotipoek eta aurreiritzien** ondorioz eta mendekotasunetik eta zaintzatik gertu dauden rola esleitzearen ondorioz, ez dira benetan diren moduan hautematen: autonomoak, gaitasun kritikoarekin, erabakitze gaitasunarekin eta kontzientzia sozialarekin.

5.3.2 Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuarekin lotutako zailtasunak

Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuek denbora asko behar dute martxan jartzeko, garatzeko, jarraipena egiteko eta behar bezala itzultzeko. Horri dagokionez, zailtasun nagusietako bat **prozesuen jarraipena** da. Profesionalen eta boluntarioen txandaketak, eta begiraleen ziklo geroz eta laburragoak landu beharreko alderdiak dira, prozesuei egonkortasuna eman ahal izateko. Halaber, erakunde batzuetan gertatzen ari den belaunaldi-txandaketaren

ondorioz zailagoa da misioa, ikuspegia eta balioak transmititzea eta desberdintasunak sortzen ari dira parte-hartzearen eta prozesu propioen kontzepzioari dagokionez.

Denbora falta da jarraipenean eragiten duen beste alderdietako bat. Haur eta nerabeek denbora gutxi dute prozesu parte-hartzaileetara sartzeko, bai eta adingabeen erreferentziazko helduek ere. Horren ondorioz, ez da lehentasunezko zerbait bihurtzen, beste arlo batzuekin alderatuta, besteak beste, arlo akademikoarekin, eskolaz kanpoko jarduerekin, aisialdiarekin...

Halaber, **finantzaketa eskasa** ere bada prozesuen jarraipenean eta kalitatean kontuan izan beharreko faktorea. Prozesu parte-hartzaileak garatzeko baliabide ekonomiko nahikoak izatea garrantzitsua da, bai horiek sustatu edo lagunduko dituzten pertsonen taldeentzat (egonkortasun falta, lanaren gainkarga, prestakuntzarako aukera eskasak...), bai horiek garatzeko euskarri fisiko eta ekipamendu egokientzat.

Horrez gain, **zailtasunak hauteman dira prozesu parte-hartzaileen aurreikuspenei** dagokienez. Prozesuen emaitzetara bideratuta egoten dira horiek hein handi batean eta bigarren plano batean geratzen dira parte hartzeko esperientzia bera eta hortik sortzen diren konpetentzia, lotura eta esperientzia guztiak.

Halaber, **kontuak ematea** da hautemandako beste zailtasunetako bat. Alde batetik, haur eta nerabeek euren parte-hartzeak duen inpaktua ezagutzeko mekanismo argiak ezartzeari dagokionez. Bestetik, informazioa adingabe guztientzako irisgarria, gertukoa eta egokitua izan daitekeen ikuspegi batetik helarazteari dagokionez. Erakundeek badakite itzultze egokirik egiten ez bada, atxikimendu eta motibazio falta sortzen dela prozesu parte-hartzaileetan.

Azkenik, parte-hartzearen arloa arlo nahiko hasiberria da eta garapen eta finkapen handiagoa behar du. Horrez gain, arlo horretako **esperientzia** berritzaileek eta jarduketa garrantzitsuek **ikusgarritasun txikia** izan dute, beraz, garrantzitsua da horiek jakinaraztea. Horri dagokionez, eragileen artean **partekatutako jardunbide egokiak** zabaltzeak hainbat aukera sor ditzake adingabeentzako parte hartzeko esperientzia erakargarriak eta garrantzitsuak garatzeko eta ezartzeko.

5.3.3 Testuinguruarekin eta dibertsitatearen kudeaketarekin lotutako zailtasunak

Haur eta nerabeen jatorriari, etniari, klase sozialari, testuinguru sozioekonomikoari eta soziokulturalari, gaitasunei, baldintza fisikoei, adinari, generoari, sexu-orientazioari eta abarri dagokionez dagoen **profilen dibertsitatea** aberasgarria da, baina dibertsitate hori ondo kudeatu behar da. Horregatik, komeni da mekanismoak ezartzea, hainbat profiletako haur eta nerabeek prozesu parte-hartzaileetan parte hartzeaz gain, prozesu horien parte ere senti daitezen.

Ikuspegi intersektionalik ez izateak haurrenganako ikuspegi homogeneous sortzen du eta horrek zaildu egiten du gizartean sortzen diren zapalkuntza-ardatzak identifikatzea eta esku-hartzea. Ardatz horiek kolektibo jakin batzuk diskriminatzen dituzte jatorriari, maila sozioekonomikoari, erlijioari, sexu-orientazioari, gaitasunei eta abarri dagokionez.

Testuinguru soziofamiliarra prozesu parte-hartzailearen elementu sustatzailea edo oztopoa izan daiteke, lehen mailako sozializazio-eragilea baita familia. Familiek laguntzarik ez emateak edo ez ulertzeak haur eta nerabeen parte-hartzea apaldu dezake. Parte hartzeko zailtasun

handiak hauteman dira bereziki zaugarritasun-egoeran edo -arriskuan dauden familietako haur eta nerabeen artean. Informaziorako edo baliabideetarako sarbiderik ez izateak, baliabide ekonomikorik ez izateak edo familia bera gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan egoteak inpaktu nabarmena du parte-hartzean, ez delako erantzun beharreko lehentasunetako bat.

Hala, badirudi egoera zaugarriagoan, egoera konplexuagoetan edo laguntza-behar handiagoekin dauden haur eta nerabeen profil jakin batzuk modu aktiboan sartzeari oso zaila edo are ezinezkoa dela. Esaterako, **babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden adingabeak**, ingurune soziofamiliar egonkorrik ez dutenak, inoiz entzunak izan ez direlako parte hartzeko zailtasun handiak dituztenak, haien iritzia inoiz kontuan hartu ez dietenak, parte-hartzea sustatzeko konpetentziarik garatu ez dutenak, hala nola entzute aktiboa, asertibitatea, autoestimua, segurtasuna... Horri dagokionez, badirudi garrantzitsua dela aurretiazko prozesuak egitea, prozesu parte-hartzaileetan parte hartu ahal izateko konpetentziak lantzeko adingabeekin.

Azkenik, testuinguru geografikoa da parte hartzeko garaian desberdintasunak sor ditzakeen beste elementu garrantzitsuetako bat. Adibidez, prozesu parte-hartzaile bati ekiteko testuingurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zailtasun handiagoak izango dira, komunitatea lausotuago egon daitekeelako, pertsonen arteko loturak ahulagoak izan daitezkeelako, etab.

5.4 Parte hartzeko prozesuetan aurrera egiten jarraitzeko ildoak

Azkenik, jarraian aurkeztuko ditugu haur eta nerabeen prozesu parte-hartzaileetan aurrera egiten jarraitzeko garatu beharreko ildoetako batzuk. Lehentasunezko bi ildo daude haur eta nerabeen parte-hartzearen gaineko sentsibilizazioarekin eta pedagogiarekin lotuta eta eragilean artean ezagutza partekatua eta lankidetzaren sortzearekin lotuta.

5.4.1 Haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzko sentsibilizazioa eta pedagogia

Parte-hartze prozesuetan inplikaturako eragileak ezin dira soilik hirugarren sektore sozialekoak eta elkarte mugimendukoak izan, hainbat gizarte-sektoretan joan behar da pixkanaka hori txertatzen. EAEko hezkuntzari buruzko 2003ko abenduaren 21eko 17/2003 Legea eta Haur eta Nerabeei buruzko 2024ko otsailaren 15eko 2/2024 Legea dira abiapuntuak eta haur eta nerabeen parte-hartzea eta sistemen arteko interakzioa lehenesten da. Hortaz garapenak aurreikusten dira horri dagokionez.

Haur eta nerabeek duen **parte hartzeko eskubidea sustatzea eta haiek informatzea eta sentsibilizatzea** lehentasunezko jarduketak dira, kontzientzia eta mobilizazio soziala sustatzen baitira horrela. Bestalde, garrantzitsua da maila guztietan egiten ari diren garapen eta ekimen guztiei balioa ematea, mikrotik hasi eta makroraino.

Esparru horretan, funtsezkoa da **helduekin lan egitea** sentsibilizazioaren, kontzientziazioaren eta prestakuntzaren bidez. Helburua da gogoetarako eta sakontzeko ariketa bat egitea, parte-hartzea sustatzeko, zein prozesuak benetan eraginkorrak izateko eta helduzentrismoa ekiditeko

beharrezko konpetentziak eskuratzeko. Kasu honetan, gurasoei eta ingurune soziofamiliarrari interpelazio zuzena egin behar zaie, lehen mailako sozializazio-eragileak direlako.

Halaber, nabarmentzekoa da **hainbat arlo eta sistemarekin egiten den sareko lana**, eragile publikoak zein pribatuak izan. Horri esker, gogoetarako, elkarrekin lan egiteko, sinergiak sortzeko eta parte hartzeko ekimenen inpaktua maximizatzeko espazioak sor daitezke.

EHSSk esparru horretan duen rola ezinbestekoa da, zerbitzuen prestazioarekin lotutako jarduerarengatik ez ezik, baita intzidentziarekin lotutako jarduerarengatik ere. Izan ere, sektoreko erakundeen elementu bereizgarria da hori. **Eragiteko**, salatzeko eta eskubideak sustatzeko egiten duen lana funtsezkoa da beste eragile sozial batzuk eta gizarte osoa sensibilizatzeko eta haur eta nerabeen parte-hartzearen alde egindako apustuaren garrantzia aldarrikatzeko.

Horrez gain, funtsezkoa da prozesu parte-hartzaileetan edo prozesu soziohezitzaileetan murgilduta dauden **profesionalak prestatzea eta trebatzea**, parte hartzeko aukerak, agertoki berriak, beharrak eta esperimendatutako oztopoak identifikatu ditzaten. Komenigarria litzateke eragile sustatzaileen figura bultzatzea, prozesu horiek ahalbidetzeko eta prozesu horiek martxan jartzeko mekanismoak artikulatzeko.

5.4.2 Ezagutza partekatua eta irismen handiagoa

Haur eta nerabeen parte-hartzeak azken urteetan izan duen bilakaera positiboa izan den arren, lehentasunezkoa da **parte-hartze prozesuen irismena indartzen eta handitzen jarraitzea**. Horri dagokionez, garrantzitsua da aisialdi hezitzailea sustatzen jarraitzea, haur eta nerabeen arloan parte-hartze prozesuak garatzeko eta indartzeko espazio garrantzitsu gisa.

Horretarako, ezagutza partekatua eraikitzen jarraitu behar da, eta haur eta nerabeen parte-hartzearen gaineko **oinarri partekatu** batzuk ezarriz finkatu daiteke hori. Hala, parte-hartzeak apelatzen dituen eragile guztiak identifikatuta sentituko dira definizio eta garapen horrekin. Horri dagokionez, komeni da **haur eta nerabeen parte-hartzea sistematizatzea**, oinarri teoriko partekatua finkatzeaz gain, helburu eta mugarri adostuak ezartzeko. Hortaz, aurrera egiten jarraitzeko ildoetako bat da haur eta nerabeek politika publikoetan parte hartzeari buruzko jarduketa-gida bat egitea eta EHSSko erakundeekin nola artikulatzen den ikustea.

Sustatu beharreko beste elementu bat da **ekimen bereziki esanguratsuak, eskalagarriak edo besterengarriak identifikatzea**, haur eta nerabeentzako ekimen edo prozesu parte-hartzaileak garatu nahi dituzten beste erakunde edo eragile batzuentzako intereseko erreferentziak izateko. Identifikazio-prozesu hori lan bizia izan daiteke, etengabe elikatzen dena, eta, horretarako, identifikatutako ekimen eta jardunbide egoki guztien mapa birtual bat sor daiteke, espazioak, formatuak, profilak eta abar barne biltzen dituenak.

Ezagutza teorikoa, ekimenak eta emaitzak partekatzeko tresna bat sortzea lehentasunezkoa da aurrera egiten jarraitzeko. Hala, alde batetik, parte-hartzearen inpaktua handituko da eta, bestetik, irismena.

Aurrera egiteko beste ildoak da haur eta nerabeen parte-hartzearekin lotura duten eragileen artean **ezagutza teorikoa, ekimenak eta emaitzak partekatzeko tresnak sortzea**, eta tresna horiek irisgarriak eta irekiak izatea parte-hartze sozialak interpelatzen dituen eragile guztientzat.

Horretan aurrerapausoak eman ahal izateko, parte hartzeko ekimenak, espazioak eta kanalak **gehiago zabaltu** behar dira, eta, horretaz gain, parte-hartzeak haur eta nerabeentzat, inplikaturako eragile guztientzat eta, oro har, gizarte eta komunitate osoarentzat dakartzan onurak zabaltu behar dira. Hala, lan pedagogikoa eta sentsibilizazioa egingo da.

Aurretik aipaturakoaz gain, berrikuntza-prozesuak sustatzeko beharra identifikatu da, **parte hartzeko alternatibak, metodologia berriak eta ikuspegi berriak** txertatu ahal izateko, haur eta nerabeek baldintza berdinak izan ditzaten prozesu parte-hartzaileetara sartzeko, haien identitate-ezaugarriak gorabehera. Horretarako, funtsezkoa da **genero-ikuspegia, intersektionalitatea eta dibertsitatearen kudeaketa integratzea**.

Halaber, **emaitzak neurtzeko tresnak** diseinatu behar dira, asebetetze-inkestetatik edo galdetegietatik harago, eta aurrerapausoak egin behar dira tresna dinamikoagoak lortzeko, hala nola eztabaida-taldeak, lan-tailerrak... Aurreko horri dagokionez, parte hartzeko esperientziak berak adingabeengan izan duen inpaktu emozionala eta haien egoera pertsonalak, bizi-historiak eta abar partekatzeak izan duen eragina jasotzeko beharra hauteman da. Komeniko litzateke gauza horiek adierazteko espazio seguruak sortzea.

Horretarako, elkarrekin eta zeharka egin behar da lan, **haur eta nerabeei trebakuntza espezializatua emateko politika publikoetako** parte-hartzearekin lotutako hainbat espaziotatik (hezkuntza arloa, hirugarren sektore soziala...). Horretarako, analisi politikoarekin edo proposamenen formulazioarekin lotutako gaitasunak jorratu behar dira, esaterako.

Haur eta nerabeen parte-hartzea lotuta dago politika publikoarekin. Hortaz, **funtsezkoa da haur eta nerabeen ikuspegia txertatzea udalerriko, aldundiko eta erkidegoko agenda politikoan**. EZEMen haur eta nerabeen batzordeak hainbat lan-ildo hasi ditu proiektuak sortzeko haur eta nerabeekin lankidetzan.

Testuinguru horretan, garapen-ildo garrantzitsua bihurtu da **politika publikoen arloan parte hartzeko egiturak sortzea**. Hauek izan daitezke proposamen interesgarri batzuk: politika publikoak diseinatzeko eta gauzatzeko garaian haur eta nerabeen ikuspegia kontuan hartzen dela bermatzeko egitura instituzionalak ezartzea, kontsulta-batzordeak edo lantalde espezifikoak finkatzea, tokiko parte-hartze kontseiluak sortzea eta kontseilu horiek lurralde-kontseiluak elikatzea, edo parte hartzeko erkidegoko kontseilu bat sortzea.

Azkenik, komenigarria izango litzateke haur eta nerabeekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden politika publikoetan **zeharkako parte-hartzea** sustatzea. Eragina duten sailak edo arloak zeharkatzen dituen apustu politiko baten bitartez. Horretarako, haur eta nerabeen parte-hartzean eragin berezia duten eragile instituzionalen arteko koordinazioa indartu behar da.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Estatukoa. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20koa. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1990-31312>
- Estatukoa. 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2021-9347>
- Euskadi. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-17778>
- Euskadi. 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2015/10/06/185/dof/eus/html/>
- Euskadi. 17/2023 Legea, 2023ko abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoa Hemen eskuragarri: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2023/12/21/17/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/>
- Euskadi. 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, haur eta nerabeena. Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-4784
- Euskadi. 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriari buruzkoa Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-8832>
- Euskadi. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/s08_0246.pdf
- Euskadi. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>
- Eusko Jaurlaritza (2022). Haur eta nerabeekiko indarkeriaren aurkako euskal estrategia (2022-2025). Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/estrategia-vasca-contr-la-violencia-hacia-la-infancia-y-la-adolescencia-2022-2025/web01-a2zeukes/es/>
- Eusko Jaurlaritza (2023). Astialdi Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategia Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2023/estrategia-vasca-2030-para-el-impulso-de-la-educacion-en-el-tiempo-libre/>
- Eusko Jaurlaritza (2021). Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia. 2021-2024 Legegintzaldiko Plana. Hemen eskuragarri: <https://3seuskadi.eus/libros/estrategia-de-promocion-del-tercer-sector-social-de-euskadi-plan-de-legislatura-2021-2024/>
- Nazio Batuen Erakundea (2015). Garapen Jasangarrirako Helburuak Hemen eskuragarri: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>
- Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia. (2023ko abendua). Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2023ko Barometroa. Hemen eskuragarri: <https://3seuskadi.eus/coleccion/barometro-2023-del-tercer-sector-social-de-euskadi/>
- Romero Pérez, C., Quirós Guindal, A., & Buxarraiz Estrada, M. (2021). Enfoques para promover la participación infantil y adolescente. *Pedagogía social*, 21-32.

Save The Children. (2021). *Save The Children*. Save The Children:

<https://www.savethechildren.es/actualidad/analisis-situacion-barreras-derecho-participacion>

UNICEF. (2022.eko oktubre). *UNICEF*. UNICEF: <https://ciudadesamigas.org/participacion-seminario2/>

7. ERANSKINAK

7.1 Parte-hartzaileak

ONLINE GALDETEGIA		
Zk.	Erakundea	Esperientzia
1	IRSE Araba	Odola ematea sustatzea
2	Hirukide	Hirugazte boluntariotza
3	Harribide Fundazioa	Gazte foroak
4	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba	Gazteen Txokoa
5	MARGOTU, bazterkeria sozialaren aurkako elkarte	Bilboko balkoi ezezaguna
6	Euskalerriko Eskautak Araba	Euskalerriko Eskautak Araba
7	Oldarra Aisialdi Elkarte	Antzerki musikala
8	UNICEF -Euskadiko Batzordea	Aurrerapausoak Euskadiko haur eta nerabeen parte-hartzean
9	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba	Neurri aktiboak
10	Elkarbanatuz elkarte	Elkarbanatuz elkarte
11	Euskalerriko Eskautak Bizkaia	Euskalerriko Eskautak Bizkaia
12	Bosko Anitz Aisialdi Taldea	Aisialdi-taldea larunbat arratsaldetan
13	Alabaitza Aisialdi Elkarte	Alabaitza Aisialdi Elkarte
14	Mundu Bakean	Genero-berdintasunari eta migrazioari buruzko tailerrak
15	Portugaleteko Aisialdi Sarea	Portugaleteko Aisialdi Sarea
16	Aisibizia elkarte	Aisibizia elkarte
17	Aurrerantz	Aurrerantz
18	Indautxuko eskautak	Indautxuko eskautak
19	Caritas Bizkaia	Namastè- gazteen parte-hartzerako taldea
20	Los Ángeles Eskaut Taldea	Los Ángeles Eskaut Taldea
21	Argizai Eskaut Taldea	Argizai Eskaut Taldea
22	Ainara Aisi Taldea	Ainara Aisi Taldea
23	Ausartzen	Ausartzen
24	Gozaldi Gazte Elkarte	Gozaldi
25	Harribide Fundazioa	Harribide Fundazioa
26	Belatzak Eskaut Taldea	Belatzak Eskaut Taldea
27	Jóvenes 88 gazteak	Jóvenes 88 Gazteak
28	San Viator eskaut taldea kultur elkarte	San Viator eskaut taldea kultur elkarte
29	Hirukide	Hirugazte
30	Save The Children Fundazioa	Alkategaiak
31	Umeak Klean	Umeak Klean
32	Kiribil Sarea	Harrobia eta etorkizuna eraikiz
GALDETEGIAK GUZTIRA		32

TAILERRA	
Zk.	Erakundea
1	Hirukide
2	Kiribil Sarea
3	Unicef (2)
4	Bosko Taldea
5	Gaztetxoeen koordinakundea
6	Dirdira
7	Fedeafes
8	EAPN (2)

9	Agintzari, gizarte-ekimeneko kooperatiba	
10	Gobierno Vasco (3)	
11	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)	
12	Hezkide Sarea	
13	Elkarbanatuz	
14	Sareen Sarea	
15	Ortzadar	
16	Astialdi Sarea (2)	
17	Solasgune	
18	Euskalerriko Eskautak Bizkaia	
19	Save the Children.	
20	Bidegintza	
21	Caritas Bizkaia	
22	EDE Fundazioa	
23	Aspanovas	
PARTE HARTZAILEAK GUZTIRA	23 erakunde	29 pertsona

7.2 Galdetegia

Ikerketaren helburua da haurrek eta nerabeek haiei eragiten dieten politika publikoetan, fase guztietan, duten parte-hartzearen errealitatea ezagutzea.

Galdetegi honen bidez, EHSSk eta/edo EAEko administrazio publikoek sustatutako 12 eta 17 urte bitarteko pertsonen EAEn parte har dezaten sustatzeko ekimenak eta parte-hartze hori indartzen jarraitzeko ildoak identifikatu nahi dira, zuzeneko parte hartzea edo erakundeen bidezkoa aintzat hartuta, haur eta nerabeek parte hartzeko duten eskubidearen benetako erabileraren egungo adierazpenak identifikatzeko eta deskribatzeko, bereziki elkarriketa zibilar dagokionez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean definitzen den bezala: esku-hartze sozialaren hartzaileek fase guztietan eragiten dieten politiketan parte hartzeko eskubidea dute, diseinutik ebaluaziora, gauzatzerara barne.

1. BLOKEA: IDENTIFIKAZIOA

ALDAGAIA	Zk.	GALDERA	ERANTZUN AUKERAK
Erakundea	1	Adierazi ekimena zer erakundetan egiten den	(irekia) Bizkaia Gipuzkoa Araba Lurralde historiko batean baino gehiagoan
Lurralde historikoa	2	Zer lurralde historikotan garatzen du jarduera erakundeak?	Osasuna edo soziosanitarioa Enplegua edo sozialaborala Gizarte Zerbitzuak Hezkuntza edo soziohegitzaila, Aisialdia barne Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak Sozial-transbertsala Beste batzuk
Eremua	3	Zer arlotan jarduten da, batez ere, zure entitatea?	0 eta 300.000 € artean 300.000 € baino gehiago
Tamaina	4	Zein da erakundearen diru-sarreraren bolumena?	

Soldatapekoak	5	Erakundeak badu soldatapeko langilerik?	Ez dugu soldatapeko langilerik Bai, baditugu soldatapekoak
	6	Erakundeak badu boluntariorik?	Ez dugu boluntariorik 1 eta 20 boluntario artean 20 eta 50 boluntario artean 50 boluntario baino gehiago
Harremanetarako datuak	7	Galdetegiari erantzun dion pertsona: Izena E-maila Telefonoa	

2. BLOKEA: PARTE HARTZEKO EKIMENAREN DESKRIBAPENA

ALDAGAIA	Zk.	GALDERA	ERANTZUN AUKERAK
Parte hartzeko ekimenaren izena edo deskribapena	1	Adierazi parte hartzeko esperientziaren izena eta/edo deskribapena	(Irekia)
Inplikaturako eragileak	2	Zer eragile daude inplikaturako parte hartzeko ekimenean? (administrazio publikoa, hirugarren sektoreko beste erakunde batzuk, komunitatea, beste eremu batzuk, hala nola hezkuntza, osasuna...)	(Irekia)
Ekimenaren helburuak	3	Adierazi parte hartzeko ekimenaren helburu orokorra eta/edo espezifikoak (proposamenak jasotzea, kontsultarako, entzuteko edo elkarriketarako guneak prestatzea, politikak batera eraikitzea, parte hartzeko gaitasunak eta balioak entrenatzea...)	(Irekia)
Ekimenaren formatua	4	Adierazi parte hartzeko ekimenaren formatua	Prozesua Egitaraua Proiektua Zerbitzua Beste bat (zehaztu)
Jatorria	5	Parte hartzeko ekimena aurretiko esperientzia edo prozesuren batetik abiatzen da?	Bai (zehaztu) Ez
Arloa	6	Erakundearen zer arlo edo lan ildotan garatzen da parte hartzeko ekimena?	(Irekia)
Parte-hartze maila	7.1	Haur eta nerabeen parte-hartzea ahalbidetuko duten gaitasunen garapenera eta ahalduztzera bideratuta dago ekimena? (Parte hartzen duten zentroaren antolakuntza, jardueren plangintza, jardueren kudeaketa ekonomikoan, prestakuntza eta gaitasunak, gaitasunen garapenean, autobabesean...)	Bai (zehaztu) Ez
	7.2	Parte hartzeko zer mekanismo erabiltzen dira (batzarrak, galdetegi indibidualak, tutoretzak, etab.)?	(Irekia)
	7.3	Zer mailatan sustatzen da parte-hartzea?	Maila pertsonalean pertsona bakoitzaren esku-hartze sozialean Taldean, jardueretan edo zerbitzuetan Modu kolektiboan, erakunde edo instituzioan Modu kolektiboan baita ere, epe ertain-luzeko politika publikoak diseinatzeko eta ebaluatzeko garaian, orientazioa barne
	7.4	Nolakoa da parte-hartzea?	Kontsultarako Parte-hartzailea Autogestionatua
Eremua	8	Zer arlotan sustatu nahi du parte-hartzea ekimenak?	Banakako esku-hartzea

			Jarduerak Zerbitzuak Politika publikoak Beste batzuk (zehaztu)
Garatzen den testuingurua	9	Zer testuingurutan garatzen da parte hartzeko ekimena? (behar beste aukera hauta ditzakezu)	Urbanoa Landa eremua Tokikoa Komunitarioa Eskolakoa Asoziatiboa Beste batzuk (zehaztu)
Parte-hartzaileen profilak	10.1	Haur eta nerabeen zer profili zuzenduta dago parte hartzeko ekimena?	(Irekia)
	10.2	Kontuan hartzen al dira aniztasunaren eta desberdintasunaren faktore hauek –generoa, jatorria, autonomia maila, maila sozioekonomikoa...–?	Bai (zehaztu zein) Ez
	10.3	Generoaren eta intersektionalitatearen (generoa + beste faktore batzuk) eta/edo interkulturalitatearen ikuspegia hartzen da diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan?	Bai (zehaztu zein) Ez
	10.4	Aniztasunari arreta emanez gero, nola hartzen da kontuan?	(Irekia)
Ekimenaren denboralitatea	11	Zein da ekimenaren denboralitatea?	Ekimen egonkorra (adierazi noiztik) Aldi baterako (adierazi aldia) Puntuala (adierazi noiz)
Parte-hartze mota	12	Ekimeneko parte-hartzea boluntarioa da?	Bai Kontraprestazio batekin lotuta dago (jarduerarako sarbidea, hezkuntzako curriculum, oparia...).
Lotura hezkuntza-arloarekin	13	Ekimena hezkuntza-arloarekin lotuta dago eta, hortaz, eskola-ordutegian egiten da?	Bai Ez
Ekimenaren irismena	14	Zer irismen du ekimenak? (Inpaktua ingurunean, emaitzak, ekimenaren hedapena, ekimenaren egonkortasuna, parte-hartzaileen kopurua, kopiagarritasuna...)	(Irekia)
Beste ezaugarri gako batzuk	15	Partekatu nahi duzun ekimenaren beste ezaugarri gako batzuk (haur eta nerabeekin batera diseinatzea, parte-hartze prozesuen emaitzen bilakaera...)	(Irekia)

3. BLOKEA: AURRERA EGITEN JARRAITZEKO ZAILTASUNAK ETA ILDOAK

ALDAGAIA	Zk.	GALDERA	ERANTZUN AUKERAK
Zailtasunak	1.1	Zein zailtasun nagusi izan dituzue?	(Irekia)
	1.2	Profilen aniztasunarekin lotuta, zein dira zailtasun nagusiak?	(Irekia)
Aurrera egiteko ildoak	2.1	Zein dira, oro har, haur eta nerabeekin parte hartzearen eremuan garatu edo indartu beharko liratekeen alderdi nagusiak?	(Irekia)
	2.2	Eta haur eta nerabeek entitateetan duten parte hartzeari eta, entitate bidez edo zuzenean, eragiten dieten politiketan parte hartzeari dagokionez?	(Irekia)
	2.3	Zer ekimenek sustatuko lukete zure erakundean, proiektuan edo zentroan politika publikoak lantzea?	(Irekia)
	2.4	Haurren iritzia politika publikoetan inpaktua izan dezan nahi badugu, zer mekanismo erabil daitezke? (kanpainak, iritzia emateko espazioak, iritzia/parte-hartzea txertatu izanaren balorazioa...)	(Irekia)
Beste gai batzuk	3	Nabarmendu nahi zenukeen beste gairik?	(Irekia)